X. Kintanak, H. Knörrrek eta A. Urrutiak egin dituzte zerrenda honi buruzko idatziko oharrak. Lehenbizi, X. Kintanarenak aztertu dira.

*Kontsumitu*-rekin batera *kontsumatu* ere egoki ikusten du sartzea ohargileak. Ez da onartu, oraingo itzuli honetarako behintzat. *Koraza*-ren parean *halakret* ezartzea ez da onartu. Hitz hau Leizarragak bakarrik omen darabil. Hurrengo itzulirako izango litzateke.

*Korroko*i hitzaren baliokidetzat *lazun* ematea onartu da, eztabaidaren ondoren.

*Kristalari, kristaldegi* eta abarrez izan da hurrengo eztabaida. Sarrera horiek kentzea onartu da azkenean. *Kristal* sarreran, berriz, 1. *Mineral*, 2. *Kalitate handikoa*. 'Bohemiako kristala' gehitzea onartu da.

*Krupeta*-ren parean *krispeta* ere sartzeko eskaria dela eta, bigarren itzulirako uztea proposatu eta onartu da.

*Kua* onomatopeia sartzea ez da ontzat eman. Ez da beharrezko ikusi.

Ondoren, H. Knörr-en oharren azterketari ekin diote euskaltzainek.

Onartu da *kontxo* sarreran Heg. eta Lgrt. dela adieraztea. Onartu da, halaber, *ko-raina e. kodaina* sartzea eta baita *kosmopolita* eta *kosmopolitismo* ere. *Kostatu*-ren sarrera ere zuzentzea onartu da: *kosta(tu)*. *Kostarik* ere sartuko da. *Kotsu* ere sartuko da: *Kotsu\* e. kutsu*. *Krimen* sarreran 'lege hauste larria' dela adieraziko da.

*Kristo* letra larriz behar omen luke. Zerrendatik kentzea onartu da. *Kristoren* sarrerari, berriz, 'Lgrt.' oharra erantsiko zaio eta *kristorenak* azpisarrera emango.

*Kutizia\* e. gutizia* sartzea onartu da. *Kurruka* ere sartuko da, '(usoaren) urruma' erantsita. *Lagunkin* hitzari ere sarrera egin zaio, Ipar. 'jendekina' dela adieraziz. *Laket* sarreraren izenondoa dela esango da eta *gizon laketa da* adibide gisa erantsiko.

Bigarren itzulirako utzi dira *kontzesibo*, *kontziente*, *kopulatibo*, *krida / kridatu / kridatzaile* eta *kuzina*.

Bestalde, ez da onartu *koraza* eta *korazatu*-ri buruzko oharra, ez eta ere *kordoka* sarreraren *kordokan ezarri* esapidea sartzea. *Korrikari eman* esapidea sartzea ere ez da onartu. *Koskan izan* esapidea sartzekotan, bigarren itzulian izango litzateke.

*Koskor* sarrera bere horretan uztea erabaki da. *Kulero* hitzaz ere eztabaida izan da, Heg. eta Lgrt. oharra erantsi ala ez. Azkenean, zerrendatik ateratzea onartu da. Bigarren itzulian izango du aukera, agian. *Kultu* hitzari buruzko oharra ez da kontuan hartu zerrendan proposatzen dena gauza bera baita. *Kume* hitz beregain bezala erabiltzen denez, ez da kontuan hartu Knörren oharra. Hala ere, zerrendan ageri den *Bizk batez ere* delako oharra ezabatu egingo da. *Kunplimendu* hitza sartzeko eskaria ez da onartu. *Kuriostate* sartzeko premiarik ere ez da ikusi. *Laborri*-ren sarreraren *izu-laborriak* esapidea sartzea eskatzen du ohargileak, baina esapide hori bere lekuan sartua ageri da.

*Laineztu* sartzea eskatzen du H. Knörrek. Batzordearen ustez *laineza hartu*-rekin aski da. Hitz horren grafiaren eztabaida ekarri du horrek: *laineza* ala *lañeza*? Azkenean, zerrenda bere horretan uztea erabaki da. Ondoren *laino / laño* eztabaida sortu da. Azkenean bi formak onartu dira, bi hitz bereizteko: *laño* 'barea' eta *laino* 'behe lainoa'.

Bazkariko etenaldiaren ondoren, arratsaldeko lauetan ekin dio Euskaltzaindiak be-riro lanari. Oraingoan A. Urrutiaren oharrak jarri dira mahai gainean. Onartu da zerrendan sartzea *kontu(-)emaile*, *kontzientzia(-)eragozpen*, azpisarrera gisa, *korbeta*, *korridore* eta *kremailera*. Bestalde, onartu da *lagun hurko* azpisarrera eranstea *lagun* sarrerari.

Hurrengo itzulirako utzi dira *kopetadun*, *koreografia*, *koreografo*, *kortxea*, *krema*, *kukustu / kukuts*, *kupo*, *laborista* eta *laburbide*. *Lagapen* hitzari ere, datu gehiagorik gabe, ezin zerrendaratuazkoa iritzi zaio.

Bestalde, *koñak* hitza alfabetoz dagokion lekuan sartuko da. *Krismet* sarrerako *kisketa* azken bokala gabe ematea egokiago ikusten du ohargileak. Batzordeak dituen datuen arabera, *kisketa* behar omen du. Horrela utziko da, horrenbestez, zerrendan.

Eta hemen eten da hiztegiaren azterketa. Eztabaidarako markatuak dauden hitzak hurrengo bileran aztertuko dira.

Ondoren, *lekora - lozorro* hitz zerrenda banatu da.

## 2. Euskaltzain ohorezko izan daitezkeen proposamena

Zuzendaritzaren eskutik datorrena da proposamen bakarra. Honako hauek osatzen dute zerrenda: Julene Berrojalbiz, Jesus Atxa, Karmele Esnal, Marie-Jeanne Minaberi, Jaime Kerexeta, Xabier Gereño, Karmelo Etxenagusia, Jose Antonio Loidi, Eugenio Agirretxe eta William Anthony Douglas jaun-andereek.

Hautagai guztiak jakinaren gainean ote dauden galdetu da. Baietz erantzun da. Bestalde, halako iritzi trukaketa bat izan da zerrendakideei buruz eta horrela utzi da kontua. Hurrengo bileran onartuko dira izendapenok.



### 3. Eskuartekoak

#### 3.1. Euskadi saria dela eta

Aurten ere Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak giza eta gizarte zientzien arloan gehien nabarmendu den curriculuma saritzeko deialdia egin dutela gogorarazi zaie euskaltzainei. Joan den urteko saria L. Villasantek jaso zuen. Aurten Euskaltzaindiak, erakunde gisa, ez du inolako proposamenik egin.

#### 3.2. Seberetxe

Duela urte batzuk hil zen Francisco Javier Martinez Pardo jaunak Euskaltzaindiari *Seberetxe* izeneko jauregiaren laurdena utzi zion testamentuan. Dagokion parte hori jasotzeko eta notaritzan egin behar diren eskriturak eta gainerako tramite guztiak bideratzeko, J.A. Arana diruzainari ahala emateko proposamena egin zaie euskaltzainei, honen bidez Euskaltzaindiak onar dezan utzi zaion ondarea. Horrezaz gainera, egin behar diren konponketa premiazkoenak bideratzeko ere ahala ematea proposatzen da. (ik. eranskina).

Urrutia jaunari bere iritzia eskatu zaio. Ezkor xamar agertu da, eraikuntzaren egoera eskasa dela eta, baina onartzearen aldeko dela esan du. Euskaltzainek aho batez onartu dute idatziz egin zaien proposamena.

Eta besterik gabe, arratsaldeko bostak eta hamarreen amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Azkoitian, 1998ko martxoaren 27an*

Azkoitian, Udaletxeko batzar aretoan, 1998ko martxoaren 27an, arratsaldeko 6etan, hasi da Josef Frantzisko Aizkibelen bigarren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak antolatutako batzarra. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, X. Kintana, F. Krutwig, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Urrutia euskaltzain osoak eta A. Aranburu, X. Aranburu, M. Atxaga, R. Badiola, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Mahaiburua osatu dute J. Haritschelhar euskaltzainburuak, Nerea Zubizarreta alkate andreak, Koruko Aizarna Gipuzkoako Kultura diputatu andreak eta Jokin Azkue HABE-ko zuzendari jaunak.

Lehenbizi, Nerea Zubizarreta andreak ongi etorria egin die bildutakoei. Herriak eman dituen gizon handietako bat gogoratzea poz handia eta ohorea dela herri horretako alkatearentzat. Bere hitzaldian, bidenabar, Azkoitiko euskara aztertzeko beka bat sortu dutela aditzera eman du, 800.000 ptakoa.

Ondoren, Koruko Aizarnak ere agurtu ditu entzuleak. Azkoitiak beti ematen omen ditu ezusteko atseginak, gaurkoan bezala.

J. Haritschelhar jaunak Aizkibel aitzindari izan zela azpimarratu du. Haren ametsa oraingo belaunaldian ari omen da betetzen. Euskaltzaindiaren lan nagusiak orain ari dira gauzaten: OEH, Gramatika, Atlas, eta abar.

Agur hauen ondoren, J. M. Satrustegik eskaini du bere hitzaldia: *Aizkibel, Argien mendeko azkoitiarra*. Aizkibelen figura goraiatu du. Aizkibel euskararen zalduntxoak izan zela bere garaian. Giza zientziak eta hizkuntzak landu zituen baina kontulari gisa aritu behar izan zuen. Zenbaki-zaletasun hori hizkuntzari buruzko bere azterketetan ere nabari omen daiteke.

Gero, H. Knörrek hartu du hitza, *Aizkibel, bibliografiagile* gaia aurkezteko. Aizkibel figura berezia izan omen zen euskal historian. Atzerriko ibilaldiei etekina ateratzen jakin zuen gizona. Maurice Harrieten adiskidea, eta, euskalari ofiziala, nolabait, eta bakarra, hegoaldean garai hartan. Hizlariak Aizkibelen bibliografi lana azpimarratu du, zirriborro modukoa, erdi egunkari, erdi bibliografia. Nolanahi ere, liburuzale handia, hangoak eta hemengoak biltzen saiatu zena.

Azkenik, Juan Ignazio Urija jaunaren txanda etorri da. Aizkibelen joan-etorriak gogoratu nahi izan ditu. Haren bizitzako sintesi antzeko bat eskaini du, izan zituen era guztietako hartuemanak mahai gainean jarritz. Mezu handi bat duen gizona omen da Aizkibel: gure kultura hizkuntzaren gainean eraikitzen dela, alegia.

Amaitzeko, Ikastolako Bertso Eskolako kideek Iparragirrek Aizkibeli egindako bertsoak kantatu dituzte, biolinez lagunduta.

Gero alkate andreak Aizkibelen mendeurrena irekitzat eman du. Horrela, arratsaldeko zazpiak eta hogeian amaitu da gaurko batzar irekia.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Bilbon, 1998ko apirilaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
F. Krutwig,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
A. Urrutia eta  
L. Villasante  
euskaltzainak  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Bilbon, Euskaltzaindiaren Egoitzan, 1998ko apirilaren 24an, goizeko hamar-  
rrak eta laurdenetan, eman zaio hasiera  
Euskaltzaindiaren hileroko batzarrari. Ez-  
kerreko zutabea jasotzen dira bildu di-  
ren euskaltzainen izenak. Ezin etorria  
adierazi du J. M. Satrustegi jaunak.

### *Euskaltzainburuaren hitzak*

Iragarritako gaitan sartu aurretik euskal-  
tzainburuak zorionak eman dizkio J. San  
Martini agertu berri dituen bi liburuengatik: *Giro gori* eta *Euskararen ostar-  
teak*.

Zorionak eman dizkio, halaber, H. Knörr  
jaunari Arabako euskarari buruz argitara  
berri dituen bi liburuengatik. Bata, K.  
Zuazorekin batera kaleratua (*Arabako  
euskararen lekukoak: ikerketak eta tes-  
tuak*) eta bestea, *Arabako euskarari bu-  
ruz jakin behar dena*.

Zorionak eman nahi izan dizkio, azkenik,  
E. Larreri ere Sarako biltzarrean jaso be-  
rri duen sariagatik.

### *Aktak onartzea.*

Aurreko hileko bi bileren aktei inork ez die oharrik egin eta dauden daudenean onartu dira.

#### *1. Euskaltzain ohorezko berrien izendapen-proposamena onartzea.*

Aurreko bileran aurkeztu zen zerrenda oso-osorik ontzat eman da. J. Berrojalbizen kasuan, onarpena eskatzekotan gelditu zen Euskaltzaindia. Onartu du eta, beraz, ze-  
rrenda osoari eman dio baiezkua Euskaltzaindiak (ikus eranskina).

#### *2. Hizkuntza arauak.*

##### *2.1. Gramatikako "Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma" aurkeztea.*

P. Goenagak egin du arau-gai honen aurkezpena. Gai honetan adostasun handi xa-  
marra badago ere, Euskaltzaindiak zehazki ezer gutxi esan duela gogoratu du aurkezleak  
eta komeni dela zerbait kaleratzea kontu honetaz. A. Urrutia jaunak adizki zerrenda bat  
eranstea proposatu du. Nolanahi ere, idatzizko oharrak egiteko epea, beti bezala, hilaren  
20a artekoa dela gogorarazi zaie euskaltzainei.

Hurrengo bileran eztabaidatuko da eta, hala badagokio, onartuko.

## 2.2. Kontsumitu-lan zerrenda onartzea amaitu.

Zerrenda honetan eztabaidarako utzi ziren hitzak hartu dira aztergai.

*Korregidore / korrejidore* izan da lehenbizikoa. Hitz berezia da, Espainia aldeko tradiziokoa. I. Sarasolak dio ahoskerari eman beharko litzaiokeela lehenetasuna eta, horrenbestez, *korrejidore* proposatzen du. H. Knörrek <g> grafia egokiagoztat jotzen du. Eztabaida luzearen ondoren eta zenbait kontsulta egin eta gero, <j> grafia hobetsi da.

*Kotxe* hitzari sarrera eman ala ez eztabaidatu da ondoren. Badirudi haurrentzat erabiltzen dena edo trenetakoa aipatzeko egokia izan litekeela hitz hau. Peillenek galdetu du ea zer egin zen duela hiru urte trenei buruz egin zen hiztegi hartan. Ez zela sartu erantzun zaio. Hemen ere eztabaida luzea izan da. Azkenean, hau izan da onartu dena: kotxe: 1\* e. automobil, ...; 2. trenetakoa eta zalgurdi, bagoi eta abarren kidea (hemen erredakzio arazoak dira); 3. Heg. haurrak eramatekoa.

*Kualitate / kalitate* auziaz izan da hurrengo eztabaida. Azkenean batzordeak *kalitate* ezabatzea proposatzen du. X. Kintanak e.-ren ordez h. ezartzea eskatzen du. Azkenean batzordearen proposamena bozkatu da: hamabi boto izan dira alde. Beraz, honela gelditu da sarrera: *kualitate\** e. nolakotasun.

*Kubo* sarrera dela eta, eztabaidatu ondoren, honako hau onartu da: 1. Geom.; 2. *zortzi metro kubo*. Hirugarren adiera ('ontzia' alegia) bigarren itzulirako utzi da.

*Kuia txiki = kalabazin* sarreraz, lehenbizi *kuiatxiki*, dena batera idatzia ematea proposatu da. Honen ondoan, *kalabazin* hitza ere sartuko litzateke. Baina azkenean hurrengo bileran argitzekotan utzi da.

*Laborategi / laboratorio*. *Laborategi* batez ere 1969tik hona erabili omen da. Eztabaida luzea izan da. Batzordeak ez du proposamenik eta botoetara eramán da. *Laborategi* formaren alde, 9 boto; *laboratorio* formaren alde, 6 boto. Beraz, *laborategi* hitza onartu da.

### 2.2.2. Hiztegi Batuko lanabes - lekoa zerrenda onartzea.

X. Kintanak, H. Knörrek eta A. Urrutiak egin dizkiote oharrak zerrenda honi.

X. Kintanaren lehenbiziko oharra (*langilego*-ri buruzkoa) ontzat eman da. Zerrenda berrian jaso dago jadanik ohar hori.

*Lata*-ri buruzko eztabaida etorri da ondoren. Kontserbekin zerikusia duen zer hori jasotzea onartu da. B. Oihartzabalen ohar baten ondoren, adiera hori honela jasoko da: 2. Heg. kontserba ontzi mota bat.

*Latin* hitzaren ondoan *latindar* ere sartzea eskatzen du Kintanak. Horrelako hitzak hurrengo itzulirako egokiak direla uste du batzordeak. Hala onartu dute euskaltzainek ere.

*Laurleko* hitzari izarfioa ezartzeari ez deritza batzordeak zuzen. Gutxi erabilia izatea ez da aski arrazoin hitz bat \* gisa markatzeko. Horrenbestez, bere horretan utzi da.

*Lekaide / lekaine* gaitzestea eskatzen du ohargileak. Hauen ordez, *fraide* eta *moja* eranstea eskatzen du. Hitz hauek Iparraldean ezezagunak badira ere, Hegoaldean, XX. mendeko testuetan erabiliak izan dira. Ordaintzat proposatzen direnak ere egiazko ordain zuzenak ez lirateke izango. Horrenbestez, batzordeak bereari eusten dio. Botoetara jo da eta batzordearen aldekoak hamabi izan dira. Beraz, zerrendan dauden bezala agertuko dira hitzok.

Gauza bera gertatu da *lekaro* hitzarekin ere. Botoetara eraman da. Hamalau atara dira batzordearen proposamenaren alde. Beraz, dagoen bezala utziko da.

Ondoren, H. Knörren oharrak jarri dira mahai gainean.

*Langabetu* sartzeta eta *e. langabe* gehitzea proposatzen zuen oharra erretiratu egin du ohargileak berak.

*Langabezia*-ri buruzko eskaria ez da onartu.

*Lano*-ri dagokiona bere garaian erabaki zen.

*Lantegi* sarreran jadanik oharra jasoa ageri da. Hala ere, eztabaidan zehar bigarren adiera bat gehitzea onartu da: 2. egitekoa, lana, beharlekua. *Lantegi ederra hartu dik.*

*Larregi* hitzari ere Bizk. oharra eranstea onartu da.

*Larrua jo* sarrerak marka behar luke, ohargilearen iritziz. Azkenean proposamen hau onartu da: larrua jo, 1. larrua landu; 2. Lgrt. sexu harremanak izan.

*Laskitu*-ri buruzko oharra ez da ontzat eman. Dagoen dagoenean utzi da sarrera.

*Laster*: izen kategoriakoa dela esatearekin aski da, batzordearen ustez. Hala ere, izenondo gisa, honako adibide hau gehituko zaio: *lan lasterra*.

*Lautada* hitzak ekarri du hurrengo eztabaida luzea. Ohargileak ez du gehiegi maite hitz hori. Azkenean botoek erabaki dute auzia. Sarasolak honako proposamen hau bozkatzea proposatu du: lautada, geogr. h. ordoki. Proposamen honen alde agertu dira ha maika euskaltzain. Bost boto, berriz, gauzak dauden daudenetan uztearen alde. Beraz, aldaketa hori ezarriko zaio zerrendari.

*Lehendakari* hitzaren esparrua murriztea proposatzen du Knörrek. Dagoen bezala uztea erabaki da.

*Legenagusi* dela eta, lege sarreran, lege nagusi azpisarrera sartuko da.

A. Urrutiaren oharrak etorri dira ondoren.

*Landar, langin, latindar, laumaraiko, lauzatu* eta *lauziriko* hitzak hurrengo itzulirako uztea proposatu eta onartu da.

*Lañotasun* hitzari leku egitea onartu da.

*Lapran* hitza dela eta, *lapranean* izango litzateke sartu beharrekoa. Ohar honekin sartzeta onartu da: **Lapranean**, Bizk. zeharka, *lapranean inausi*.

*Latifundio* sartzeta onartu da.

*Lauzka, lauzkatu* bikotearen adiera eskatzen du ohargileak. Eztabaidan zehar era guztiak oztupoak atera dira. Azkenean, honako gehiketa hau egitea onartu da: 'la-gundu, indartu'.

*Legamiatu* sartzea onartu da: **Legamiatu**, orea altxatu.

Azkenik, eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira.

*Landa*: eztabaida luzearen ondoren, bi adiera hauek jasotzea onartu da: 1. Lantzeko on den lur-eremua, alorra; 2. Hiriguneari kontrajartzen zaion eremua, batez ere hitz el-kartuetan.

*Lanpara* hitza dagoen bezala uztea erabaki da.

*Lastimoso* sarrera ezabatu egingo da.

*Leiar* sarrera dagoen bezala uztea onartu da, Opt. oharra erantsita, hala ere.

Honenbestez, *lanabes* - *lekoa* zerrenda onarturik geratu da. 3. *Eskuartekoak*.

### 3.1. *Madrileko Hezkuntza eta Kultura Ministerioko literatur sariketarako epaima-haikideak.*

*Premio Nacional de las Letras Españolas* delakorako euskaltzain oso bat joateko ohitura ezarria dago. X. Kintana jauna izendatzea onartu da.

Gainerako sarietarako honako proposamen hauek onartu dira: Poesiarako, Jon Kortazar; narratibarako, Ana Toledo; saiakerarako, Patri Urkizu; antzerkirako, A. Eguzkitza; haur eta gazte literaturarako, Pakita Arregi, eta itzulpengintzarako, X. Mendiguren Bereziartu.

### 3.2. *A. Abbadieren erretratua.*

Euskaltzainburuak euskaltzainei jakinarazi die Eusko Jaurlaritzak V. Ametzoy pin-toreak egin berri duen Abbadieren erretratua Euskaltzaindiaren esku uztea erabaki duela, artistak hala eskaturik. Arratsaldeko bilkuran jarriko da agerian arte lan hori.

### 3.3. *Barañaingo epaia.*

Aspalditik datorren arazo honetan azkenean Epaimehai gorenak arrazoi eman die Barañaingo udalari eta Nafarroako Gobernuari. Euskaltzaindiak ere aldeko jarrera erakutsi zuen bere garaian. Hau dela eta, H. Knörrek proposatu du prentsarako ohar bat egitea eta zabaltzea.

J. San Martinen arabera, Euskaltzaindiak salatu egin behar du egiten diren oharren aurrean egunkariak duten jarrera. Behin eta berrero, gure oharrak murrizturik ageri omen dira eta, bereziki, Euskaltzaindia errege dekretu baten bidez onartua izan zelako kontua mozturik eman zutela bere garaian, Barañaingo auzi hau dela eta egindako oharrean. Euskaltzaindia erdian aurkitzen da eta egoera honetaz baliatu behar du. Euskaltzaindiak zer nolako eginkizuna duen eta zer den argiro azaldu beharko litzatekeela dio. Gutxienez, aktan ezarria geldidatzen da.

3.4. Azkenik, Haritschelhar jaunak euskaltzain eta batzordekide guztiak jasoko duen dieta ordainketei buruzko gutuna irakurri du. Kontua da, hemendik aurrera aldika

aldika egingo direla ordainketak. Ez da itxarongo, orain arte bezala, batzorde guztien agiriak eskuetan izan arte. Garaiz kobratu nahi bada, egindako batzarren berri ere garaiz eman beharra azpimarratu da.

Eta, 14: 25etan amaitutzat eman da goizeko bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Eranskina

### EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRIEN PROPOSAMENA

Arautegiaren 39. artikulua arabera eta otsaileko osoko bilkuran erabakitakoari jarraituz, ondoren zerrendatzen diren euskaltzain urgazleak, ohorezko euskaltzain izendatzeko proposamena aurkezten du Zuzendaritzak:

Jesus Atxa Agirre, Julene Berrojalbiz eta Karmele Esnal Zulaika. Irakasleak, Nafarroan, Bizkaian, Iparraldean eta Gipuzkoan, euskal irakaskuntza arloan, Zuzendaritzaren "ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak". Ikastola munduan sortzaile, bultzatzaile eta irakasle izanak. Zertzelada gehiago nahi izanik erraz gara daitezke.

Marie-Jeanne Minaberri. Asko idatzi du, haurrentzako liburuak, batez ere. Ipuinak sortzeaz gain, beste anitz itzuli ditu. Bestelako ikas materiala ontzen lagundu du ("Haize Garbia"-rekin eta beste).

Jaime Kerexeta Gallastegi, Xabier Gereño Arrarte eta Karmelo Etxenagusia Uribe. Hirurok euskal idazle, euskal liburu askoren egile eta itzultzaile, ikustea baino ez dago batez ere lehenengoaren eta bigarrenaren liburuki zerrenda. Lehenengoa eta hirugarrena, elizgizon legez "euskarari mesede bikainak egindako lagunak" ditugu, Biblia eta liturgia testuetan euskarak bere lekua izateko sortzaile, bultzatzaile eta maisu izan baitira. Bigarrena, ordea, euskal kulturaren bultzatzaile azpertzaitzenetarikoa izanik hau ere "euskarari mesede bikainak egindakoa". Besteak beste, berak sortu zituen, Xabier Peña irakasle jarriarik, duela 50 urte, gerra osteko lehen euskara ikasteko klaseak Bilbon. Eranskin gisa zertzelada gehiago eman daitezke.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Eugenio Agirretxe Azpillaga. Bi hauek euskaltzain urgazle bezala zaharrenak ditugu. Horrez gain, lehena, idazle eta nobelagile trebea; bigarrena, azken belaunaldietako euskal predikaririk bikainenetarikoa, idazle eta irakaslea. Biok urte askotan "euskarari mesede bikainak egindakoak", merzei dute, aurreko bi lerroetakoek bezalaxe, Zuzendaritzaren ustetan, Euskaltzaindiak, ohorezko akademikotasun maila ematea.

Euskaltzain urgazle horiez gain, **William Anthony Douglas** proposatzen da ohorezkoen mailarako. Douglas jaunak Renoko "Basque Studies Program" izeneko Saila sortu zuen Nevadako Unibertsitatean. Gainera, liburu eta artikulu askoren egile dugu (*Death in Murelaga*, 1970, eta *Amerikanuak*, 1975, tartean).

Azkoitian, 1998eko martxoaren 27an

\* \* \*

### **Bilbon, 1998ko apirilaren 24an Ageriko batzarra**

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren Egoitzan, 1998ko apirilaren 27an, arratsaldeko Setan, hasi da batzar irekia.

Honako jaun-andre hauek bildu dira:

Euskaltzain osoak: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, F. Krutwig, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, A. Urrutia eta L. Villasante.

Euskaltzain ohorezkoak: E. Agirretxe, J. Atxa, K. Esnal, K. Etxenagusia, X. Ge-reño, eta J. A. Loidi. J. Berrojalbizen ordeez, Isabel Andía, haren alaba.

Euskaltzain urgazleak: P. Arregi, R. Badiola, A. Eguzkitza, M. Gorrotxategi, J. L. Lizundia, A. Muniategi, K. Rotaetxe, M. M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren eta J. J. Zearreta.

Mahaiburua Zuzendaritzak osatu du J. Haritschelhar jaunaren lehendakaritzapean.

#### *1. Goizeko bileraren berri.*

Lehenbizi, P. Goenaga idazkariak goizeko bilkuraren berri eman du. Alde batetik hiztegi batuari dagozkion erabakiak aipatuz eta ondoren euskaltzain ohorezko berriak onartzeko erabakiaren berri emanaz. Hauek dira izendatu berriak: Jesus Atxa Agirre; Julene Berrojalbiz Berrojalbiz; William Anthony Douglas; Karmele Esnal Zulaika; Marie-Jeanne Minaberri; Jaime Kerexeta Gallastegi; Xabier Gereño Arrarte; Karmelo Etxenagusia Uribe; Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Eugenio Agirretxe Azpillaga jaun-andreak.

#### *2. Hilberri txostenak.*

J. M. Satrustegik Jose Maria Azpiroz jaunaren omenez idatzitako hilberri txostena irakurri du idazkariak. Txostenean, haren apaiz eta euskaltzale alderdiak azpimarratu dira.



Abel Muniategi jaunak irakurri du ondoren Jesus Oleagaren hilberri txostena. Hemen ere hilaren lana eta nortasuna jarri nahi izan dira agerian: legegizona alde batetik eta euskaltzalea bestetik.

Azkenik, J. San Martinek irakurri du joan den urte amaieran zendu zen Karlos Santamaria euskaltzain ohorezkoaren omenezko txostena. Gizon irekia, kezkatua eta pres-tua. Zientziaz, filosofiaz, euskalgintzaz, hezkuntzaz eta abarrez kezkatua.

### *3. Euskaltzain ohorezko izendatu berrien aldarrikapena.*

Goizean onartuak izan diren euskaltzain ohorezko berriei banan-banan dei egin die ondoren euskaltzainburuak bakoitzari bere diploma emateko. Kerexeta jauna azken orduko ondoez baten erruz, ezin izan da etorri diploma jasotzera. J. Berrojalbizen izenean alabak jaso du. Minaberri andreari, berriz, Baionan egingo den ekitaldian emango zaiola adierazi du euskaltzainburuak. Douglas jauna ere ez da izan bileran.

Euskaltzainburuak zorionak eman dizkie izendatu berri guztiei. Hauek, berriz, izen-dapena eskertu dute, jendaurrean, hitz labur batzuekin.

### *4. A. d'Abbadieren erretratua Euskaltzaindiaren esku lagatzea.*

Azkenik, V. Ameztoty pintoreak Eusko Jauriaritzaren aginduz egindako A. d'Abbadieren erretratua Euskaltzaindiaren eskuetan uzteko hitzarmena gauzatu da. Lehen-bizi, M. Karmen Garmendia, Kultura sailburuak, Gobernuak hartutako erabakiaren berri eman du eta obra hori Euskaltzaindiaren esku uztearen arrazoiak azaldu.

Euskaltzainburuak 1997an egindako Biltzarra aipatu du, Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren artean eratua. Aktak aurtan agertuko direla esan du eta hori dela d'Abbadieren omenez Euskaltzaindiak ekarri duena. Eskerrak eman dizkio Kultura sailburuari.

Ondoren koadroa agerian jarri da eta Haritschelhar jaunak erretratuan biltzen diren sinboloen eta irudien esanahia argitzen saiatu da jendaurrean.

Eta honenbestez, arratsaldeko seiak eta erdietan amaitutzat eman da arratsaldeko bilkura irekia.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Baionan, 1998ko maiatzaren 29an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin  
eta I. Sarasola  
euskaltzainak  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,  
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea, M.  
Lourdes Oñederra  
eta Pilartxo Etxeberria, Ahoskera batzor-  
deko kideak (1. gaian)  
eta Rikardo Badiola, argitalpen eragilea  
(3. gaian).

Baionan, Thiers kaleko Euskaltzaindiaren  
Ordezkaritza berrian, 1998ko maiatzaren  
29an, goizeko hamarrak eta laurdenetan,  
eman dio hasiera Euskaltzaindiak hilero-  
ko batzarrari. Ezkerreko zutabea jaso-  
tzen dira bildu diren euskaltzainen ize-  
nak. Ezin etorria adierazi dute F.  
Krutwigek, P. Salaburuk, A. Urrutiak eta  
L. Villasantek.

### *Aurreko bilera agiriak onartzea.*

J. San Martin jaunak 3.3 puntuari ohartxo  
bat egin dio: Euskaltzaindia ez zen errege  
dekretuz sortu. Errege dekretuz Euskal-  
tzaindiaren Errege Akademia izaera onar-  
tu zen.

Beste oharrik gabe, ontzat eman dira au-  
rreko hileko bi agiriak.

### *Euskaltzainburuaren hitzak.*

Eguneko aztergaietan bete-betean sartu  
orduko, mahaiburuak zorionak eman nahi  
izan dizkio B. Oihartzabal jaunari *Le  
Monde* egunkarian argitara berri duen  
artikuluagatik.

Bestalde, Federiko Krutwigek istripu bat izan duela eta erietxean dela aiderazi du  
euskaltzainburuak. Lehenbaitlehen osatzea opa dio.

### *1.1. Ahoskera lantaldeko "Ahoskera batuaz" txosten osatua aurkeztea.*

Txostena aurkez dezaten, hitza eman zaie Lourdes Oñederra eta Pilartxo Etxeberria  
andreei. Lourdes Oñederrak esan du ezer gutxi duela lehengoari gehitzeko. Berriz ere  
azpimarratu nahi izan du ez dutela nahi izan hizkuntza berri bat asmatu. Hizkuntzaren  
aldagarritasuna kontuan hartu behar dela. Horregatik, batzuetan eredu bikoitza propo-  
satzen da.

Peillen jaunak gogorarazi du ongi hitz egiten dutenek ere jendearen izenak ema-  
terakoan, zenbaitetan, erdal ereduari jarraitzen diotela eta honetaz zerbait esan beharko  
litzatekeela. Kontu hori geroagoko txosten bat izan litekeela erantzun dio L. Oñederrak.

Beste zenbait ohar orokor ere egin dira. Nolanahi ere, aurkeztutako txostenari ohar-  
rak egiteko epea, beti bezala, hilaren 20a artekoa izango da.

Ondoren, egin nahi diren ahoskera jardunaldietarako batzorde akademikoa nola osa  
eztabaidan jarri da. Oñederra andreak jardunaldiok nola joango diren azaldu du: hiz-  
lariak, gaiak, mintegiak etab. Horren arabera, badirudi ez dela aukera handirik izango  
partehartzaileen txostenetarako. Horrenbestez, batzorderik ere ez da beharko, segurutik.

Nolanahi ere, batzorde horretako buru Beñat Oihartzabal izendatzea erabaki da, badaezpada.

Miren Azkarate andreak galdetu du ea Jagon sailak zerbait egin behar duen jardunaldiotan. Hasieran zerbait egitekotan omen ziren. Nolanahi ere, ezer ez denez pentsatu horretaz, Jagonekikoak beste batean izango dira.

### 1.2. “Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma” onartzea.

Araugai hau aurreko batzarrean banatu zitzairen euskaltzainei. J. L. Davant jaunak zenbait ohar aurkeztu ditu: 2.e puntuan, *heldu da*-ri ematen zaion balioa zehaztu beharra dago, zubereraz *heldü da* ‘etorri da’ baita. Zehaztasun hau onartu da. Bestalde, 3.b eta c puntuetan esaten dena ere osatu beharra ikusten da. Ekialdeko euskaretan -eta ez zubereraz bakarrik- kontsonante ondotik -EN ageri da erabat. Beste kasuetan, -EN eta -KO biak erabiltzen dira, nahiz eta -KO nagusituz doan.

Kontu hauek arauaren testuan jasoko dira eta behar bezala emango argitara.

#### 1.3.1. Aurreko zerrendako kalabazin eta kuitxiki hitzak onartzea.

Bi hitz hauek zintzilik utziak izan ziren aurreko batzarrean. Batzordearen informazioaren arabera, badirudi Iparraldean *kuiatto* ere ageri dela. Horrenbestez, *kuiatxo* jaso beharko litzatekeela uste du batzordeak. Hala onartu da. Beraz, *kuiatxiki* zerrendatik ezabatu egingo litzateke. *Kalabazin*-en sarreran, berriz, *Heg. h. kuiatxo* ezarriko litzateke. Horrela onartu da.

#### 1.3.2. Lekora-lozorro zerrenda onartzea.

Lehenbizi, X. Kintana jaunaren oharra hartu dira aztergai.

*Lengoaia* hitza zerrendan datorren bezala ez du maite ohargileak. Hitz hori euskal hitza dela, eta ez dela baztertzeko arrazoirik. Dena den, eztabaidan parte hartu duten guztientzat nolabait markatua da hitz hori. B. Oihartzabalentzat zaharkitua da eta horrela markatzea eskatzen du. Horrela onartu da. Horrenbestez, *Zah. h. mintzaira, hizkuntza* oharra erantsiko zaio sarrera horri.

*Lorezain / lorazain; lorezaintza / lorazaintza* eztabaida ekarri du ohargileak. Hiztegietan *lora-* omen da forma nagusia. Erantzun zaio literaturan gehien erabili den forma *baratzezain* dela. Auzitan dagoen hitzak ez du, antza, tradizio handiegirik. Gauza aski argi dagoelakoan botoetara jo da. Hona emaitza: hamalau boto batzordearen proposamenaren alde. Horrenbestez, zerrenda aldatu gabe utzi da.

*Lore(-)ontzi* hitzarekin ere eztabaida txiki bat izan da. Zerrendan jaso datorrena da forma nagusia. Botoetara eraman da auzia: hamabost agertu dira batzordearen proposamenaren alde. Beraz, Kintana jaunaren oharra ez da onartu.

*Loria* hitza ohargileak dio ez dela Ipar. soilik. Hegoaldean ere erabiltzen da. Onartu da oharra. Honela emango da sarrera hori: 1. ‘aintza’; 2. Ipar. ‘poza’

*Lorin* hitzaren adiera emateko zailtasunak daude. Hiztegian begiratu da kontua eta egoki diren adibideak emango dira.

*Lotinant* hitzarendako batuzko ordaina eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

*Loto* hitzaren sarreran ematen den latin deiturarekin ez dator bat X. Kintana: *Nymphaea lotus* ez, *Nelumbo nucifera* behar omen du. Batzordeak UZEIra galde egitea proposatzen du. Kontsulta egin da baina UZEI-koen iritzia ere ez dator ohargilearen iritziarekin bat. Horretan utzi da, beraz, kontua.

Ondoren, H. Knörren oharrak hartu dira eztabaidagai.

*Lekuizen* sartzeta onartu da, *Leku*-ren azpisarrera gisa.

*Lelantoni* bigarren itzulirako utzi da.

*Lemamia* sarrera gehituko zaio zerrendari: Lemamia\* e. legamia.

*Leotz*-i buruzko oharra dela eta, sarrera hau bigarren itzulirako uztea proposatu eta onartu da.

*Letxe* eta *lez*-i Lgrt. oharra gehitzeko eskaria ez da ontzat hartu.

*Lezoi* sarreran hobesten den *pezoi* hitza baino egokiagoztat dauka ohargileak *pezoin*. Ez da onartu forma hau sartzeta. Ez da onartu *litxarero* sarreran Lgrt. oharra ezartzeta ere.

*Lo arin*, *lo astun*, *lo erre*, *lo zakar* hitzak sartzeta ez da onartu. Bigarren itzulirako izango lirateke, izatekotan. *Lor* sarrera ere bere horretan uztea erabaki da, ohargileak nahi dituen eranskinak gabe.

*Lotsabako* hitzari Bizk. oharra erantsiko zaio. *Lotune* hitzari adibide bat eranstea eskatzen da. Ahal bada, jarriko zaio.

Ondoren, A. Urrutia jaunak bidalitako oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

*Lekoratu* hitza sartzeko eskaria ez da onartu. Gehienez ere, bigarren itzulirako utzi da.

*Lekualdaketa* hitza sartzeta bidezkoztat jo da.

*Lelotu*-ren bi adierak, 'ergeldu' eta 'goraipatu' bereiztea eskatzen du ohargileak. Zerrenda dagoen bezala uztea onartu da, inongo adierarik eman gabe.

*Lera* hitzaren bigarren adiera, 'grina', bizkaierazkoa omen da eta hala adieraztea eskatzen du Urrutia jaunak. Onartu da. Beraz, Bizk. oharra erantsiko zaio.

*Lerroalde* hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Lesbianismo* hitzari sarrera ematea onartu da. Ondoren, *lesbiana* ala *lesbiano* sartu behar den eztabaidatu da. Argi gehiagoren faltan, hurrengo itzulirako utzi da hitz hori sartu behar ote den erabakitzea. Izan ere, euskal gramatikak eskatuko lukeena *lesbiano* forma izango litzateke, baina hau, zenbait euskaltzainen ustez gogortxo gertatuko litzateke.

*Lesio* / *lesionatu* arazoak ere eztabaida luzea ekarri du. Azkenean, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Letania* hitzaren parean *letaria* ere sartzeta onartu da, lehenbizikoa hobetsiz. Hots: Letaria, h. letania.

*Leukozito* sartzea onartu da. *Libido* hitza ere bai. *Liberalizatu*, berriz, bigarren itzulirako utzi da.

*Likidatu* / *likidazio* hitzak sartzea ez da onartu. Izatekotan, bigarren itzulirako.

*Likore* hitzak ere ekarri du eztabaida. Bigarren itzulirako utzi da, azkenean.

Ohargileak *lizentziatura* hitzari ere leku egitea eskatzen du. Batzarraren ustez, *lizentzia* aski da. Horrenbestez, Urrutia jaunaren eskaria ez da onartu.

*Loezin* eta *logabe* hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Logreria* eta *logreru* hitzak sartzea ez da onartu. Ez eta *lotaldi* hitza ere.

*Lokomozio* / *lokomotor* hitzak hurrengo itzulirako uztea bidezko ikusi du batzarrak.

Ondoren, eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira.

*Letradu* hitzari bere lekua aitortzen zaio, Hegoaldeko hitz gisa. Horrenbestez, zerrendan datorren bezala uztea erabaki da.

Gero, *lino* / *liho* auzia argitzen saiatu dira euskaltzainak. *Liho* forma hobetsi da. Horrenbestez, honela emango dira dagozkien sarrerak: *liho* *linum* sp. eta *lino*\* e. *liho*. Baina *linazi* hobetsi da. Beraz, *lihazi*\* e. *linazi*, zerrendan datorren bezala. *Lihoazi* sarrera, berriz, ezabatu egingo da.

*Lirio*-ren sarrera, zerrendan datorren bezala, zalantzan jarri du Kintana jaunak. Horrenbestez, zuhurragotzat jo da Hegoaldeko forma dela esatea soil-soilik.

Eztabaidarako utzitako beste hautua *loeri* / *loeria* zen. Dirudenez, *loeria* forma ageri da nagusi. Bestalde, bi adiera dituela esan da: 1. logalea, logura; 2. gaitz bat. Hala ere, ez da hauturik egin. Txosten berezi bat egingo da hurrengorako *-eria* amaiera duten hitz guztiez. Horren arabera hartuko da erabakia.

*Lore(-)jorraz* eta *loezil* hitzei buruz hitz egin da azkenik. Horrela ematea onartu da, zerrendan lehenbizikoak eskas duen parentesia ezarririk: *lore(-)jorraz*.

Honenbestez, onartutzat eman da *lekora* - *lozorro* zerrenda.

### 1.3.3. *Lubaki* - *makina* zerrenda onartzea.

Zerrenda honi buruz Davant jaunak egindako oharrak eztabaidatu dira lehenbizi.

*Mainu-etxe* hitzak sartu beharko ote lukeen galdetzen du, nahiz eta, *bainu* hitza hobesten denez, horren ondorioz argituko litzatekeen auzia. *Mainutegi* eta *mainagia* hitzei ere sarrera ematea ez da onartu.

Ondoren, X. Kintanaren oharrak jarri dira mahai gainean.

*Lurra* sarreran argigarri gisa adibideren bat ezartzea eskatzen du Kintanak. Ontzat eman da. Honela emango da adibide hori: *Gure planeta Lurra da*.

*Lurkapa*-ren sarrera honela aldatzea onartu da: *Lurkapa*\* e. (lur) geruza.

*Magisteritza* sarrerari buruzko oharra ere onartu da. Honela agertuko da delako sarrera hori: *Magisteritza*\* 1. e. irakasle(-)ikasketak: \**magisteritza ikasi zuen, e. irakasle ikasketak egin zituen*. 2. *magisteritza(-)eskola*\*, e. irakasle(-)eskola.

*Mailadi* sarreran, parean *mailak* ere sartzea onartu da.

*Majo* hitzari buruzko oharra ez da onartu. Zerrendan ageri den *majo* hori aditzondoa da, ez izenondoa.

*Makarroi*-ren adierak ematea ez da onartu. Bere horretan utzi da, horrenbestez, sarrera hori.

*Makina-erreminta*-ri buruzko eztabaida ere luze joan da. Botoetara jo da. Hamabost euskaltzain agertu dira forma hori gaitzetsi beharrean Hegoaldekotzat ematearen alde, ordaintzat *makina-lanabes* barik, *makina-tresna* emanaz. Beraz, honela joango da sarrera hori: makina-erreminta Heg. h. makina-tresna.

Ondoren, H. Knörr jaunaren oharrak eztabaidatzeari ekin dio batzarrak.

Lehenbizi, bi ohar txo egiten ditu: batetik, "EZTABAIDA" hitza hain urruti ez jarzea eskatzen du. Bigarren, *ingurugiro* sarrera ez omen dago behar bezala jasoa. Beste zerbait onartu omen zen. Ez da kontuan hartu.

Zerrendari buruz, *ludi*-ren ondoan h. mundu ezartzeko eskaria ez da onartu.

*Luparia* bigarren itzulirako uztea proposatu da. *Lurbel / lurbeldu* ere bigarren itzulirako uztea erabaki da.

*Lursagar*-en ordez *lusagar* eskatzen du Knörr jaunak. Ohargileak eskatzen duen forma honek lekukotasunik ez duenez, zerrenda dagoen dagoenean uztea erabaki da.

*Madura* hitza sartzea onartu da. Batez ere Bizk. dela esango da, 'padura' esanahia duela.

*Magia* sarreran, aldamenean 'aztikeria' sartzea ez da onartu.

*Maiku*-k ez du lekukotasunik eta, horrenbestez, ez da onartu sartzea.

*Mailegatu*-ren ordez *mailebatu* hobestea ez da onartu. Lehenbizikoaren aldeko lekukoak ugariagoak dira.

*Mailukari* hitza sartzea ontzat eman da. Baina *mainada*, *maira* eta *maka* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

A. Urrutiaren oharrak hurrengo bileran eztabaidatzeko utzi dira.

## 2. Eskuartekoak.

Euskaltzainei 1998ko Euskaltzaindia-BBK Literatur sariketa deialdiaren berri eman zaie: Txomin Agirre, eleberrisaria, Toribio Alzaga, antzerkisaria, Felipe Arrese-Beitia, olerkisaria, eta Mikel Zarate, saio-saria. 1997an saritutako lanak argitaratu berri dira, bestalde, eta euskaltzainei ale bana eman zaie.

Eta honenbestez, arratsaldeko ordu bietan eman zaio amaiera goizeko bilkurari.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

## Baionan, 1998ko maiatzaren 29an Ageriko batzarra

Baionan, udal bibliotekan, 1998ko maiatzaren 29an, arratsaldeko 4etan, hasi da Euskaltzaindiak, Baionako ordezkari-tza berriaren inaugurazioa dela eta, antolatut duen batzar irekia. Bilduak honako jaun-andre hauek izan dira:

J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, eta P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, J. San Martin eta I. Sarasola, euskaltzain osoak eta P. Andiazabal, X. Arbelbide, R. Badiola, J. Camino, J. B. Dirassar, J. B. Etxarren, L. Etxezaharreta, M. Itzaina, B. Goiti, D. Landart, J. L. Lizundia, M. Pagola eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, eta M. J. Minaberri, euskaltzain ohorezko berria. Haue-zaz gainera, Michel Intxauspe, diputatu eta kontseilari orokorra eta kazetari eta entzule andana bat.

### *1. Goizeko bilkuraren berri.*

Lehendabizi, idazkariak goizeko bilkuraren berri eman du. Ondoren, euskaltzainburuak ekitaldira etortzerik izan ez dutenen zerrenda irakurri du.

### *2. Garcia Larratxe familiari eskerrak emanaz.*

Gero, J. Haritschelhar jaunak eskerrak eman dizkie Garcia Larratxe familiakoei datozen bi urteetarako Thiers kaleko etxea Euskaltzaindiari uzteagatik. Euskaraz eta frantsesez hitz egin du euskaltzainburuak. Esker-hitz hauen ondoren, Euskaltzaindiaren domina eta zenbait liburu oparitu dizkio.

### *3. Tomas Uthurri euskaltzain urgazlearen hilberri txostena.*

Ondoren, Pierre Andiazabal euskaltzain urgazleari eman zaio hitza Thomas Uthurry euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurtzeko. Apaiz eta irakasle zuberotar honen bizitza eta lanak gogoratu ditu hizlariak: Zuberoako gazteriaz arduratua, kontzilio aurretik liturgia testuen itzultzaile, langile porrokatua.

### *4. M. J. Minaberri, ohorezko euskaltzain berri.*

Joan den hileko batzarrean ohorezko izendatu zirenen artean zegoen Minaberri andrea ere. Euskaltzainburuak izendapenari dagokion diploma eman dio eta ohorezko berriak hitz labur batzuekin eskerrak itzuli nahi izan dizkio: “zerbaitek barnetik unkitzen naularik” -esan du- “mututurik gelditzen naiz. Orain ere, hala, mutu. Eskerrik asko”.

### *4. P. Larzabalen Oroitzapenak liburuki berriaren aurkezpena.*

Azkenik, Charritton jaunak prestatu berri duen Larzabalen obraren VII. liburukiaren aurkezpena egin da. Lehenbizi, J. L. Davantek hartu du hitza. Frantsesez lehenengo, euskaraz gero. Frantziako hizkuntza gutxituei buruz prestatu berri den txostena salatu du hizlariak. Txosten horren prestatzaile den Poignant jaunaren adierazpenak hartu ditu ahotan. Euskara bezalako hizkuntzak “pribatu” izatera kondenatzea eskandalagarria da. Hizkuntza pribatuak eskubideez pribatua esan nahi du.

Gero, aurkezten den liburuaren edukiaz mintzatu da.

Azkenik, P. Charritonek hartu du hitza. Liburukia azkena izateko asmoz jaio zen, baina agian ez omen da azkena izango. Berrikitan atxeman dituzte beste zenbait lan, antzerki eta artikulua.

Arratsaldeko bostetan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga



# **JASOTAKO TXOSTENAK**



**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA**



## EHHA-KO SOINUDUN ARTXIBOA: ESKATZEN DUEN JOKABIDE ETIKOA

1997-11-21

*Izaskun Etxebeste,  
EHHAko batzordekidea*

Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako material bilketa duela hamabi urte hasi zuen lantaldeak 1987. urtean eta azken grabaketak 1992.ean burutu ziren, jarduerarik sistematikoena hondarreko bost urteetan gauzatu bazen ere, lantaldea guztiz osatu zenean. Inkesta guztiak euren osotasunean 2400 zinta magnetikotan grabatu ziren 4500 ordu inguruko bilduma erateraino. Lekuan lekuko inkestak amaitzean, zinta hauek —oraintsu CD-ROMetara irauliak— bilakatu ziren gure oinarrizko lan-tresna EHHArako corpusa erdiestera. Orain, Azkue Bibliotekaren esku dago soinudun material horren guztiaren zainketa eta babesa, eta baita izan daitezkeen kontsulten kudeaketa ere.

Ez dagokio Batzorde honi gordailuzaintzaren nondik-norako praktikoak zuzentzea (1) baina bai grabaketa horiek kontsultan eman aurretik zenbait ohar funtsezko aldarrikatzea, *ez baitira Bibliotekako beste edozein liburu bezalakoak* eta kontsulta arau bereziak izatera derrigortzen dutela uste baitugu (2). Zinten egiazko edukia sakon-sakonean inkestagileok bakarrik ezagutzen dugu eta eza-gutza horretan oinarririk gure eskabidea arrazoitu eta egitasmotik kanpo den edonork erraz ulertzeko moduan azaltzea da txosten honen helburua.

Diogun bezala, grabaketen kontsultaren auzi honetan, edukiari buruzkoa da gure kezka nagusia: galdeketa gaien luze-zabaltasuna, ahozko jardunaren berariazko erlaxazioa, zenbait gai “labain”en tratamendua, oharkabean esanak... horiek guztiek gurutzatzen dituzte etengabe gure hitzorduak eta hori hala izaki, ez litzateke inoiz ahaztu behar azpimarratu nahi dugun lehen ideia nagusi eta garrantzizkoena: pertsonen jardunak daude hor, euren bizitzaz —eta inguruko eta herrikoenaz— gauza asko esaten dituztenak (batzuek besteak baino gehiago, noski) eta behin grabatu ostean, ez dugu inolako iragazkirik jarri ahal izan. Beraz, erraz ulertzen da zinta hauetara hurbiltzen den edonork jokabide

---

(1) Soinudun artxiboen kontserbazioan sortzen diren arazo tekniko eta juridikoak ez dira txosten honetan aztertzen.

(2) Ziurra da Bibliotekak idatzizko dokumentuen artean ere bereizketak egiten dituela eta ez dela berdin zaintzen erraz aurki daitezkeen aldizkari baten kontsulta eta adibidez, inkunable batena.

etiko batetik abiatuta egin behar duela bere egitekoa eta portaera horren zainketa eta bermea Bibliotekari dagokio, gure ustez.

Gure asmoa bi hitzetan azaldu ondoren, eta esaten duguna arrazoizkoa dela sinets dadin, zabalago oinarritu nahi dugu adierazitakoa.

## 1. BILKETA LANAREN INGURUAN JAKIN BEHARREKOAK

### 1.1. EHHA helburu

Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako grabatutako zintek ahozko euskara eta euskalkien lekukotasun zabala eta sistematikoa eskaintzen duten neurrian eta gorago azaldutako ordu kopuru eta hedaduraz osatuta daudenez, ez da zalantzarik, ondare baliozko eta estimagarria direla hizkuntza ezagutu eta ikertu nahi duen edonorentzat.

Jakin beharrekoa da, ordea, EHHako inkestagile taldea ez zela helburu horrekin abiatu, mikrofono bat pizten genuenean ez genuela buruan hizkuntz-ondarearen bilketa (ez horrela enuntziatuta behintzat), Hizkuntz Atlaseko proiektua baizik (3). Zehazkiago esateko, orduan proiektuaren helburu nagusizat ziren mapa linguistikoak genituen gogoan, eta beraien eraketa zuzenerako galdekizun luzearen bide estuak ibili behar genituen urratsez-urrats, gero mappek izango zuten hurrenkeran jauzi alaiegirik egin gabe.

Biltze lanetan aurrera joan ahala eta, zer esanik ez, datu-bilketa amaitu zenean, jabetu ginen eskuartean genuenaren balio handiaz. Esan nahi da, "ondare"aren ideia ez zela aprioristikoa, ez taldearentzat eta ez Euskaltzaindiarentzat (guri bestelakorik azaldu ez zitzaigun neurrian behintzat), eta galdekizunaren hezurretik kanpo zegoenak bigarren mailako garrantzia hartzen zuela inkestatan ari ginen bitartean. "A posteriori" ordea, transkribaketa garaian batik bat, jasotakoa berriz entzun eta mamitzean, begibistaraten zitzaizkigun gure fitxetan kapidarik ez zuten informazio albotaratuak, bai linguistikoak, bai beste kultura alorretakoak ere. Baina ordurako grabaketak eginak ziren, lantaldea ondorengo lan batzuetan murgilduta zegoen, eta ezin zen astirik galdu informazioa beste ardatz batzuen argitara berrantolatzen. Esanak esan eta joanak joan.

### 1.2. Inkestagintzaren ingurumariak: aurretiko baldintzak

Aurrean esandakoa hala izanik, EHHA helburu genuela aitortuz, zintak entzun nahi dituenak grabaketei buruz aurretik zenbait datu behar dituela uste dugu, bidean galduko ez bada.

---

(3) Ez gara izan beharko lukeenaz ari, hastapen hura benetan nola izan zen azaltzen baizik.

### 1.2.1. *Kanpoko baldintza: presa*

EHHArako inkesta guztiak denbora muga ahalik eta laburrenean egin behar ziren informazioa homogeneoa eta sinkronikoa izango bazen. Ezin genuen lana patxadaz hartu, monografia baterako hartzen den gisan, ez gai bakoitzearako lekukorik aukerakoena bilatzen (inkesta osoa lekuko bat edo birekin egin izan dugu gehienetan), ez grabaketa garaia nahi adina luzatzen. Inkesta garaian baldintza garrantzizko bat **presa** izan da. Herri bakoitzean emandako “media” 20 bat eguneko izango da, batzuetan gehixeago eta besteetan gutxixeago. Gure artean askotan erabilitako konparazioa izan da argazki batena: herri batera joan, ahalik eta “argazki” (hizkuntz argazki) txukunena atera eta alde egin dugula. Bat-bateko argazki baten ezaugarriak dituzte grabaketek.

Horretarako, aldez aurretik, lekukoa aukeratu behar genuen, ahal zela bakarra, bere borondatea geureganatu eta gero denbora horretan, galdekizuneko 3.000 galdera zehatzen ordainak jaso, lortutako konfiantza hori zapuztu gabe. Ez dugu, jira eta buelta, nahi adina astiz ibiltzerik izan. Horrek zintetan dagoena —eta, areago, ez dagoena— ulertzeko bidean jartzen du edonor.

### 1.2.2. *Grabaketa lana bera : magnetofonoa eta galdekizuna*

Inkesta guztiak grabatu egin behar zirenez, magnetofonoa bilakatzen zen lanerako ezinbesteko tresna: hala aurkeztu zitzaigun geroni eta hala aurkezten zitzaizen berriemaileei ere. Jakina da horrelako lanetan ibili den edonorentzat magnetofonoa ez dela oztopo nabarmena izaten haserako errezeloak gainditu ostean: haren presentzia erabat ahazten ez bada ere, bigarren mailako arazo bilakatzen da lekukoentzat, galdetzen zaienari txukun erantzun nahiak beste pentsamendu batzuetan murgilarazten baititu. Hori hala izanik bi ahotako “labana” suertatzen da bere jarduna jasoa izaten ari den horrentzat: mikroa aurrean duela konturatzen denetan erantzunak “edertzeko” joera har bailezake bere benetako mintzotik urrunduz, eta ohartzen ez denetan berriz, bere hitzak haizeak eramango balitu bezala lasai eta patxada osoz ari baitaiteke hizketan, bazkalosteko tertulia gozoan dagoela uste izanez. Eta azken joera honetaz jabetzea nahi genuke batik bat, zeren, gero gehiago zabalduko dugun bezala, grabaketak egin ziren bezalaxe, inolako ukitu edo konponketarik gabe artxibatu baitira, inkesta saio osoaren luze-zabalean.

Lekukoa —gure langai nagusia, hala esan badaiteke— hautatu eta grabaketa lanari ekiten genion, galdekizun luzea gidaritzat hartuta. Hori zen mahai gainean jartzen genuen bigarren lan tresna objektiboa. EHHAk mapak erakitze bidean eskatzen zitzaigun ia gauza bakarra zera zen horrenbestez: galdera horien erantzun zuzenak ziren hitzak mugagabean eta garbi ahoskatuta lortzea, beren esanahi ahalik eta zehatzenarekin. Eta inkesta moldea erabat baldintzatan du helburu nagusi horrek: galderak bata bestearen atzetik egiten dira, hiz-

ketaren jario naturala behin eta berriz etenaz, hitz desberdinen arteko ñabardurak ongi zehazteko eta eraberean beste herrietan bilduko zenarekin homologagarria izango zen informazioa jasotzeko. Azken puntu honek eskatzen zuen bildutako hitzak mugagabeen lortzea, horretarako guk galdetutakoari erantzun zuzena(k) ematea nahikoa ez balitz bezala, berriro galdera bereziak egin behar genizkion lekukoari, hitz hori testuinguru jakin batean jarraraziz.

Horrek guztiak ematen die gure inkestei *kolore* berezi bat, inkestak beste helburu batekin egin izan balira alda zitekeena, baina guk nahi genuen modu zehatzean informazioa grabatzeko ezin saihestuzkoa gertatu zitzaiguna.

### 1.3. Zinten benetako edukia: ez hitz hutsak

Ingurumariak aurkeztu ondoren, gatozen gure kezkaen mamira. Guztira 4500 ordu grabatu badira, begibistakoa da Atlasak aurretiaz eskatzen zituen helburuak arras gainditu direla eta ez direla hitz hutsak bere lehorrean erdietsi. Horien inguruan sortutako azalpenak eta gogoetak ere hor joan dira, hizketan ari zirenean ez baikenuen ia inoiz mikroa mozten. Denborak edo galdeketa atzerapenak larritzen ez gintuen bitartean, eta lekukoa emankorra bazen, lasai uzten genion bere azalpenetan, hizkuntz material osagarria suertatzen zelako guretzat eta garrantzia etnografiko edo kulturala ere bazuelako bere esanak. Gero, inkestak papereratzeko garaian josiko genituen guk adabakiak, pasako genuen galbahea, eta EHHArako balio zuena zegokion lekuan transkribatuko genuen, eta hortaz kanpokoa zintatan geratzen zen. Hau da, zintak, gure lana izango zenaren borradore gisan erabiltzen genituen: inkestetan papera erabili beharrean grabaketak erabiltzen genituenez, hauek gure zirriborroak ordezkatzuten zituzten eta gero txukundu eta antolatu gabe ez dira edozein moduz aurkeztekoak. Nolabait esateko, hor dagoen informazioa "brutoan" dago, leundu gabe, zizelkatzekoa.

Batetik brutoan eta bestetik, ondare izateko bokaziorik gabe osatua, lehen azaldu dugun bezala, atzetik elaboraketa baten beharrean geratzen dena. Eta mezu hori helarazten genien lekukoei ere, lehen egunetako etengabeko galderei erantzutean: zergatik, nola, eta, batez ere, lanean zertarako ari ginen galdetzen ziguten behin eta berriz. Bazekiten bere lana nolabait argitaratzekoa zela ("oi geo eskribitu ingo ez, ez?", "librua ingo ezue gero au denakin?" nahi adina esaldi horrelako dago zintetan zehar), baina esaten zuten guzia argitaragai zela inondik ere ez.

Nik uste ez dugula gezur handirik esaten gure lekukoek bere lana idurikatzean zerbait idatzia ikusten dutela esaten badugu: "librua noizko?" izaten da galdera oraindik ere inoiz topatzen ditugunean. Inguruko herriekiko hitzekin alderatuta agertuko lirakeen hitz-zerrendak idurikatzen dituztelakoan nago: Hernanin *ogiya* baina Elduainen *ogie*, Donostian *zan* baina Oiartzunen *zen*, hemen *ganbela* eta beste horretan *majera*. Horrelako zerbait.



Jakitun ziren, ikusten baitzuten, beti grabatzen ari ginela baina ohartzen ziren, aldi berean, guk luzatzen genien galderaren inguruan egiten genuela indar eta eginahal handiena, hitzen esanahi eta erreferenteak zehazten, eta mugagabea aterarazten. Ondoren suerta zitezkeen elkarrizketa edo bakarrizketak hitzaren esanahia zehazteko baliotik urruntzen ziren heinean traszendentziarik gabeko hitz hutsalak ziren, bere eta gure arteko kontuak: “oi gero kenduko ezu zuk”, “zuk gero moldatu nik esandakuak”. Ordu luzeetan grabatzen ari ginela, azkenerako ia gu ere magnetofonoa aurrean genuela batzuetan ahazten bazitzaigun, ez gara gai neurtzeko teknikarekiko beste harreman batzuk dituenak zenbatetaraino duen minutuero grabatzen ari zaionaren kontzientzia. Gertatu zaigu bakarren batek lazkeria handi xamarra bota duela irudituta eta “oi etzun ba onek (mikroak) jasoko noski” esatea ere, magnetofoiak termostato bereziren bat zuelakoan.

Horiek guztiak kontutan hartu behar ditu EHHArako grabatutako ordu guztien aurrean jartzen denak. Hor esaten diren gauza asko eta asko ez direla nahitara erdietsiak, konfiantza giro baten babesean topatuak baizik, eta hala izanik, askotan *material delikatu*a osatzen dutela (4).

## 2. JOKABIDE ETIKOA DATU-BILKETAN; ZENTZU ETIKOAREN ESKABIDEA DATUEN ERABILERAN

### 2.1. Jokabide etikoa datu-bilketan

EHHArako prestatutako galdekizuna ikusia duenak jakingo du honez gero lekukoekin jorratu behar genituen gaiek zenbat arlo desberdin ukitzen zituzten. Lehen esandako 3000 galdera horien erantzunetan mundu oso baten isla dago: izadia eta bere legeak euskarak hitzetan nola antolatua dituen sumatzen da eta pertsonen arteko giza-harreman sozialek zuten araudi estua eta etxe barruko familia-harremanen kode are estuagoen berriak jasotzen dira. Jendearen bizitzari horren hertsiki loturikoak bildu ahal izateko tentuz jokatu beharra dago: galdetu beharrekoak galdetu egin behar dituzu, eta giro ahalik eta lasaienean galdetzeko konfiantza eman behar diozu berriemalari baina bestetik ez duzu zapuztu behar, ez diozu emandako konfiantza ezertxogatik ere kolokan izan dezan utzi behar. Bere borondateak agintzen du beti, bai zure berriemaile izan ala ez erabakitzean eta baita zerbait esan ala esan ez hautatzen duenean ere. Gizabanakoa eta gizalegea dira nagusi.

Bestela lortzea ezinezko izanik, inkesta garaian sortutako konfiantza giroaren emaitza dira galdekizuneko gai irristakor eta *tabuen* ordainak: muga

---

(4) Inkesten osotasuna ordu luzeetan emandako elkarrizketak osatzean “es muy probable que se desarrolle una relación de confianza, en la cual el participante en la investigación da por suelta la observación del carácter confidencial, aunque esto no se haya prometido” (Cook, 343 orr.).

kontuak direla eta auzoen arteko liskar luzeak, urbide eta elizbideen publikotasuna, sexu gaiak, haur-galtzeak, ixilkako ezkontzak, ezkontza tratuak, erailketak, nork bere burua hiltzeak, sineskerak, sorgin famak e.a. Hitzen esanahia zehaztera behartuta, adibide hurbilekin ematen dituzte maiz azalpenak, kontakizun batek beste ezerk baino argi gehiago ematen duela jakinik, edo esaten ari direnaren bermea errealitatearen puska bat aurkezteak ematen duela kontzertituta.

Berriemaileak horiek guztiak bere terrenoan esaten ditu, bere etxean edo gertu, ia begibistan ditu adierazten ari denaren eskenatokiak, eta horrek erraztu egiten dio zenbait gauzaren kontaketa. Gehienetan, gainera, *guri* inkestagileoi bakarrik esaten ari zaizkigula uste izateko *arriskua* du grabagailua martxan dela erdi-ahaztean.

Egoera horren aurrean inkestagilearen jokabide etikoak garbia izan behar du; bere lan iturria ez dira liburuak, pertsonak baizik. Guretzat narrazio anonimoak dira, aurpegi jakinik gabeko pertsonaiadunak baina beretzat garrantzia afektiboa dute, gehiago edo gutxiago, hurbiltasunagatik. Informazio gehiago ateratzeko ez dago hor azerikeria eta engainutan ibiltzerik, ez eta euskarari buruzko jakitatearen izenean ere (5).

## 2.2. Berriemailearen jardunaren publikotasunaz

Honaino iritsita berriz gogorarazi beharra dago 1.3. puntuan luze azaldu duguna. Guri esandakoaren arabera zera uste genuela: paperaren ordeztintak erabiltzea lan-tresna egokiagoa izan genezan egindako hautua zela, gero informazioa papereratzean zintetan zegoenari beharrezko iragazkia jarriko geniola eta datuak elaboratzean testu bat publikoratu ala ez erabakitzeke giltza gure eskuetan izango zela. Ez dugu esaterik berriemaileak esaten zuen hura erabat publiko izango zela zinez jakin izan balu, zenbateraino zentsuratuko zukeen bere burua. Seguru asko, desberdin jokatuko genukeen guztiok ere.

Hainbeste ordutan jardun ondoren, ez dugu erraza zer bildu dugun zehazki gogoan izaten. Inkestagile guztiak gara gai halako pasarte, halako aitortza gogoratzeko, gure gogoia edo harridura une horretan astindu zituelako. Ziur dakiguna zera da: badirela pasarte "delikatuak", kontu gordin samarrak, izen propioak e.a eta horiek babestu beharrekoak direla nola edo hala (6).

(5) Bi eskubideren artean jokatu behar du ikerlariak: " el derecho de la ciencia y de la sociedad a inquirir y conocer (y) el derecho del individuo participante en la investigación a conservar su dignidad, intimidad y autodeterminacion" (Cook, 324).

(6) Cook-ek, giza-harremenaren ikerketan erabiltzen diren zalantzako teknika zenbaitek eragindako galdera etikoaren artean, intimitatearen inbasioa aipatzen du eta lortutako datuak zabaltzeak pertsonari lekarzkiokkeen kalteez ari da: "(puede vulnerarse) el derecho que todos poseemos a que no conste en público información personal sobre asuntos privados, y a determinar por nosotros mismos qué parte de nuestras ciencias, actos y atributos personales deseamos desvelar" (Cook,

Gure lana, batik-bat, herri txikietan garatu da, guztiek elkar ezagutzen duten lekuetan, eta halako, kanpotar bati zenbait gauza kontatzen aritu izan zaiola gaizki har daiteke, gizarte lege estuek agintzen duten parajeetan.

Zenbait oinordekori ere, familiako supean gorde ohi direnak bere ama edo aitonak atera dituela jakiteak lotsa eragin diezaioke, are gehiago, edonori entzutera emango zaizkiola jakiteak. Horregatik diogu nolabaiteko babes neurriak ezartzea beharrezko deritzogula.

Azkenik, atzeko atletik eta lotsatuxe bada ere, inkestagileon jarrerari buruz ere bi hitz esan gabe ezin utzi. Ez dakigu beti ongi ulertuak izango diren gure *teknikak*, maiz *bitxiak* baina askotan ez gaituzte leku ederrenean paratzen. Gai bati buruz emandako azalpenarekin konforme ez baginen, askotan tonto plan-tak egin beharrean aurkitzen ginen, ezer ulertu ez bagenu bezala, argibide zabalago eta joriagoak lekukoari emanarazteko; jarrera artifizial nabarmenak erakusten genituen beste askotan, gero zintak bere ingurunetik kanpo entzutean, are nabarmenago diruditenak; lekuz kanpoko barre eta barre algarak... berrie-maileen duintasuna ez ezik, inkestagileona begiratzten ere jakin beharko luke zinten erabiltzaileak.

### 2.3. “Zentzu etikoa” zinten kontsultatzaile edo erabiltzaileak

Puntu honetan laburbiltzen da EHHA.eko batzordekideok adierazi nahi genukeen eskabidearen muina eta honaino azalduetako guztiaren arrazoa: 2400 zinten edukia modu txukun eta erakusgarrian jartzeko astirik ez dugunez eta beraien kontsulta debekatzeko ezinezkoa eta burugabea denez (7), material horretara hurreratzen denaren “zentzu etikoari” egiten diogu dei inkestagileak esfortzuz lortutako konfiantza giroa urra ez dezan. Jakin behar du grabaketa garaian sortutako konfiantza giro hori sumatzen, horrek erraztutako jardun lasaia Atlasak derrigortutakoetatik bereizten, eta inguru horretatik sortutako datuak ez zabarki baliatzen. Lekukoa kaltetu dezakeen edozer baztertu behar du bere lanerako ongi badatorkio ere.

310. orr). Adibideen artean, erlazio afektiboak, status ekonomikoa, sinesmenak, iritzi politikoak... zerrendatzen ditu, guzti-guztiak gure inkestetan zehar barra-barra azaltzen direnak.

Horiek zabaltzean partehartzaileak izan litzakeen kostuen artean: “afrentas a la dignidad, ansiedad, vergüenza, desconcierto, dudas, pérdida de confianza en las relaciones sociales, pérdida de autonomía y autodeterminación, y reducción del autorespeto” (Cook, 326 orr.).

(7) Ikus horri buruz zer dioten FAMT-en eratzzaileek: “Il nous semble donc du devoir des phonothèques de favoriser cette démarche en incitant collecteurs et informateurs à autoriser cette copie. A noter toutefois qu’il est possible de réaliser des copies de consultation différentes des originaux si certains passages sont confidentiels” (azpimarra gurea).

Hor bertan, aurreraxeago dioenez, Frantziako Estatu osoa hartzen duen horrelako erakunde batek oraindik ez die itenbiderik eman soinudun dokumentuen kontsultak sortarazten dituen arazo iuridiko eta etikoei (1992.eko lan bat da!). Zerrendatu egiten ditu: “... propriété des documents, confidentialité des informations, contrat (interprète ou informateur), autorisation pour utilisation commerciale ou plus publique du document...”. (PERENNOU: 117 orr.).

Horretarako aski du guztioi sen onak iradokitzen dizkigun araei kasu egitea, berriematea bizi den gizarteko legeak beti gogoan izanez jokatzeari, edo, errazago oraindik, kontsultatzaileak berak bere ahotik atera eta edonork jakitea nahiko ez lukeenik, ez argitaratzea.

Intimitatea eta pribazitatea batetik eta bestetik publikotasuna lehian ikusten dituenean beti lehenbizikoaren alde egin behar duela garbi izan dezan eskatzen diogu.

### 3. AZKUE BIBLIOTEKA DA ONDARE HORREN GORDAILU ETA KUDEATZAILE

Fonotekaren eskuetan utzitako fondo hauen erabileraz dugun iritzia ematea geratzen zaigu. EHHA batzordearentzat —eta batez ere, inkestagileontzat— oso garrantzizkoa da Azkue Bibliotekako zuzendaritzak guk txosten honen bidez bidalitako mezua barneratzea.

Ehundaka zinta eta CD-ROM beren herri-izen eta kodeekin markatuta ikusteak ez du erakusten haien baitan gordetzen dena. Herri bakoitzean galdetikuzuna goitik-behera pasatu dela ezaguna da baina horretaz aparte, itsu bilakatzen da gure bilketa-lana. Espero dugu, hemen emandako argibideen eskutik, lehen itsu zirenak orain zerbait bederen argiztatu izana, eta edukiak ere arreta merezi duela ulertuz, ardura hori ere fondo honen kudeaketan sartzeko sentsibilitatea azaltzea. Hitz bitan esateko, fondo berezia denez, tratamendu berezia beharko duela eta ez soinuazko artxiboa delako bakarrik, barruan giza-banakoen gora-beherak doazelako baizik, inolako galbahetik pasatu gabeak, eta hori liburu xahar baten paper xaharrak bezain delikatua da, edonoren eskutan, kontrol haundiegirik gabe utz ez daitekeena.

Kopia eskaririk balego, berriz, are zorrotzago jokatu beharko litzateke. Erabilera pribatua eta publikoa bereizi beharra azpimarratzen dute gai hau zuzenean aztertu dutenek (8); beste batzuk, pasarte konfidentzialak babestu egin behar direla eta, orijinalak ez baina kontsulta-kopia bereziak eskaintzearen aldeko azaltzen dira (9). EHHA batzordeak arrisku hauen gainean gogoeta-dei bat luzatu nahi luke, behin kopia eskuratuz gero erabilera pribatu baterako bakarrik izango dela ziurtatzea oso zail izango zaigulakoan.

---

(8) Iuridikoki harturik frantses legediaren argitara aztertzen du Cordereix-ek: "Du point de vue de la gestion d'une phonothèque (...) soumettre toute demande de copie par un usager à l'autorisation préalable des ayants droit (lehenago dioenez, biltzailea eta berriematea dira eskubide iuridiko hauen jabeak), les termes de cette autorisation pouvant induire des modalités différentes suivant que la copie est à usage privé ou public" (Cordereix: 142 orr.).

(9) "A noter toutefois qu'il est possible de réaliser des copies de consultation différentes des originaux si certains passages sont confidentiels" (Perennou: 117 orr.).

#### 4. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- COOK, Stuart W.: "Temas éticos en la realización de investigación en relaciones sociales", in *Métodos de investigación en las relaciones sociales*, Madrid, RIALP, 1980 (9. de.) 277-344 orr.
- CORDEREIX, Pascal: "Conserver. Eléments de gestion d'une phonothèque", in Denis LABORDE, éditeur, *Tout un monde de musiques*, L'Harmattan, 1996, Paris, 123-173 orr.
- PERENNOU, Véronique et NEGRE-FONTANEL, Frédérique: "La fédération des associations de musique traditionnelle (FAMT)", in *Sonorités*, 28-29 zenb., 1992, 109-120 orr.



## **ONOMASTIKA**





Bilbon, 1998.eko urtarrilaren 20an

FAUSTINO ANDA jauna  
01195 SUBILLA-GASTEIZ kontzejuko errejidore lehendakaria

Agur t'erdi!

Atsegin dut zure eskariari so eginez, Akademi erakunde honen Onomastika batzordeak, bere azken bilkuran onartutako Subilla-Gasteiz kontzeju izenaren irizpena bidaltzea.

Besterik ez, izan ongi

J.L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea

Sr. D. FAUSTINO ANDA  
Regidor-presidente del concejo de 01195 SUBILLA-GASTEIZ/SUBIJANA  
DE ALAVA

Distinguido Sr.:

Pláceme adjuntarle resolución de ese concejo aprobada por la Comisión académica de Onomástica en su última sesión.

Atentamente,

J.L. Lizundia, vicesecretario-gestor

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico de la Junta Administrativa de *Subijana de Alava* del municipio de *Gasteiz*, en su forma euskérica académica actual es: *Subilla-Gasteiz*. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *subillar*.

Que *Subilla/Subijana* es claramente un topónimo vasco, con posterior evolución en euskara y en romance, documentado en los años de 1025, 1257 y 1462 con las formas *Subillana*, *Subeyana* y *Subejana*, como aparece, por ejemplo, en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. El nombre parece provenir de *Subfiniana villa*, según la propuesta de M. Lourdes Albertos, que Luis Mitxelena cree posible.

Que *Subilla* era, sin duda alguna, el nombre empleado por el pueblo, como se observa en la toponimia menor donde entre otros se recoge este nombre, en el siglo XVI en los topónimos: *Subillabidea*, *Subillabide*, *Subillabidia* y *Subillazudi*, aunque predominó después la forma *Subijana* empleada en la escritura, nombre que es una evolución romance.

Que *Subilla* es la evolución de *Subillana* de acuerdo con las leyes de la fonética vasca, a saber, la pérdida de la consonante *n* entre vocales, tanto en palabras de origen euskérico, como *ardo* o *gazta* de *\*ardano* y *\*gaztana*, como en préstamos latinos, *katea* y *area* en castellano *cadena* y *arena*, así como en la toponimia, como se ve en las localidades de *Aramaio*, *Miñao* (A), *Otxandio* (Bi), *Argomaiz* (A), *Lazkao* (Gi), *Galdakao* (Bi) o *Dorrao* (Na), entre otras.

Que aunque en el *Nomenclátor de Entidades de Población de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia —Eusko Jaurlaritza/Secretaría General de Política Lingüística— Gobierno Vasco y Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, Vitoria/Gasteiz 1986, aparecía la forma *Subillana-Gasteiz* posteriores investigaciones han demostrado que la forma usada por los vascoparlantes era *Subilla*.

Por lo anteriormente expuesto, es necesario rectificar el expediente de cambio de nombre, oficializando la doble denominación *Subilla-Gasteiz/Subijana* de Alava.

Y para que conste y surta efectos, expide el presente certificado en Bilbao, a veinte de enero de mil novecientos noventa y ocho.

Henrike Knörr,  
Presidente de la Comisión  
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,  
Secretario de la Comisión  
de Onomástica

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca y Secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

## CERTIFICA:

Que el nombre euskérico de la Junta Administrativa de *Elburgo* de dicho municipio, en su forma euskérica académica actual es: Burgelu. También cabe señalar que el gentilicio de dicho pueblo es *burgeluar*.

Que *Burgelu* es la forma documentada de dicho topónimo en el año de 1025, como aparece en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada igualmente por esta Real Academia.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a treinta de enero de mil novecientos noventa y ocho.

H. Knörr Borràs,  
presidente de la Comisión  
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,  
secretario de la Comisión  
de Onomástica

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkari denak, ondoko

## DIKTAMEN HAU EMATEN DU:

Elkargo Akademiko honek prestatuturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 273 zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean Garay deitua, euskal aldaera ofizialean Garai dela. Herritarren izena, ordea, garaitar.

Euskal literatura eta tradizioan herri izen hau behin baino gehiagotan agertzen da, hala nola, heraldikan "Gordeago dago herria Garaian altuan"; Resurreccion Maria de Azkue Euskaltzaindiko sortzaile eta lehen euskaltzainburu izan zenaren *Cancionero Popular Vasco* kantategian: "Garaiko plazan ote lo-

ran, Ermuan Asentzioa”; Herri kantetan: “Durangon tronpia, Garaian danbolina, Berrizen dantzia...”.

Garai izeneko toponimoak Euskal Herriko eskualde guztietan, hasi Enkartzatzeetatik Zuberoaraino auzo, etxe eta leku izen ugari daude. Errioxako Ojastro herrian “cuadrilla” edo barruti baten izena Garai zen eta Argentinako departamendu eta ibai batena ere. Udal izen bakarra, ordea, berau da, Durangoko merinaldean.

Eta hala adierazteko eta bertako Udaltzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon, mila berderatziehun eta laurogeita hamazortzigarreneko otsailaren hogeita bostean.

H. Knörr,  
Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzordeko idazkaria

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkari denak, ondoko

#### DIKTAMEN HAU EMATEN DU:

Elkargo akademiko honek prestatuturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 143 zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean *Bérriz* deitua, euskal aldaera ofizialean Berriz dela. Bestalde, herritarren gentilizioa berriztar da.

Berriz euskal toponimoa dela eta ondorioz, Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legearen 10. artikulua arabera, leku-izenak jatorrizko hizkuntzaren idazkeraz idatzi behar direla, kasu honetan Berriz, euskaraz, Erret Akademia honek emandako arauen arabera ez baita euskaraz tilderik idatzi behar.

Eta hala adierazteko eta bertako Udaltzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita hamazortzigarreneko martxoaren hogeita bostean.

H. Knörr,  
Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzordeko idazkaria

Mikel Gorrotxategi Nieto, Licenciado en Filología Vasca y Secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia,

### CERTIFICA:

Que el nombre euskérico del concejo de *Ullibarri Kuartango* del municipio de Kuartango, según acuerdo de esta comisión académica en su forma euskérica académica actual es: *Uribarri Kuartango*.

El nombre del concejo, tiene dos formas, a saber:

1. *Ullíbarri*. Es una forma procedente de una anterior *Ulibarri*, “pueblo nuevo”. Esta forma puede pasar a *Uribarri*, pero también palatizarse en *Ullibarri*, como en este caso y otros de Alava.

Por lo que respecta a este nombre, los testimonios señalan las formas *Ulibarri* y *Ullibarri*. Es evidente además que se ha escrito con *b* (*Ullíbarri* y *Ulibarri*) por la mayor parte de los historiadores, como puede comprobarse en las obras de Landazuri; en el *Diccionario geográfico-histórico de España*, de la Real Academia de la Historia, de 1802, en el *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar*, de Pascual Madoz, de 1845-1850; en el *El libro de Alava*, de Ricardo Becerro de Bengoa, de 1877; en la *Geografía general del País Vasco-navarro*, de Francisco Carreras y Candi, sin fecha (hacia 1910), etc. La forma con uve, *Ullívarri*, parece haberse extendido más recientemente.

2. *Uribarri*. Esta forma *Uribarri* era, sin duda alguna, la empleada por el pueblo, aunque coexistió después el nombre de *Ul(l)ibarri* empleado en el uso administrativo escrito. Compárese la forma del nombre de la provincia, *Alaba*, que se convierte en *Araba* por la evolución normal en lengua vasca, entonces mayoritaria, aunque se mantiene *Alaba/Alava*, que es el tomado por el castellano única lengua oficial. Recordemos la cita del historiador Juan de Vitoria (1591), quien explica: “Llámanla los naturales *Araba*”.

Por lo que respecta a la adecuación de ambos nombres a la actual legislación, parece aconsejable una doble denominación, al existir cierta distancia entre ambas, a saber:

### *Uribarri Kuartango / Ullíbarri Kuartango*

Ha de recordarse que la denominación *Uribarri* fue la recomendada años atrás por esta Real Academia y así figura en el libro preparado por la Comisión de Onomástica de la Institución, y editado por el Gobierno Vasco, *Relación*

*de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco / Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak*, Vitoria/Gasteiz 1986.

Cabe añadir que el gentilicio es en lengua vasca *uribarritar*.

Y para que conste y surta efectos, se expide el presente Dictamen, en Bilbao, a doce de junio de mil novecientos noventa y ocho.

H. Knörr,  
presidente de la Comisión de  
Onomástica

Mikel Gorrotxategi,  
secretario de la Comisión de  
Onomástica

## BIDASOA - TXINGUDI

### Hidronimia zehatz kokatzearen aldeko txostena

1998-05-25

Juan San Martin

Ez dut esan beharrik onomastikak berez ikerketarako adibideak eskaintzen dizkigula eta, horregatik, izenok ahal den erarik jatorrean gordetzea komeni zaigula.

Bidasoa hidronimoa antzinatik datorkigun izena dugu, ibaiaz gainera itsasadarrarentzat erabili dena. Antzinatik diot, zeren erromar geografoek aipatzen zuten *Oiasso* eta *Oearso* eskualdearen izena bere sustrai duenez gero. Txingudi, ordea, Hendaia toki jakin bat da. Eta orain, gure egunotako uste oker baten arabera, Bidasoaren lekua hartzen ari da.

Esan bezala, bata antzinatik dokumentaturik datorkigun hidronimoa da, itsasadar zein ibai, gaur oraindik mugaren bi alderdiak hartzen dituena; bestea, ordea, joan zen mendearen erdialdera arte dokumentatu gabea, orain Hendaia aldean golko jakin bati soilik deritzaiona, herri kaskoaren ifarraldean, ibaiaren Kanaletik harat, Gazteluzar ingurutik Zokoburu aldera irekitzen den golkoa, hain zuzen.

Eusko Jaurlearitzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailak, Irun eta Hondarribia arteko Plaiaunditik Mendelu zehar Urdanibia aldera dijoan eskualdeari, Bidasoako natur ingurugiroa babesteko *Txingudi* izena eman zioenez, alde guzietan indartuz eta zabalduz dator *Txingudi*, *Bidasoa* izen jatorra goaren kaltetan. *Txingudi*-k berez hain oinarri jatorrik ez edukitzeaz gainera, Jaurlearitzako Sail horrek berari ez dagokion eskualdeko izena eman zion.

1998ko urtarrilean, arkeologo batek Irungo Amaia aretoan eman zuen hiztaldi batean zioen, erromarren garaian Tarraco-tik Txingudira bide bat zetorrela. Harrigarria benetan, astakeria ez bada, arkeologo bategandik hori entzun beharra, zeren erromarren garai hartan ez baitzen ezagutzen Txingudirik. Eskualde guziarentzat era jatorra *Oiasso* zenez, nondik datorren *Bidasso*. Gainera Erdi Arotik gure mendera arteko agerietan zein historia liburuetan hain ugari lekukotzen den izena dugu.

Izen aldaketa horrek oker handia ekar dezake Arkeologia, Historia, Hizkuntzalaritza, Geografia eta kulturari dagokienez. Jaurlearitzako kontseilari ba-

tek eman zion izen hori, Txingudiko erreserba naturalizat, Txingudirik ez zen tokian. Horregatik komeni da zuzenketa eskaria egitea. Aldi berean, Sail horri eta Irun-Hondarribia Udalarri dagokien *Txingudiko urak - Aguas de Txingudi* delakoarentzat ere bai. Txingudi, Hendaia aldekoa izatez gainera, han ez baita ez iturburu, ez errekarik. *Txingudiko urak - Aguas de Txingudi* bezala bataiatu dutenek ez zekiten edo ez ziren ohartu Hondarribirako lehendik Jaizkibel mendia iparraldean diren Iturraingo-erreka eta Artzu-errekatik hartzen zirela urik gehienak eta orain, bai Irunerako eta Hondarribirako, Irun eta Lesaka artean muga egiten duen eta Bidasoaren adar den Endara-errekakoak direla. Eta erreka hori Bidasoara sartzen den tokian oraindik izen zaharragoa mantentzen du, *Erdarlatsa*, “Endara-latsa” esan nahi duena. *Latsaren* tokia gerora latinetikako errekek hartu baitzuen.

Oker horren ondotik etorri dira bestelako ondorioak, Irun-Oiartzun mugen eskualdean ireki berri den *Alcampo* supermerkatuaren ondoan sortu den inguruguneari, eta bereziki han ireki diren zinema aretoei ere *Txingudi* izentzat jartzeaz.

*Oiasso*, *Oarsso* eskualdea antzina dokumentatua da. Adibidez, beste zenbaitzunen artean, hala aipatzen zuten Estrabon, Mela eta Pliniok, duela bi mila urte. Gero, garai modernoetan ere hala zen Garibai, Moret, Oihenart, Henao, Isasti, Yanguas y Miranda, Madoz, Gorosabel eta gainerako historiagileentzat. Zer esanik ere ez urte batzuetan Hondarribian bizi izan zen Zaldibia Batxillerentzat.

Joan zen mendera arteko nafar eta gipuzkoar historiagile guziek lehenago *Vidasoa* eta, gero lehen letra B-ra aldatuz, *Bidasoa*, soil-soilik erabili izan dute itsasadar eta ibaiari buruzko aipamenetan. Izen hori, lehenagotik zetorren hipotesi bati jarraituz, Julio Caro Barojak “camino (bide) de Oiasso” aipatzen zuen bere etimologiaz *Los pueblos del Norte de la Península Ibérica* (Madrid, 1943) liburuaren 93. orrialdean. Oroi Juan Ig. Iztuetak berak ere *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* (Donostia, 1847) haren 121. orrialdean honako hau zioela: “Bidasoac esan nai du Euscaraz, bide Oeaso, edo Olearsoracoo”. Koldo Mitxelena ere horren aldeko zen. Ikus *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-en (1956, XII, 69-94. orr.) aldizkarian argitara eman zuen “Guipúzcoa en la época romana”. Baina haren ustez, 73-74. orrialdean hain argi adierazten zenez, latinetikako *Vía ad Oiasso*-tik zetorkeen. Jakina da *Oiasso* edo *Oiarssso* euskarazko *Oihan* sustraian oinarritzen direla.

Iztuetak berak, aipatu dudan liburu horren zortzigarren kapituluko 120-124. orrialdeetan, oso ongi adierazten dizkigu Bidasoa ibaia bere Nafarroako sorburutik ezker-eskubi, bi alderdien inguruak itsasoan sartzera arte, baina *Txingudi* izenenaren aipamenik ez dakar. Horiez gainera, historiaz asko zekiena genuen Martin Hiribarren azkaindar idazleak *Eskaldunac* (1853) poema libu-



ruaren 94-95. orrialdeetan Bidasoari eskaintzen dizkion goramenak irakurgariak dira.

Hainbeste urtez Hondarribia eta Irungo Udal artxibategien arduradun izan zen Serapio Mujikak ere ez du aipatzen *Txingudirik* bere *Monografía histórica de la Villa de Irún* (1903) eta *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Vol. *Guipúzcoa* (1910-1916) liburu bikainetan; zein batean zein bestean, ez inguruaren adierazpena egitean eta ez gainerakoan.

Esan dudan bezala, *Txingudirik* ez da agertzen dokumentaturik oso berandura arte. Oraingo *Txingudi* hidronimo hau Hendaian kokatzen da, Pierre Loti idazlea bizi eta bertan 1923. urtean hil zen *Bakar-etxea* hartatik Zokoburu aldera dagoen golkoa (*bahía*) da; baina inoiz ez zuen aipatu bere liburu eta idazlanetan, bai, ordea, makina bat aldiz *Bidasoa*.

Armand Praviel-ek ere *La Costa de Plata y el País Vasco. El Bearn* (1926) liburuan, beti *Bidasoa* dakar eta 52-53. orrialdeetako argazkien azpikaldean *Bahía de Hendaya* bezala jartzen du, orain *Txingudi* dena. Inguru hauetan kokaturiko literatura lanek ere ez dakarte *Txingudirik*, bai, ordea, *Bidasoa*. Ikus ditzagun bestela Pierre Lhande euskaltzainak inguru hauetako kondairetan oinarriturik idatzi zituen bi eleberriak, lehena frantsesez, *Mirentchu* (1914) eta bigarrena euskaraz, *Yolanda* (1921); ez batean ez bestean ez du aipatzen *Txingudirik*, bai, ordea, zenbait aldiz *Bidassoa* edo *Bidasoa*. Eta klinika Irunen zuen Dr. Victoriano Juaristi donostiarrak, “Victor Ivan” izenordepean burutu zuen *Costa de Plata* (1928) eleberrian ere, ikus dezakegu hainbeste aldiz *Bidasoa* dakarrela, gainera, eleberri honen XV kapitulua bera “En el Bidasoa” deitzen da.

R. Gallop eta Ph. Veyrin idazleek, bata inglesa eta bestea saboiarra izanik, gure herria maite izateaz gainera lan interesgarriak idatzi zituzten. Adibidetzat har ditzagun: Rodney Gallop-en *Los Vascos* (1948), 1930ean ingeles argitaratu zuenaren itzulpena, eta Philippe Veyrin-en *Les Basques* (1947); zeintzuk elkarlanean burutu zuten *Pays Basque de France et d’Espagne* (1951). Liburu horietan maiz aipatzen dute *Bidassoa*, baina inoiz ere ez *Tchingudy* edo *Txingudirik*.

Nik dakidanez, horrekin ikustekorik duen izena, Frantziako katastroan, *Carte des Communes d’Hendaye et d’Urrugne* (Paris, 1866) deritzaionean dator lehen aldiz *Chingody* (= *Xingodi*, noski), Bidasoaren ertzean, orain Zokoburu den toki berean. Bere inguruko agertzen dira *La Bidassoa Rivière*, *Baie de Hendaye* eta *Ondarraizu* hondartza. Ikus Martin Izagirre Igiñizek argitaratu zuen *Cartografía antigua y paisajes del Bidasoa* (Irun, 1994) liburua 303. orrialdean datorren erreproduzioa. Baina, horren arabera, golko edo badia Hendaia zen eta *Xingodi* orain Zokoburu den Bidasoa ertza.

1925. urtean Hondarribian eratu ziren “Fiestas Euskaras” haietan argitaratu zen *Ciudad de Fuenterrabía, Programa de Fiestas Euskaras y Locales*, 3 al

13 Septiembre 1925 zeritzon liburuxkan Pio Barojak aurkeztu zuen “El Bidasoa” idazkian aipatzen du *Chingudy*; baina Bidasoaz hainbeste idatzi zuen idazle ospetsuarentzat, zalantzarik gabe, Hendaiako golko edo badia zen; ez ibaia ezta ere itsasadarra. Beraz, garbi zuen bertako izen orokorra *Bidasoa* zela. Liburuxka berean “Satarka”ren olerki bat zetorren, “Eusko lore eder” zeritzana, eta honela hasten zena: “*Bidasoa-ko lorea zera*”. Sakarka izenordea erabiltzen zuen Klaudio Sagartzazu hondarribiar olerkariak, *Txinpartak* (1922) liburu hartan, inoiz ez zuen egin *Txingudiren* aipamenik, baina Pio Barojari eskaini zion “Itzea” olerkiaren azken aurreko bertsoan, 83. orrialdean, hara zer zioen:

*Jauregi eder  
Antziñakoan,  
Gizon txit jakintsu bat bizi da.  
Bidasoako  
Txapelaundia,  
Edeztizundari ezaguna.*

Gauza bera esan dezakegu *Intza begietan* (1957) liburuko olerkiez, “Ondarribia” zeritzon olerki sarituaren esaldi batean agertuko zigun: “Ain maite degun Bidasoa ibaia”; baina, hemen ere, *Txingudiren* aipamenik ez. Eta horren ondorean zetorren “Ama berbera” olerkia, 84. orrialdean, Bidasoz handikako anaia maiteei eskainia.

Luis de Urantz (Luis Rodriguez Gal) zenak *Lo que el río vio. Biografía del río Bidasoa* (1955) liburu bikainaren 6 eta 294. orrialdeetan dakar *bahía de Chingudy*, baina honek ere, Pio Barojak bezala, ez itsasadarrarentzat eta ez ibaiarentzat. Horiek argi eta garbi bereizten zekiten eta seguruenik Txingudi golkoaren lehen berriak izango dira, lehenagoko *Bahía de Hendayaren* lekua hartuz; baina hidronimotzat non eta zer den jakinaren gainean.

Bitaño (Nikolas Alzola Gerediaga) adiskideak *Atalak* (1967) zeritzan ipuin eta kontakizun liburuaren 88. orrialdean, *Bakar-etxea* eta Pierre Lotiren oroienez idaztean dakar honako esaldi hau: “Zenbat bidar egon ete zan Txingudi itsasadar oni begira Loti, Jaizkibel mendirantz bere itsas-gizon begiak, orain ni nagon moduan...”. Hemendik jaso zuen Ibon Sarasolak *Itsasadar* hitzaren adibideetariko bat bere *Euskal Hiztegia* (1996) bikainerako. Bitaño zenaren liburu horri, “Ataleri ataltxo bat” izenpean hitzaurrea egin nioenean, nik neuk ere pentsatzen nuen Txingudi itsasadarra zela. Izan ere, lehorraren barnekaldean jaio ginenok ez dakigu itsasadar eta *bahía* den golkoa behar bezala bereizten. Baina Hondarribian bizitzera etorri nintzenean eta bertako tokizenak aztertzen hasi, *estuario* eta *bahía* bereizten ikasteaz gainera, hondarribiar arrantzaleen artean egin nituen galderetatik jabetu nintzen gauza bat zela Txingudi golko (*bahía*) eta oso beste bat Bidasoa itsasadar (*estuarioa*) eta ibaia. Arrantzaleok badakite Txingudi, Hendaia partean, Gazteluzar ingurutik Zokobururakoa tarte hori dela.

Hondarribiar arrantzaleek ez ezik, adibidez, Maite Berruet Arbelaitzek 1995. urtean Irungo Udalerako burutu duen toponimia ikerketa sakonaren egi-keran ere ez du aurkitu *Txingudi*. Nola arraio daiteke Plaiaundi eta bere inguruari *Txingudi* izena ematea?

Leonardo Urteagak *Guía sentimental del Bidasoa* (1976) liburuan, bere artikuluez gainera, Bidasoa eta bere inguruaz idatziak ziren artikulua bildumaz osatua da. Fausto Arozenaren idazki batek *Chingudi* du izenburuz, 26-29. orrialdeetan datorrenez, baina gero idazki guzian *Bidasoa* soil soilik erabiltzen du, eta idazkiaren barnean ezarririk duen Dario Regoyosen irudiak izenburuz azaltzen du *Bahía de Chingudi*. Ondotik Mourlane Michelena irundaroak berak ere aipatzen du *Txingudi*, baina kokapenez ez digu argi gehiegirik eskaintzen. Han bertan Koldo Mitxelenak Mourlane Michelenaoren oroitzapenez, gaztelerez idazten zuten euskotarrei buruz eskaintzen duenean argi dakar: “la desembo-cadura del Bidasoa” (100. or.). Ezin zen beste era batera izan *Vía ad Oiasso* etimologia proposatzen zuen hizkuntzalariarentzat. Baina, liburuan zehar nabari denez, ohartuko gara idazle batzuk, *Bidasoaren* izen bera hainbeste aldiz ez errepikatzearren edo *Txingudi* aipatuz ordezkatzeko zutela, sinonimo gisa; horiek dira literaturgintzan hartzen diren lizentziak. Baina horietako gehienek bazekiten bereizten, *Bidasoa* itsasadarra zela eta bere barnean *Txingudi* golkoa. Bestela, ondo pentsatuz, liburuak berak ez zuen eramango *Guía sentimental del Bidasoa* izenburutzat.

Nahasketa horrek gure historia eta kulturari ez dio onik egiten. Arkeologo, historiagile, zein hizkuntzalari edo geografi-kulturari begira, behar-beharrezko da zehaztasuna, bereziki lehenaren oroitzapenerako eta iker lanetarako. Horre-gatik iruditzen zait Euskaltzaindia bezalako erakunde batentzat legezko dela Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailari aditzera ematea, Txingudiko erreserba naturalaren ordezkari Bidasoako erreserba naturala jar dezatela. Gainera, aditzera eman, *Txingudirik* ez dela Euskal Autonomi Er-kidegoaren barnean.

Era berean, Irun eta Hondarribiko udalei *Txingudiko urak / Aguas de Txin-gudi* izena duen ur-partzuergoari ere nolabaiteko aldakuntza eman diezaioten.

Behingoz argi eta garbi gelditu bedi: Antzinatek agiritan etengabe dator-kigun *Bidasoa* dela era jatorra itsasadar eta ibaiarentzat. Aldiz, Bidasoaren bar-nean badela Hendaia partean Gazteluzartik Zokoburu aldera dagoen golko bat *Txingudi* izena duena, baina agiri zaharretan inoiz agertzen ez dena.

## RESUMEN

El presente trabajo trata de dar un toque de atención sobre *Bidasoa - Txingudi*, porque actualmente se está creando una desgraciada confusión en perjuicio de la investigación en el campo de la cultura general y que afecta principalmente a la arqueología, la historia, la lingüística y la geografía.

*Bidasoa* procede desde la antigüedad, *Vía ad Oiasso*, para designar tanto al estuario como a la ría que discurre desde Navarra hasta su desembocadura en el Atlántico, según se atestigua a través de la Historia. Mientras que *Txingudi* aparece por vez primera en el catastro de Francia en 1866, en forma de *Chingody* (que en euskara correspondería a *Xingodi*), para denominar lo que hoy se conoce por *Sokoburu (Zokoburu)*. Actualmente, *Txingudi* ha pasado a ocupar lo que hasta primeros de siglo era la *Bahía de Hendaia*.

Para aclarar y al propio tiempo tratar de poner orden sobre el asunto, la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, ha reunido la documentación necesaria que aporta testimonios de geógrafos, historiadores y escritores, desde la antigüedad hasta nuestros días.

Durante el presente siglo se empezó a denominar *Txingudi* a la bahía de Hendaia y desde la década del 70 algunos escritores vienen confundiendo *Bidasoa* con *Txingudi*. Tal vez de ahí, la Consejería de Urbanismo, Vivienda y Medioambiente del Gobierno Vasco, al crear la reserva natural, ha hecho un uso indebido con extender la denominación *Txingudi* al entorno de Plaiaundi. Asimismo los ayuntamientos de Irun y Hondarribia con la creación de *Aguas de Txingudi* a las procedentes de Endara erreka.

Desde el punto de vista lingüístico y arqueológico constituyen errores que se deberían subsanar; además perjudican a nuestra memoria histórica y, por consiguiente, a la cultura en general.

## LABURPENEA

Lan honen bidez, gaur egun *Bidasoa - Txingudi* izenen nahasketak kulturari orokorki eta ikerketari bereziki dakarkion kalteaz aditzera ematen da, zeren harrigarria baderitzagu ere, besteak beste, zoritxarrez ikerkuntzan arkeologia, historia, hizkuntzalaritza eta geografia sailen kaltetan dihoa nahasketak hau.

*Bidasoa* antzinatik datorkigu, *Via ad Oiasso*-tik, noski, itsasadar zein Nafarroatik datorren ibaia itsasadarraren ahoa Atlantiko uretan sartu arteraino, historiako lekukotasunak erakusten digutenez. Aldiz, *Txingudi*, Frantziako katas-troan aurkitzen da lehenengoz *Chingody (Xingodi)* bezala 1866. urtean, bertan markaturik datorrenaren arabera orain Zokoburu den toki berean. Baina, gure mende honen lehen partetik, *Txingudik*, *Hendaiako golko* edo *badia* zenaren lekua hartu du.

Gai hori argitzeko eta aldi berean ahalik egokien zuzenketa bideratzeko asmoz, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak hainbat beharrezko ageri bildu ditu, non datozen geografilari, historiagile eta idazleen lekukotasunak antzinatik gure egunotara arte.

Mende honen lehen partean hasi ziren Hendaiako golkoari *Txingudi* deitzen eta 70garren hamarkadatik idazle batzuek nahasten zituzten *Bidasoa* eta *Txingudi*. Behar bada hortik hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiroa Sailak, natur erreserba Plaiiaundi eta bere inguruan sortzean, *Txingudi* izena. Irun eta Hondarribiko udalek, ordea, Endara erreka urak hartzean partzuergo berria sortu zuten *Txingudiko Urak* izena jarritz.

Linguistika eta arkeologia ikuspegitik huts larria deritzagu, zuzendu beharrezkoa, noski, zeren bestela kalte egiten baitio gure oroitzapenezko historiari eta, aldi berean, kulturari berari orokorki.



## **LITERATURA**





## AIPAMEN KLASIKOAK AXULARREN GERO LIBURUAN

*Patxi Salaberri Muñoa*

“Aipamenen ehiztaritza ere ez da egiteko alferra, inork ez baitu deus ezerezetik ateratzen, beti behar izaten baitira gidariak eta sostenguak”

(Mitzelena 1981, 285)

Argumentatzeko modu erretorikoa —dialektikoa ez bezala— edukiaz gain dauden elementuez ere arduratu izan da beti, argumentu motarik erabiliena eta, ziurrenik, osoena den “bilduma” izeneko horren adibide garbia delarik. Dituen bost partetatik (proposizioa, arrazoiak, baieztapena, apaingarria eta ondorioa) lehenengo biak eta azkena dialektikak eskuarki jorratu ohi dituenak badira ere, erretorikak eta batik bat oratoria sakratuak oso kontutan hartzen dituzte onepen eta apaingarrien arloak

Berbaldi batean zehar demostratu nahi den arrazoiaren aldeko argumetuak areagotzeko, beraz, baieztapenaren bidea erabili ohi da normalean, hartako formarik ezagunenak exenpluak eta idazleen lekukotasunak direlarik. Jakina, elementu hauek diskurtsoan barrena aipatzen den argumentu edota puntu bakoitza “frogatzeko” ekartzen dira oro har. Sustatzeko frogak horiek, eta beste-lako arrazoiak, exenpluak eta konparazioak inolaz ere ahaztu gabe, *auctoritas* arlokoak (Eskrituretakoak, Elizako guraso eta doktoreak, filosofoak,...) izan ohi dira nagusiki. Berauen bidez, ezaguna da, inori gai batean aitortzen zaizkion jakituriak eta iritziek frogak-balioa hartzen dute garatzen ari den berbaldian.

Ildo horretatik, bada, aipamen izenekoak autoritate argumentua bideratzeko tresnatzat hartu izan dira betidanik. Baina, horrezaz gainera, zerbait gehiago ere aitortu izan zaie historikoki, hots, baieztapenaren arloko elementu horiek, idatzitako zein ahozko diskurtso bati dagozkion entzule-irakurlearekiko hurbiltasuna, errealitatearen zentzua, praktikotasuna eta, nola, ez, erudizio-kategoria ere ematen dizkiotela hain zuzen.

Metodologikoki, horrelako berbaldiak esparru erlijiosora egokitzeko aha-lerin teoriko eta praktikoetan zinez maisua izan zen Luis Granadakoak garbi utzi zuen bidea: “Primeramente pues debe juntarse mucho y vario caudal de cosas, que sugerirá la varia lección, así de nuestros autores, como tambien de

los gentiles. A lo cual ayudan maravillosamente, no solo las sentencias, sino tambien los ejemplos, los símiles, los apotegmas” (Granada *Retórica*, 611a).

Hauxe izango da, beraz, oratoria sakratuan ihardungo dutenek eramango duten jokabidea: aberastasuna aipamentean eta erreferentzietan luzatu nahi den mezua errazago finkatzeko eta xedeak hobeto erdiesteko.

Baina aipamenean berezko garrantziaz gain, ezin ahaz daiteke aztertu nahi den autorearen maila intelektualaz eta prestakuntzaz (eta, bide batez, garaiki-deenaz) ere mintzatzen direla.

Guztiarekin, bada honetan ere arazo interesgarriak. Martine De Reu-ren hitzek azpimarratzen duten bezala (1):

“Les citations ou paraphrases méritent également d’être étudiées, car elles nous fournissent des indices concernant l’horizon intellectuel du prédicateur. Or, les citations et paraphrases ne suffisent pas à cette fin; il reste notamment le problème des sources intermédiaires” (Reu 1993, 334).

Esan gabe doa Axularrek ere eurrez darabilen formula dela aipamenean, bai gaiak ekartzeko, bai garatzen ari den doktrinaren berresgarri moduan. Horregatik *Gero*-ko aipamenean arloan luze mintza liteke Axularrek erabilitakoez edota aipatutakoez, izan ere liburuaren zati zabal bat aipamen-exenpluen “menpe” baitago. Halere, ezinbestekoa da aipatzea honetan ere Axular bere garaia-aren semea dela, berak ezagututako eta ikasitako jokabidea antzematen dela haren obran, orduko garaikide adierazgarri gehienenean bezalatsu.

Teknikoki, *Gero*-ko aipamen huts direnak (2) latinez ematen direnez gero, itzulpen batez lagundurik agertzen dira, itzulpen gehitu batez hain zuzen. Gehitze hori anplifikazioaren bidez egin ohi du urdazubiarrak. Tratamendu hori dela eta, zinez esan daiteke zortzi ehun aipamenetik gora dituen liburu honen erdia inguru aipamenean menpe dagoela, izan ere, kapitulu batzuk aipamen eta exenpluen arteko jostura baten fruitu egokitu baina ez baitira (ikus lehenengo kapitulu biak, esaterako).

(1) Orobat, ildo horretatik doaz behiala Farinellik honako aipamenean egoerarako gogorarazi nahi izan zuen pasartea, non Bossueten hitzak ere agertzen baitira: “Scrittori sacri e scrittori profani fanno a chi più cita nomi di illustri antichi. «Il y a bien des Auteurs qui apportent dans leurs Ouvrages des passages d’Homere, de Pindare, d’Aristote, de Ciceron, de Demosthenes, de Tite Live, quoiqu’ils ne les ayent jamais lûs; rien n’est plus ordinaire que cette conduite dans la République des Lettres»- *La Coterie des Anti-Façonnier*, Amsterdam, 1716, p. 143” (Farinelli 1908, 107-108).

- : *Naturales Quaestiones*, 2 vol. (Carmen Codoñer Merino-k itzulia eta berrikusia) Madrid, CSIC, 1979.
- : *Epístolas morales a Lucilio*, Ismael Roca Meliá-ren itzulpena, Madrid, Gredos, 1986.
- TERRONES DEL CAÑO, Fco.: *Instrucción de Predicadores*, Granada, 1617, [orain: Olmedo (ed.) 1960, Madrid, Espasa-Calpe].
- VENEGAS, Alejo: *Agonía del tránsito de la muerte*, Alcalá, 1565 (egun in Menéndez y Pelayo (zuz.), *Escritores Místicos Españoles*, I tom., Madrid, Casa Editorial Bailly / Baillière, 1911).

## BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- ASKOREN ARTEAN (1993): *Fray Luis de Granada. Su obra y su tiempo*, Actas del Congreso Internacional. Granada, 27-30 Septiembre 1988, 2 tom. (A. García del Moral eta U. Alonso del Campo-k apailatutako argitalpena), Universidad de Granada, Granada.
- ASENSIO, Eugenio (1981): “Ramismo y crítica textual en el círculo de Fray Luis de León. Carteo del Brocense y Juan de Grial”, in A.A., 1981, *Academia Literaria Renacentista. I Fray Luis de León*, Salamanca, Universidad de Salamanca, 47-76.
- BATAILLON, Marcel (1979): *Erasmus y España*, Madrid, FCE. Farinelli, Arturo, 1908, *Dante e la Francia. Dalletà media al secolo di Voltaire*, 2. lib., Milano, Ulrico Hoepli.
- BLÜHER, K.A. (1983): *Séneca en España. Investigaciones sobre la recepción de Séneca en España desde el siglo XIII hasta el siglo XVII*, Madrid, Gredos, 1983.
- CARRERAS Y ARTAU, Tomás, eta CARRERAS Y ARTAU, Joaquín: *Historia de la Filosofía española. Filosofía cristiana de los siglos XIII al XV*, II. tom., Madrid, 1943.
- CURTIUS, Ernst Robert (1976): *Literatura europea y Edad Media latina*, 1 eta 2, Madrid, F.C.E. (1. ed.: *Europäische Literatur und lateinisches Mittelalter*, Berna, A. Franke, 1948).
- GARCIA BERRIO, Antonio (1977): *Formación de la teoría literaria moderna, I. La tópica horaciana en Europa*, Madrid, Cupsa.
- (1980): *Formación de la teoría literaria moderna, II. Teoría poética del Siglo de Oro*, Murcia, Ed. Publi. Universidad.
- HERRERO SALGADO, Félix (1993): “La *Rhetorica ecclesiastica* de fray Luis de Granada y las retóricas cristianas del Siglo de Oro”, in A.A.: 1993, 265-302.
- MITXELENA, K. (1954): “Axular. Gero”, *Egan* 2-4, 39-41 (Orain P. Altunaren edizioan: Mitxelena, Koldo, 1988, *Euskal Idazlan Guztiak II*, Donostia, Etor, 39-42).
- (1960): *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid, Ediciones Minotauro.

- (1981): “Euskal Literaturaren kondairarako oinarriak” in A.A.: *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- NARBAITZ, P. (1956): “Axularr-en egunean elizako predikua”, *Gure Heria*, 225 or.
- OLMEDO, Félix G. (1960) “Prólogo”, in TERRONES DEL CAÑO: *Instrucción de Predicadores*, Madrid, Espasa-Calpe, IX-CLVI or.
- REU, Martine de (1993): “Divers chemins pour étudier un sermon”, in Hammesse, J. & Hermand, X. (ed.): *De l'homélie au sermon. Histoire de la prédication médiévale*, Louvaine-la Neuve, Université Catholique, 331-340.
- URKIZU, P. (1989): “Jon Juaristi, Literatura Vasca, «Historia Crítica de la Literatura Hispánica» 29, (Taurus, Madrid 1987)”, *Hegats, Literatur aldizkaria* 1, 1989, 19-24.

## APHEZAC SOLDADO

Arnaud Abbadie\*  
Bayonne, imprimerie Lasserre  
1890

*Nortasun handiko gizona izan omen zen idazle bat hobeki ezagutzeagatik, eta gaiak duen gaurkotasunarengatik, iduritu zaigu, interesgarri izanen zela, gaur Euskaltzaindiaren liburutegian baizik aurkitu ahal izan ez dugun liburuxka honen berrargitaratzea Euskera agerkarian.*

Deputatuec campoa hartu baino lehen, lege berri bat ekharri dute; aiticineco guciac baino tzarragoa; ez baita guti erraitea. Ecen gure buruzagi egon diren lau urthez, egin dute gisacoric!

Lege hori aspaldian aiphu cen; bainan hambat da, asco burutaric gaizki egina, nun ecin helduz egon baita luzaz bidean. Azkenecotz, horra nun bururatu den, nahiz gizon entzun guciac bere contra dituen.

Gauza irrigarria eta Frantcian baicic gerthatcen ez dena! Armadari doacon lege hori, egina izan da abocatu, medicu eta bertce gizon soldadogoaco gauzac ez dazkitzaten batzue; nahiz armadaco aicindarietatic gutiz gehienec, eta cerbeit dakiten guciac dioten legea guciz gaizki egina dela eta galcorra.

Ez da latina jakin behar ikhusteco, edo zoin gaucetan, jakintsunen erranetic behar duela joan chuchen ibili nahi duenac. Zapataintzan ikhasteco zapatainen ganat joaiten ohi dela, eta laborantzan ikhasteco, laborarien ganat.

Bainan badira gizonac, eta Frantzia orai halacoz bethea da uste baitute orotan jakintsun direla, dakitelacotz edo zoin gaucen gainean solas eta erasia luce

---

\* Arnaud Abbadie (1843-1916), Nafarroa Behereko Bitiriñeko baserri batean sortu zen eta Baionan apeztu ondoan, Larresoroko seminarioan irakasle sartu, 1880ean. Gerxeago Larresoroko buruzagi ezarri zuten eta bururaino itzal handia izan zuen. Berak filosofia eta lurgintza erakasten zituela, euskara ere landu zuen ederki, bai *Eskualduna* astekarian, bai *Fedearen Propagazioneko* aldizkarian. Haren prediku bat ere argitaratu zuen *Hazparneko Kalbarioa* deitu liburuak, 1892an. Manex Hiriart-Urruty, Blaise Adéma eta Jean Barbier, besteak beste, izan zituen irakasle lagun. Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre, Jules Moulier Oxobi, Laurent Apesteguy eta Jean Elissalde Zerbitzari belazako idazle bikainak, haren ikasle izan ziren. Ikus "Les meilleures pages de Mgr Saint-Pierre", 33. orr. eta "J. Etxepare mirikuaren idazlanak" I *Euskal Gaiak*, 177-181. orr.

egiten. Ahanzten zaiote anhitz mintzatzea ez dela bethi, ez eta ere ardura, chuchen mintzatzea.

Egia dena da, aiphu dugun legea holache egina izan baita. Ez citeken bertzela izan gauzac buru buztanca diren lekhuuan, eta gerlaco ministro, erran nahi baita armada guciaren aiticndari den lekhuuan ez jeneral omen handitaco zombeit, bainan bai burdina urtzale bat. Nolaco buru, halaco solas, eta obra. Lege hori ez dut nolacoa den burutic buru ikhertu nahi. Hemen bilhatcen dugun gauza da, APHECEZ bezaimbatean cer dion.

Lege berri horrec badakharke beraz, heldu den urthetic goiti, aphez geiec beharko dutela bertce guciec bezala, eta heiekin batean soldadogoa egin; bai eta ere Aphecec, zoinec beren adinaren arabera. Bizkitartean legeac ez ditu aphezgeiac soldado igortcen, bertceac bezala, hirur urthez. Legeegileec ikhusi dukete, nahiz ciren lausoac, baldin hirur urthez baztertuac balira apheztasunera heltceco jakin behar dituzten gaucetaric, guciec ikhasiac gogotic gal litzazketela, eta anhitcec gal lezaketela berriz hasteco gogoac; bertce alde batetaric, jakinez aiticnetic cer behar zacoten bidean gerthatu, gutiac litezkela apheztasunerat buruz abia, edo batere ez, eta horrela laster agortua litekela aphecen jingia, eta galdua erlijionea.

Horra certaco urthe batentzat bakharric dituzten aphezgeiac soldado galdatcen. Ez uste ukhan bizkitartean erlijioneari calte egin beldurrez dutela gauza hola moldatu. Lege horren egileec, oroc dakitena da, eta berec ecin dezakete ukha, hain da gauza ageria, erlijionearen gal araztea baicic ez dute gogoan.

Eta bertce asco burutaric dituen estacuruen gatic ekharri badute halere legea, erlijioneari calte egiteco guticiac ditu aiticina joan araci, Frantciari berari calte handiagoa eginen bacioten ere.

Hain da gauza hori egia, nun deputatuec legean eman baitzuten aphezgeiac, bertceac bezala, soldado egonen cirela hirur urthe osoac. Senaturrec dute hautsi alde hortaric deputatuec egin legea eta urthe bakhar batetara ekharri aphezgeien soldadogoa: ez erlijionearen amodioz, bainan bai jendea sobera icituco zutela beldurrez.

Izan ere da aharra bat gauza horren gainetic, gure lege-egile zaharren eta gazteen artean. Zombeit egunez legea lurrean egon da galtcecotan, Elizaren etsaiez campo, nehorc ez baitcion dolu handiric egiten.

Bainan gobernamentuco gizonec, nola baitira erlijionearen etsaietaric, eraiki izan dute, eta heiec galdaturic, deputatuec onhartu ukhan dute den bezala, nahiz ez citzacoten erlijionearentzat aski caltecorra: "Baldin ez badugu aldi huntaric hiltcen ahal, eman dezogun bederen burutic behera casca bat" dute egin beren baithan. Eta horra nola ekharria izan den legea; ahala duketen bezain sarri gaichtoago bat eginen dute. Oraicoan ecinac begiratu ditu tzarragoaren egitetic.



Lege horren arabera, aphezgeiac urthe bat soldado egon ondoan itzulico ahal dira, baldin badute gogoa, Semenariorat ikhastecoen ikhastera. Bainan hogoi eta bortz urtheac bethe gabetari ez badira Ordena Sainduetan sarthuac, lege berac berriz hatcemaiten ditu eta beharco dituzte berehala gibelera utci soldadogoaco bi urtheac egin.

Ordenetan sarthuac badira ez dukete bi urthe horien egiteric, bainan apheztu eta ere beharco dituzte egin, bertceec bezala, zoin bere aldian, hogoi eta zortci egunac; eta hori berrogoi eta bortz urtheac bethe artean.

Egia da gerla denboran, lege horren arabera, aphezgeiac eta aphezac, colpatuen altchatcen eta erien arthatcen ar aracico dituztela, bainan gerlaco ministroari bertzela iduri bazaio, egin dezake heietaz nahi duena.

Eta egiazki erien arthaceco baicic ez badira, certaco bada urthe bat osoa ar arazten dituzte harmen erabiltcen ikhasten?

Den bezala lege horren ezagutceco behar da oraino buruan hartu bertce gauza bat.

Apheztu ondoan norbeit ez bada erretor edo bicari icendatua, hura legeac deithuco du lehenago egin ez dituen bi urtheen, soldado bezala, egitera. Horrela escola egiten ari diren aphezac, misionestac, comentuetacoac, bortchatuac izanen dira, apheztu ondoan, bi urtherentzat soldado joaitera. Horra bada nolacoa den lege berria, dituen alderdi gaichtoac batere emendatu ez eta alderdi onac batere gorde gabetari; horra ere norc eta cer chedetan ekharria izan den. Ez da asmu handi bat behar ikhusteco deus guti daucala onic; halere bilhatuco dugu elgarrekin cer begiz behar duen giristino batec ikhusi lege hori, eta cer dioten zor heldu diren botz-emaiteetan, lege horren aldeco gucier.

Legearen aldecoec diote:

*“Aphezac soldado; certaco ez? Bertceac ere hala dira.”*

Bai bertce guciac soldado behar dira, lege berriaren arabera; eta damu han-diric hori! Ageri den gauza da soldadoac behar direla. Heier diotegu zor barneco eta campoco bakea. Bainan gazteria gucia soldado izan dadin cer langaltceac, cer diru-chahutceac, eta heietari anhitcentzat, cer ondorio makhurrac! Halere, bertceac soldado direlacotz, aphezec ere behar othe dute soldado izan? Nic diot, ez. Eta huna certaco: “Aphezac aphez baitira eta bertzeac ez.”

*“Cer egiten du horrec? Aphezac ez othe dira gizon, bertceac bezala? Ez othe dute heiec ere beren sor-lekhua maithatu behar eta ordua denean lagundu?”*

Erran gabe doa aphezec, bertce gizonec bezala, beren sor-lekhuari zor diotela amodioa, eta laguntza. Bainan bada hortaraco bide bat baino gehiago. Aithor dut soldadogoa heietari bat dela. Ez ordean bakharra. Aphezac bere sorlekhuari amodio hori eracusten dio eta laguntza hori emaiten erlijionea begi-

ratuz, maitha araciz, zoina gabe gizon bilkura batentzat, populu batentzat ez baita bake onic ez iraupenic.

*“Bainan legeac ekhartcen du aphezac soldado izan diten. Eta nor bederac bere herrico legea behar du begiratu.”*

Nolacoa den! Bada lege eta lege, nola baita solas eta solas, egitate eta egitate. Erran nahi baita, gauza horietan gucietan badirela chuchenac eta makhurac, onac eta tzarrac. Bertce alde oroc dakitena da legeac ez duela manatecco ez debecatcecco escuric, ez zaiola beraz deusic zor, ez dela egiatzki legea, nun ez den zucena eta ongirat deramana.

*“Ez othe da hemen aiphu dugun legea zucena eta behar bezalacoa?”*

Galde horri ihardetsi gabetarik behar da orhoitu badirela legeac Jaincoac ekharriac eta legeac gizonac ekharriac. Nehorc ukha ez dezakena da Jaincoac debecatzen dituen gauzac ez ditzazkela gizonac mana, ez eta Jaincoac manatzen dituenac gizonac debeca. Hori ceren den Jaincoa ooren nausia eta guczucena, gizona aldiz osoki Jaincoaren escucoa eta berenaz bide chuchenetic errechki ceihartcen dena, bai argia duelacotz escas, bai nahia makhur.

*“Aithor ditut horiec oro. Bainan ez zaut iduri aphecen soldadogoaco legehunec Jaincoaren legea hausten duela.”*

Baditeke ez zauzun iduri. Beha ezazu hobeki, eta orai iduri ez zauzun bezala direla gauzac ikhusico duzu.

Ez othe da Jaincoac berac fincatua lur huntan gure erlijione Saindua? Ez othe du nahi Jaincoac erlijione horrec iraun dezan, gizonac diraueno? Norc ez du ikhusten orai, erlijioneac ez dezakela iraun, nun ez den aphezic? Aphezac direnaz geroz Jaincoac berac erlijionearen eracastle eta begirale eman dituenac? Eta nola erlijionea argi bezala indar baita, bai behar ere, norc ez daki aphecec dutela bakharric erlijioneac dakharzcan indarren eta lokharrien eratchikitcecco ahala?

Aphecic gabe beraz ez da erlijioneric, eta Jaincoac nahi du izan dadin erlijionea. Beraz, aphecen gal araztera edo heien zucenen ttipitcera doan lege bat, ageri da Jaincoaren nahiaren haustera doala, ordu beretic zucen gabea dela, eta halaco legeac gure ganic deusen ardiesteco escuric ez duela.

*“Ecin ukha ditezken solasac dira horiec; edo behar da ukhatu Jaincoa eta harec eman erlijionea. Bainan aphezac soldado nahi dituen legea erlijionearen galgarri othe da?”*

Bai, ene adiskidea, eta ez guti. Har dezagun lehenic lege hori aphecet buruz; aphezgeiac aiphatuco ditugu beren aldian. Zaharrac aiticnean! zucen da. Aithortuco derautazu Elizari dagola erraitea cer den harentzat on eta cer galcor. Hortacotz badu, bere aiticindarien zuhurtciac campo, Izpiritua Sainduaren argia. Huna bada nun Elizac debecatcen dioten aphecet gerlan artea, odolaren ichur-

tea. Gerthatu direnean aphez buru beroac debecu hori ahantciric gerlan ari izan direnac, gaztiguz, gabetuac izan dira dembora batentzat meza sailduaz eta aphezatasuneco bertce ahalez. Eta norbeitec gerlan odola ichuri ondoan, nahi badu, gerthatcen den bezala, aphez bilhacatu, harec behar du hortacotz Aita Sainduaren ganic baimen bereci bat ardietsi.

Hambat du Elizac higuin odola! Haren aphecec ez dute bertce odollic ichuri behar ecen ez Salbazalearena aldarean, eta hura, gizon gucien, bai adiskideen bai etsaien, bai bicien bai hilen onetan! Beraz ez diteke ukha aphezac soldado nahi dituen legeac Elizaren legea, Jaincoaren legea, ecen batetara doa, hausten duela erdiz erdi.

*“Zaude emeki! Jauci bat egiten duzula iduri zaut hor.”*

Ez agian! Jaucia laburtua dut. Eta hemen laburric ere ez nuke egin nahi. Ecen ene chedea da ez zure hatcemaitea, bainan bai argitcea: Dugun beraz ikhus, nun nitzauzun lasterregi abiatu, eta certan dudan, zure ustez, jauci egin.

*“Huna: Aphecer Elizac debecatcen diotena da, ez soldadogoa, bainan bai gerla. Eta lege berri hunec, berac dionaren arabera, ez ditu aphezac gerlarat joan araci nahi. Eri arthatceco ditezke han, behar orduan. Ez du bada lege hunec hausten bertcea.”*

Ederki mintzo cira, eta hitcez bederen gauzac hola direla aithor dut. Bainan hitza sinhetsi behar othe da, obrac bertzelaco direnean? Dio lege berriac, aphezec ez duketela gerlan artceric. Hori hola bada, certaco behar dute gerlan ikhasi, certaco behar dira soldado ibili, harmac escuetan? Edo legeac ez dio egia, aphezac ez direla gerlan arico erranez, edo zorokeria handi bat egiten du, gerlan ari behar ez direnac harmen erabiltcen ikhastera bortchatuz.

Bakhotchac errechki ikhusten du bi gauza horiec zoin guti doatcin elgarrekin, eta erranac aski dira, eracusteco lege berria zucenic ez itchuratic gabea dela aphecez bezaimbatean, Elizaren legeac eta zucenic hasuten dituela.

*“Gauzac hola direnaz geroz, aithor dut, aphecer buruz, lege berri horrec hausten duela Elizaren legea, giristino batec ecin dezakela beraz onhar. Bainan aphezgeiac bederen ez ditu estaltcen Elizaren lege horrec, eta aphezgeia soldado igorritz ez du lege berriac nehoren zucenic hausten.”*

Goacen emeki, elgar adituz; ez dezagun aldian sobera pusca handia har; ecin gindezake irets.

Lehembizicoric gerlan artcea aphecer debecatcen dioten legea hedatcen da Ordena Sainduetan diren aphezgeietaradino. Beraz hauc ere ecin ditzazke zucenez hatceman lege berri horrec. Goragoco lege batec debecatcen diotenz geroz Ordenetan direner gerla, nehore ez du heien soldado igortceco escuric. Gauza horri buruz, aphecen herrunean dira Ordena Sainduetan sartuac diren guciac.

*“Mintza beraz bertceez. Heiec ditu ere legeac, urthe batentzat, soldado igortcen. Hortan bederen ez deia lege berria bere zucen osoan? Iduri zaut nombeit finca ordu duela!”*

Bai mintza giten Ordenetan ez diren aphezgei gazteez. Bainan ez ahantz orai artean eracutsi duguna. Nola aiphu dugun legea zucenez campo den, bai aphecen, bai Ordenetan diren aphezgeien eretcean, hausten duelacotz Elizaren lege bat eta Jaincoac oso nahi duen erlijioneari calte handia egiten, aphezac beren egimbideetaric makhurtuz arimen gaitcetan.

Orai, nahiz gauza errech litzaukedan, ez dut bilhatuco lege hori ez denez urrunago hedatcen; aphezgei guciac ez dituen ez estaltcen. Ez dut bilhatu nahi ere soldadoen artean denez aphecen lekhu; aphec badoacotenez soldadoen bici moldea. Ez dugu horren jakitearen beharric ikhusteco osoki gaichtoa dela eta zucen gabea, aphezgei gazteac berac soldado igortcen dituen legea.

Erran dugun bezala, aphecic gabe ez bada erlijioneric, ez da gutiago egia, aphezgeic gabe ecin ditekela luzaz izan aphezic. Bide lucea da apheztasunera deramana. Chede hartarat buruz ari denac behar ditu bildu, emeki emeki, harec galdatcen dituen argiac, eta hartu hari doazcon ara edo egitate onac.

Cerc ere bada trabatcen baititu aphezgeiac beren bidean, edo bide hartaric baititu bazter arazten, harec, izari berean calte egiten dio erlijioneari, gerocotzat aphecez gabetuz.

Norc dezake orai ukha aphezgeiac soldado nahi dituen legeac, trabatcen dituela oro beren bidean, anhitzac behin hartu bidetic bethicotz makhur aracico dituela, eta harec gibelatua gatic burura heltcen direnetaric anhitcer ere calte bat ez ttipia eginen diotela.

*“Barkha! Ez zaut eni holacoric iduri. Nola bada hori?”*

Diot lehenic, anhitz aphezgeiec soldadogoan galduco dutela aphezteco go-goa. Ecen ez dute soldadoen artean ardurenic ikhusico eta adituco heien beren chedetic makhur arazteco denic baicic. Ez dut belztu ez mendratu nahi nic Frantses soldadoa. Bainan oroc dakitena da baldin eta badu bertce alderdi eder asco, erlijione guti duela eta, guciz direnean elgarretara bilduac, handia dela haren solasen eta egitateen lizuntasuna. Galda soldado ibili direner.

Duela zombeit egun deputatu batec, bere lagun gucien aiticinean, erraiten zuen goraki, Frantses soldadoac ecin dezakela khurutcearen seinhalea edo ot-hoitza bat egin bere lagun jakinera, nun ez den berehala irri eta trufaz gaindica ithoa, eta anhitcetan bertzela gaizki erabilia. Deputatu harec gizon gazte bat aiphatcen zuen horrelaco egitateen ondorioz burua osoki galdu zuena! Ichiltcen niz hortan, ahalge nizalacotz Frantses soldado maitea hortaratua dela erraiteaz, eta bihotzac sobera min egiten baitaut orhoituz gure gazteria guciac, hemendic goiti, hirur urthe beharco dituela escola galgarri hortan ereman.

Gehiago jakin nahi duenac galda dezotela soldado izan direner: ikhusico du nic diotana gauza gutia dela egiaren aldean. Nola iraun erlijioneco urhastetan haimbertce trufaren erdian, nola egon garbi halaco ahapaldi eta egitate cikhinen artean! Apezgeiac, bertceac bezala, gazte dira, eta gaizkirat suhar. Ageri da beraz anhitcec ez luketela aiphatu traba horier ihardokitceco indarric, orhoituz bereciki gaichtoec, ceren diren aphezgei, heien galtcecotan ahal guciac eginen dituztela.

*“Baditeke hori. Bainan ez zaut iduri erlijionearentzat calte handi bat litekela. Zombeit galtcen badira, irauten dutenac hobeac ditezke eta azcarra-goa beren hatcean.”*

Bi edo hirur gauza badauzca zure solas horrec.

Lehenic anhitz aphezgeiec soldadogoan aphezteco gogoa galduco dutela. Aithor hori orhoit atchikico dut; ez ahantz zuc ere.

Bigarrenecoric zombeit galduric ere, ez ditekela erlijionearentzat damu handi bat, eta azkenecotz soldadogoatic semenariorat itzultcen direnac azcarrago ditezcela. Ez cira bakharra solas horren errailea, eta zuc bezala dauca-tenetic anhitcec diote lege horrec ongi handia eginen diola erlijioneari, garbituco duela aphecen casta, hari esker balio guticoac bazterrerat emanac izanen direla, eta bertceac ongian fincatuac. Eskerrac eman behar gindiozkite, heien arabera, ceren egin deraucuten lege miragarri hori. Ez dakit alegiaz mintzo direnez ala cinez. Nic diotana da badauzkela ichilic, ez badute deus hoberic erraiteco.

Cer erran cindezakete artzain batez, zoinac bere arthaldea utz bailezake, edo ere berac ereman bazca tzar batzuen erdira, diolaric: “Ardi mendreac lehertuco zauzkit, bainan zailagoac azcartuco dira, eta, ororen buru, irabacitan niteke.” Ihardets cindezacote: “Zozo handia! Bai tcharrac lehertuco zauzkit, bainan ere onac tchartuco, eta hola joanez, laster, arthaldearen orde geldituco zauc bakharric hire zakhurra.”

Barkha artzain eta laborari maiteac! Badakit ez dela zuen artean nic aiphatu dudanaren parecoric, eta zombeit dembora huntan labor badituzue mozkinac, ez dela hori gerthatcen zucc alhagia onac bilhatu faltaz.

Haurrac eta jende gazteac, bildots eta ardien pareco dira: guciac mimbera eta ongi begiratuac ez badira, laster galduac.

Ur tzarren edateac, belhar gaichtoen jastatceac, ez diote azcarrener ere calteric baicic egiten.

Badakizue hori, aita amac, zuen haurrez bezaimbatean, eta horra ceren gatic daucazuen begia erne heien gainean. Norc sinhets aracico derautzuete, heietaric bat edo bertcea galduric ere, ez dela calte bat hain handia? Norc sinhets aracico derautzuete, on badira, hobeago bilhacatuco direla gaichtoen artean ibiliz, gaizkia ikhusiz eta adituz?

Bada adin bat nun nor bedera ez baititeke gaizkitic begira hartaric urrun egonez baicic, eta osoki lerratcen ez direnen beren baithan gaizkiaren luzaz ikhusteac uzten ohi ditu haci galgarri batzu.

Horra certaco Elizac, bere haur bereciki maiteac, aphezgeiac, begiratcen dituen luzaz ikhugarrri eta solas galgarrietaric urrun. Horra certaco aphezgeien soldadogoaco legeaz bezaimbatean aphezpicuec eta Aita Sainduac berac goraki dioten ez ditekela deus erlijionearentzat galgarriagoric. Lege hori aiphatua izan den lekhu gucietan Elizaco buruzagiec ahal guciac egin dituzte haren bazterrat eman arazteco.

Hori ceren ikhusten baitute aphezgeietaric anhitzac galduco direla soldadogoan eta semenariorat itzultcen direnec berec hartuco eta begiratuco dituztela, osoki gaizkiradino heldu gabetaric, asco ara eta egitate aphezari joan ez zazconac. Nahiago dut nic sinhetsi heien errana, ecen ez eta certaz mintzo diren jakin gabetaric, bethi ez dakitena dariotenen solasac.

*“Nic ere bai. Iduri zaut aphecen soldadogoaco legeari ikhertu dazcogula alderdi guciac. Hatceman diogu tzarra frango, onic batere ez. Othe du oraino bertce erraitecoric? Ecen on da oroc jakin dezaten zoin den galgarria, merezi duen bezala dezaten gatic oroc higuin.”*

Bai bada azken hitz bat bertceen gainera athera nahi duena. Erran dezagun laburzki. Jadanic sobera luze joanac gira.

Lege horrec ez ditu bakharric aphezgeietaric anhitzac galduco eta bertce asco macaturic eta gutiago edo gehiago thonaturic utcico, bainan aphezgeien ithurriaren beraren agortcera doa, irauten duen ber, eta erlijionearen osoki galtcera. Ecen nor oldartuco da bere haurraren emaitera aphezteco urhatsean, dakielaric aiticnetic soldado joan beharco duela.

*“Cer bada? Erran nahi duzuia soldadogoaren beldurrez aphez arazten dituztela etchecoec beren haurrac, eta beldur horrec deramatcila haurrac berac semenarioetarat?”*

Nic ez dut holacoric erraiten, bainan zuri nauzun erran araci nahi anhitceci dioten zorokeria hori. Legearen alde erran citezken guciac sudurrera eman dauzkidatzu orai artean; ez nuken nahi estacuru hau ahantz cindezan, zuri ihardestearekin batean argi ditzadan gatic bertce anhitz.

Diotenec aphezgeiac soldadogoaren beldurrez doatcila semenarioetarat, ez dakite cer derasaten: ez dakite zoin den dorphea eta lucea semenarioeco bicia. Nehorc ez lezake han bururadino iraun baldin ez balu soldadogoaren beldurrac bertzalaco estecaric. Sinhesten ez duena jin dadila jastatcera. Certaco dira hain gutiac heldu? Bertce alde, soldadogoari ihes egiteco badira bide errechagoac. Itsasoa bethi zabalic dago. Ez diot bertce arraposturic eman nahi itchuraric ez duen solas bati. Etchecoez bezainbatean, huma nola lege berriac gibelatuco dituen beren haurren aphezteco bidean ezartcetic edo ere laguntcetic, berec gal-

datcen dutelari: Lanac ditu haur baten aphezteac; hamalau edo hamabortz urte-  
hez escoletan haren atchikitceac. Miragarri zauzkit, bereciki oraico denbora  
chuhurrean, lan horri lotceko barnea duten aita ama giristinoac.

Bainan berenaz gauza hain neke bada, cer diteke lege berri hunen ondotic?  
Huni esker beldur handi icaiteco da gizon gazteac, bere escoletaric hiruretaric  
biac egin ondoan, gal dezan, soldadogoan, aphezteco gogoa, ukho egin dezan  
bere chedeari, eta horrela galduac izan diten etchecoentzat ordu arteco nekeac  
eta diru chahutceac.

Gutiac ditezke beraz, anhitz gutiac, beren haurrac apheztera lagundu na-  
hico dituzten burhasoac, eta jadanic sobera baicic gutitua ez den aphecen hacia  
gutituco da oraino.

Bazakiten ongi hori legearen egileec, eta zakitelakotz egin dute; heien che-  
dea baita erlijionearen gal araztea. Guc ere badakigu orai nolacoa den; eta ba-  
dakigu giristino batec nehola ere ecin dezoketela lege horren aldecoer escuric  
eman; giristinoec beren indar guciac behar dituztela bildu lege galgarri horren  
hausteco, eta ez dutela epheric hartu behar nun ez duten lurrerat aurdiki.





**AHOSKERA**



## AHOSKERA LANTALDEAREN ERRENDAPEN TXOSTENA (1)

*Miren Lourdes Oñederra*

### 0. Lantaldearen nondik-norakoak

Txosten honen helburu da Ahoskera Azpibatzaordearen Lantaldeak, 1995eko akabuan abiatu zenetik hona, egin duenaren berri ematea. Ahoskera Batzaordearen 1994ko txosten hartan bezala, hemen ere egindakoaren baldintza, arrazoi eta neurriak agertzen saiatuko naiz (2).

Esan genezake Lantaldearen lanak bi aro nagusi izan dituela. Batetik, 1995-1996 eta 1996-1997 ikasturteetan 1994an Leioako Biltzarrean plazaratu arau-proposamenen azterketa teoriko eta praktikoa egin zen lantaldekideen artean (aintzat hartu behar da irakaskuntza eta komunikabideetako ordezkari dagola osatuta taldea). Ikasturte honetan, 1997ko azken hiruhilabetekean zehar, Lantaldetik kanporako mintegiei ekin diegu, oraingoz Nafarroako I.B.I.n eta Donostia, Bilbo eta Gasteizko IRALEn egin direlarik.

Gure iritzian, hemendik aurrerako Lantaldearen egitekoak lirateke datorren iraileko Ahoskera Jardunaldien prestaketa eta mintegiak komunikabideetara zein Iparraldera zabaltzea, Euskaltzaindiak asmo horiek ontzat ematen baditu.

### 1. Lantaldearen emaitzez, alde zurretikako gogoeta orokor batzuk

Lan praktikoa, enpirikoa, esperimentalaren ezaugarri da moteltasuna, kon-tatzeko berri gutxi eta poliki sortzen dela, ondorio dizitratzurik apenas dagoela, alegia 1994kotik aldaketak ez direla nabarmenegi.

Gogoeta horren osagarri eta ozen esan beharrekoa da saiatu garelara ondratu izaten eta ez gure ustea eta nahia nola edo hala sartzen, saiatu gara hizkuntza-ren erabilera errealean zer gertatzen den entzuten eta aztertzen. Gure beste

---

(1) Donostian, 1998.I.30ean aurkeztua Euskaltzainen Osoko bilkuran. Nire esker zintzoena urteotan, bileraz-bilerara, ahoskeraren korapiloez gehiago ikasteko indar eta gogo eman didaten lantaldekideei. P. Etxeberria, A. Kintana, J. Urrutia, J. Aurre, J. C. Hernández, J. Kortabarria eta I. Etxebarriaren lan eta denborei asko zor diete lerro hauek.

(2) Ikus testua Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrari eskainiriko *Eusker*a aldizkariaren alean (*Eusker*a 39 (2. aldia), 1589-1605). Hemendik aurrera, Ahoskera Batzaordearen Txosten hori aipatzeko, ABT laburdura erabiliko da.

ahalegin inportantea izan da talde-lanaren bidez komunikazio-zubiak eraikitzea akademiako (*sensu lato*) araugile eta arau-erabiltzaileen artean, azkenon jarrera pasiboa, kontsumitzailearena hausten saiatu garelarik mintegi eta bileretan. Zaila da. Besterik gabe, aginduak edo aholkuak ematea baino zailago behintzat. Lehen urtea zenbait inertzia hausten joan zitzaigula uste dut neurri handian. Garrantzitsu iruditu zait gaur hau hemen esatea ahoskeraren arautzearekin datorrigunaren neurria eman dezakeelako.

Baten batek galdutako balu zertarako sartu nahi izan dugun zailtasun horietan, gogoraziko nioke 1994ko aurkezpenaren azkena (ABT, 1604-1605). Onartu zuen Euskaltzaindiarekiko zorra eta gure buruarekiko zintzotasuna izan ditugu gidari. Izan ere, orduko gure usteen eta ondorioen gainean ekin zion lanari Lantaldeak, gogoan harturik:

a) Ahoskera ezin dela idatzia bezala arautu, baina horretaz luze aritu ginen 1994koan (ikus ABT, 1594 orrialdekoa, besteak beste).

b) Araugintzaren arrakasta eta baita hizkuntzari egin diezaiokeen mesedekaltea ere zuzenean daudela loturik arauen nolakotasun eta egokitasunarekin.

Egokitasun eta nolakotasun horiek, ahozkoan, bi aingura dituzte: hizkera-maila eta prosodia. Hizkera mailak ulertu eta landu ahal izateko prosodia (ez azentua bakarrik) aintzat hartzea ezinbesteko da, prosodia delako hizketa eta hizkuntzaren arteko muga eta zubia den errealitatea. Hizketa, ahoskera arautzean arautu nahi den hori, prosodiaz jantziriko hizkuntza da. Prosodia ezberdinak dira hizkera-maila ezberdinen oinarri eta bide. Oso presente izan dugu hori guztia gure lanetan. Sortzen diren zailtasun didaktikoak izan dira gure bilera eta iharduera askoren gai.

## 2. Hizkera-mailak

Gure ustez, Euskaltzaindiari dagokio beste inori baino lehenago eta neurri handi batean, arauekin batera —oso batera edo lehenago, baina, batipat, oso argi— Euskara Batuaren erabilera-esparruak finkatzea (ikus ABT. 1589, 1 oinoharra ere).

Egia da zailtasuna dela hemen ere erraztasuna baino ugariago. Egia da gure arteko maila edo errejistro falta ez dela linguistikoa bakarrik. Euskaraz aritzen garenok gutxi(ago) eta ezagun(ago) gara edo izan gara behintzat. Dudarik gabe orain hizkera jasoa justifikatuko luketen erabilera eremuak gehiago dira eta hiztun klaseak ere ugaltzea indartu beharreko kontua dela esango nuke. Guk aldagarritasunaren aukera linguistikoez arduratu beharko genuke behintzat (3). Hizkera jasorik ez bada, ez da ahoskera arau baturik behar.

(3) Nahasketa handia da: beren euskalkian egiten duten politikariak (irradi elkarrizketa ba-

Alde horretatik Batua, Euskara Batua, oso zaindu beharreko kontzeptua delakoan nago, *bere* onerako (euskalkiak babestu beharraz gehiago hitz egin dela dirudi): Ahoskera Lantaldean ahoskeraren funtzionamendua bideratzeko ezinbesteko izan zaigu Batuaren definizio edo berdefinizioaz jardutea.

Norbaitek esan beharko du Batua euskararen estandarra izatea nahi badugu (hizkera jasoaren euskarri, euskalkien arteko zubi, e.a.), zer den estandarra, nork eta zenbat erabili behar duen; beharbada, gainera, hiztun askori nahikoa zaiela estandarren ezagutza izatea, Batua arrotz ez gertatzea; %100ean erabiltzea nori dagokion (badagokio), e.a. Ahoskera arauak ezin dira hori gabe eman (hemen luzeegi gertatuko litzatekeen ahoskera eta gramatikaren diferentzia garrantzitsua dago arautzeari dagokionean). Hizkera estandarren erabileran-neurri eta -esparruak finkatu aurretik ahoskera arauak eman eta eskatzeak ez lekarke euskal ahoskeraren babesa, izozte eta heriotza baizik.

### 3. Prosodia

Erabiltzaile profesionaleri, eredu moldatzaile eta zabaltzailei dagokie neurri handi batean prosodiaren zaintza. Izan ere, irakasleei, bikoizleei, itzultzaileei, esatariei, antzezleei zuzentzen diegun mezua da: prosodia aintzat hartu behar da kontsonanteak eta bokalak bezainbat, kontsonante eta bokal horiei euskal ahoskera egokia (“sinesgarria”) eman nahi bazaie. Benetako hizketa ez da letraka gertatzen esaldika baizik, laburrena hitz bakarrek esaldia izanik (silaba bakarrekoa daitekeena <hi!> edo <ah!>, <ez> bezalako esaldietan). Ikasi behar dugu eta irakatsi behar dugu, beraz, hitz andanak erritmo, azentu eta entonazio ereduetan txertatzen: benetako esaldi diren hitzak esaten. Bestela, hiztegi-gramatiketarik ateratako hitz hilez betetako esaldi baldarrak ahoskatuko ditugu.

Euskaraz ez dirudi gauzak azentuaren kokalekua aurkitzearekin konponzen direnik. Gero eta zehazkiago bilatu, erantzunak ugaltu eta korapilatu egiten baitira. Gero eta azpisistema gehiago agertzen dituzte agian behar baino gehiago (gure kontu praktikoetarako) entzuten duten makinek. Euskal azentuaren kokalekuaz 1982az geroztik (gogora Azkoitiako Ahoskera Jardunaldiak) gutxienez bagabiltza eta *ad aeternum* ibil gintezke. Ikaskuntza kontuetarako, euskal azentua izan ez duen hiztun berriarentzat edo hizkuntza dotoretu nahian galdu duen zahararentzat, txarra da euskararen azentua oro har: ez da prosodikoki erregular izaten, lexiko-gramatikalki erabat sistematikoa ere ez da eta, denean, sintaktikoki aldarregia da, akustikoki ez da nabarmenegia euskalki askotan (zabalduenetan agian) eta, ziurrenik horrekin lotua dena, aldagai akus-

---

tean, esaterako), irakasle eta euskaltzainak inolako aldaerarik egiten ez dutenak jendaurre ofizialek bazkalondo lasaira. Alderantziz, bestalde, i(ra)kasle asko, intentzio onez beterik, Batuaren dogmak irentsi ditu eta etxekoa inoiz ez erabiltzen saiatzen dira.

tikoak ez dabilta beti (inoiz ez?) batera (inguruko hizkuntzetan baino beregainago direla, esaterako, intentsitatea eta altuera). Honetaz luzeago arituko gara P. Etxeberria eta biok iraileko Ahoskera Jardunaldietan.

Labur esanda, horrek guztiak oharrenaren aldetik iheskor gertatzen den azentua ematen digu: i(ra)kasteko orduan, azentu txarra dugu. Ez dut uste kasualitatea denik zenbat kostatzen zaigun antzematea, makinarik ez baina berria bazuten euskalari zenbaitek ez zegoela esatea eta, batez ere, Batuarekin gertatzen ari dena.

Prosodiako arazoak zintzilik geratu ziren 1994an. Garbi dago eta fonetikarien datu akustikoez ziurtasun hori areagotzen dute (ik. urteotako Gaminde, Gandarias, Hualde eta besteren deskribapenak) euskal azentu-sistemak bat baino gehiago direla. Panorama nahasi horretan, dena den, bada zerbait euskaldun zaharrari oso nabarmen gertatzen zaion banaketa (4), honako multzoetan jaso genezakeena:

a) euskalkiak eta bere sistemak

b) batuak eta bere sistema (esango nuke sistema bat baino areago "tipo" bat dela) (5).

Gertatuaren historia posible bat asmatzen jarrita, aitortu behar dugu gutako askok Batua ikastean egin dugula hizkuntzaren ezagutza formala: ikasi dugu gramatika-arau jakin batzuen bidez egituratzen gure esaldiak eta gero eta lotuago datorkigun hiztegi baten bidez azaltzen gure kontzeptuak. Ahoskerazko arauen ezean letrak, ortografia aurkitu-berria, hartu dugu nolabait gidari.

Horregatik edo bestela, ez dugu gure ahoskera baliatu euskara berria geureganatzeko... ez du norberak berea erabili. Nola, *det* esan beharrean, *dut* esan behar den eta, *neban* esan beharrean *nuen* esan behar den, doble-salto-mortalean, [esta] esaten zuenak [ezda] esaten du, *telefon[ua]* esaten zuenak *telefon[oa]* esaten du eta [estet] → [ezdut] bihurtu da.

Alegia hizkuntza estandartzeko eman arau gramatikalak betetzean, ahoskerari lekua ukatu zaio Batuan. Aldaketa gramatikal hutsak esan nahiko luke [estet]-etik [estut]-era pasatzea, ez gehiago. Nik dakidala, honen aurrean zerbait esan zuen bakarra Txillardegij izan zen.

Prosodiaren kasuan agertzen dira gauzak garbien ziurrenik. Geure hotsak atera eta josteko modua utzi dugu. Batzuek gehiago besteek gutxiago, geure

(4) P. Goenaga irakasleari entzun nion, hitzaldi baten ondorengo eztabaidan, arazoaren formulazio gardena. Azkoitiko Jardunaldietan ere presente zen gogoeta.

(5) Ezaugarri orokorren zerrendan jarri beharko genuke, besteak beste, prosodikoki erregularra dela gehienetan eta fonetikoki —akustikoki (intentsitate eta maiztasunaren aldetik)— monolitikoa beti. Azentu-kokatze erregularra gazteleratikako eredu lexiko zenbaitek hausten dute (cf. *paténteá, konpatíblea, ebidénteá* bezalako ez-paroxitonoak).

doinua utzi dugu. Baina, nola ezin den ebakera gabe hotsik atera, nola ezin den doinurik gabe hitz egin, beste zerbait erabili beharrean aurkitu gara. Azken batean hitz egitea hitzak musikan jartzea baita (David Stampe eta Patricia Doneganen eran esanda). Euskara berriak (batzuentzat beste batzuentzat baino berriago, ezberdinago) doinu berri bat hartu du, forma berriek, forma “h”dunak, “det” edo “dot”en ordezeko “dut” eta “gira”ren ordezeko “gara”k, musika berria ekarri digute: azentu erregularra, prosodia “on” bat, “erraz” bat. Non-nahi entzuten dira <joatén bagára kótkez>, <burúko mína dáwkat> eta antzekoak.

Eredu zabaldu xamarraren ezaugarri orokor dugu itxura trokaiko hori: funtsean azken aurreko silabaren indartze erregular eta nabarmen horietan gauzatzen dena (ikus goragoko 5. oinoharra ezaugarri fonetikoez). Zentzuko dirudi eredu horrek gaztelararen laguntza duela pentsatzeak. Bestalde gogoratu behar da zenbait euskalkitan ere ez dela erabat arrotz (ez naiz zubereraz bakarrik ari, baina joera honetarako bilakaera beteenaren etxeko adibide dugu) eta edozein euskalkitako zenbait hiztunek gutxi-gehiago erabiltzen dutela modu ezberdinetan (6).

Hemen bi aukera ditugu: berritasun prosodiko emankor horri bide eman, gerta dadila, ala saiatu lehengo neurri eta doinuak gordetzen eta estandarra horiekin konpatible egiten. Lantaldeak bigarrenaren alde egin du apustu, pentsatuz prosodia dela gainerakoaren oinarri ahoskeran.

Gure lan eta eztabaiden ondorioen arabera, prosodia da hizkuntza baten fonologia ulertzeko giltza, behar bezala ahoskatzen ikasteko funtsa ezinbestekoa eta normaltze bilakabidean, arautze-egokieran hortik hasi beharbo genuke. Ikusi dugu, esate baterako, hitz neurriak direla ekialdeko euskalkien dipton-gatze ugariagoen oinarri, errazago dela gaztelarazko <z> horzkaria ez egitea esaldia prosodia egokiarekin esaten bada, e.a. Hori ikasgeletara eramateko ariketa bereziak prestatu beharko lirateke eta horien nondik-norakoak asmatzen ere saiatu gara. Nahiko genuke irakaskuntz metodoetan lan egiten dutenekin zenbait gauza eztabaidatzeko aukerak sortzea.

Oraingoz esan dezakeguna da, gure ustez hizkuntzaren prosodiaren ziria erritmoan duela euskarak eta hori behar genukeela ikaskuntzaren ardatz. Erritmoa, metrika sendo eta nabarmena ditu euskarak. Izan ere euskal ahoskeraren bereizgarri oinarrizkoenak ziurrenik erritmoan daude sustraituak. Ziurrenik euskal fonologiak silaba egitura du bizkarrezur eta azentua horrek eskatzen duen erritmoaren menpeko.

Gainera, prosodia esandakoagatik beti bada garrantzizko, ahoskeraren arautzeak areagotu egiten du prosodiaren garrantzia. Ahoskerarekiko sentiberatasuna handitzen du jakinaren gaineko arauak bete beharrak eta horrek ugald

(6) Ez bide da halabehar hutsa prosodia eredu hauen oparotasunean enfasiak (zenbait hiztunek garatuago dituzten kode hiperbolikoak) bat etortzea berritasunekin (hiztun berriak, baina baita ere hiztegi berriak, hizkera-modu berriak hiztun zaharrentzat).

egin ditzake desegokitzat jo ditugun azentu-erak. Beraz arautzeak behar bezalako irakaskuntza eskatuko luke: lehendabizi esaldiaren prosodia, kantua, funtsean erritmoa den horretaz jabetu; gero hor sartu, hor txertatu kontsonante eta bokal kateak.

#### 4. 1994an aurkeztu arau-proposamenen berrikusketa

1993 eta 1994 urteetan Ahoskera Batzordearen lanean ere oso aintzat hartu zen *fortitio* (indartze) / *lenitio* (ahultze) ahoskera fenomenoaren sailkapenarekin jarraitu dugu lanean (7). Orduan bezala, sailkapen horretatik, indartze edo fortitioak hobetsi ditugu, oharmentaren mesedetan gertatzen direnak baitira eta, beraz, arautu nahi den hizkera maila eta erabilera esparruetarako aiposatu. Fortitibo edo indartzaile direlako, uler daiteke guk zaintzea eta hobestea afrikatzeak, herskari hasperendunak, zistukariaren ondorengo ahoskabetzeak, hasperena, hiatoak diptongoen gainetik, e.a. Fortitio dialektologikoki zatituegiak bakarrik baztertu dira orain ere orduan bezala (-iya, ixa, *iza*, bezalakoak).

Horrela, formulazio batzuetan atzera egin behar izan dugu, proposamenak zehaztu eta malgutu (esaterako bokal solteena, [ü] gehituaz) eta zabaldu: goranzko diptongoena (ekialdeko euskalkien prosodiaren eskari), prosodiarekiko zailtasunaren aitormena, eta abar. Hau lanaren zintzotasunaren eta errealtatearen konplexotasunaren seinale da.

Irakaskuntz erraztasunari begira, eskatzen diren hots-bereizkuntzen artean mailak daudela ikusi dugu, hala nola, errazagotik zailagora ordenaturik: r/R (“erran”), s/z (“hasi”/“hazi”), ll/y (“silla”). Halaz ere eta fortitio edo kontrasteen indartzea hizkera zainduaren ezaugarri delako eta oraindik bereizten dituzten hiztunak nahikoak direla berretsirik, Ahoskera batzordeak 1994an aramendatuaren bidetik ezberdintasunei eustea proposatu dugu.

Beti ere hizkuntzaren errealtatea aintzat hartuta, gure arau-proposamenak honela sailkatuko genituzke:

a) aukera bakarra (“ez [t]akit”, “ez[t]u”)

b) aukera zaindua

b.1) gutxienez hizkera maila horretan erabili beharko litzatekeena: “bio-*log[j]ia*” edo hasierako “j” [y] ahoskatzeko gomendioa “jan” bezalako hitzetan; alegia beste hizkera mailatan ere erabil daitezkeenak.

b.2) gehienez hizkera maila horretan erabili beharko litzatekeena, hiztunak bestelako aukerarik duenean bere euskalkian; alegia, gainerako ahoskerak ere

(7) Ikus, zatiketa horren aurkezpenarako, M. Lourdes Oñederra, 1986, “Hizkuntzen fonologia”, *Euskera* XXXI (2), 327-332.



bultzatu beharko lirateke: “ari” [a « i], [ai], [aj]; “edan” [edan], [e « an], [ean]; “esnea” [esnia], [esnie] eta horrelakoak)

c) aukera askotarikoa (euskalkien arabera: esate baterako, palatalizazioa vs. despalatalizazioa; “garaje” edo “erlijio” bezalako hitzetan dauden “j” horiek; <h> ahoskatuak eta isilak, eta abar.

## 5. Mailegu eta hitz-eraketa edo hitz gazteak eta letrarekiko menpekotasuna (euskaldunak irakurle berriak gara)

Eremu honetakoak dira beste batzordeetatik eta kanpotik etorri zaizkigun kezka guztiak. Garbi dago euskal hiztunek (erabiltzaile aktiboek) irakurri eta idazten ez zutenean, euskal fonologia osasuntsuago zela askoz. Saia gaitzen, bada, gauzak bideratzen alfabetizazioaren zalantzarik gabeko abantaila handiei etekina ateratzeak ez dezan hizkuntzaren ahoskera ahuldu. Mendez-mende eta belaunaldiz-belaunaldi hiztunen belarri eta ahoak atondu ditu mailegu, konposatu eta eratorriak euskal hiztegiaren sar zitezen, horrela gure aukera lexikoak zabalduz eta aberastuz.

Orain gauzak konplikatu egin zaizkigu. Gure arbasoen espontaneitatea, bat-batekotasuna, inozentzia galdu-dugu (8). Alde batetik lexikoa zabaltzeko beharra handitu, larritu eta azkartu egin da. Bestetik, gure ziurtasunik eza, gure kultura linguistiko falta dago: dena letretan jarri da, kasurik onenean, batuaren letretan, txarrean, erdarazkoetan (9).

Honek guztiak ahoskera arautu beharra indartzen du. Saiatu gara malgutsunez jokatzeko (hizkuntzatik teorizatzen eta ez gure aurre-irizietatik) eta hizkuntzaren errealitate historikoa (diakronikoa eta sinkronikoa) aintzat hartzen. Hortik emandako erantzunen norabidea. Pentsatzen dugu idazkerak gardentasun morfologikoaren alde egin dezakeela hitz-eraketan (hitz eratorri eta elkartuetan), baina, horrek euskal fonologiaren joeren bortxatzea bultzatzen ez dezan, ahoskera arauak beharrezko direla.

Gure eginahalaren muga jakitun izan beharko genuke, gogoratuz ahoskera dela izaera fisiko tenporala duen hizkuntzaren alderdi bakarra eta berau dela gainerako hizkuntz osagaien iragazki eta gertaleku. Horregatik sortzen dira hitz elkarketa morfologikoan zailtasun fonologikoak, zenbait hitzen hurrenkerak edo berritasunak dakartzan erritmo arazoak, eta abar.

Hori dela-eta, arauak eskatzen ditugu, baina arau malguak eta askotariakoak. Uste dugu arauen formulazioan agertu behar lukeela hizkera zaindurako

(8) Hori, gramatika ikasteko ona izan daiteke, baina batasunerako edo zatiketa ez areagotzeko behintzat; ahoskera bizia izateko, ordea, txarra da oso.

(9) Euskaltzaindiak ere askotan joskera fonologikoaren kontra eta gardentasun morfologikoaren alde egin du (*batipat* > *batik-bat*); ez beti, dena den (*bait* gara > *baikara*). Orain ikasi behar duguna da aukera ortografiko ezberdinak egokiera bakoitzean behar bezala irakurtzen.

artamendatzen dena, baina baita gainerako hizkeretarako egoki diren ahoskeren adibideak ere. Hobe arauak gutxi, errealistak eta praktikoak badira. Horrela eman eta horrela hartzea da kontua, noski.

Zenbaitetan gertatzen da, Euskara Batua aitzakia hartuta, irakasle eta aztertzaile batzuk Euskaltzaindia baino gogorrago eta estuago aritzea. Ahoskeraren kasuan arriskua handiagoa izan liteke, errazagoa baita debekuen bidez suspenditzea ahoskera irakastea baino. Uste dugu arauak behar duten malgutsun eta aniztasunaz formulatzeak azterketetako aitzakia ere kenduko lukeela ikasgeletatik. Irakasleek Euskaltzaindiaren babespean, erabileraren bidez, irakatsi ahal izango lukete ahoskeraren aldagarritasuna.

Beti ere gogoan izan beharko genuke hitz berriak (maileguz etorriak edo elkarketaz sortuak) euskaratzen lagunduko duten arauak lortuko baditugu, arau dinamikoak behar dutela izan: joerak, jomugak, norabideak. Ahoskera bizia arautzeko ez du balio hitz zerrendak emateak. Ezin dugu esan *ez da* [esta] bai, baina *noiz dator* [nojstator] ez... Agian gezurra delako eta hizkuntzaren emaitza posible bat (maiztasun txikiagokoa, noski) debekatzen ari garelako. Kontua da erritmoaren araberako elkartzeko maila, diptongo kontuetan bezala. Hori hizketa-gertakari bakoitzak emango du (cf. *nóiz # datór* (etenaz) vs [nójstator] (batere etenik gabea).

Kontua da *euskaltzinema* (10) bezalakoak ez debekatzea, zaildu ere ez egitea: “pertzepzio” edo “kontsentsua” gehiegi gertatzen zaizkionak berak blokatu du “tz” edo “ts” horietako bat (edo biak), baina guk bide irekiak eskaini behar ditugu, ez hesidunak. Aldakortasuna (mailak) posible egiten duten arauak behar ditugu. Arauek tresna izan behar dute, euskaraz ahoskatzeko trukoak, formula zailak baino areago.

Gainera, ahoskera arauak hizkera zainduagorako joeratzat hartu behar gemituzke eta dinamikoki ulertu: gero eta arau gehiago hobeto bete, gero eta ja-soago gure hizkera (zentzu batean bortxatuago, artifizialago, noski).

Bestela, betiko jokoan eroriko gara, edozein proposamenei aurki dakioke salbuespenen bat. Salbuespenena beti izan da eztabaidagai eta sarritan proposamenen oztopo gelditzaila. Nahikoa da zerbait proposatzea bakarren bat kontrako adibideren batekin ateratzeko. Gure erantzuna litzateke ahoskera joera biziak aurkitu eta hobetsi behar ditugula. Lantaldean hiztunen ahoskerak aztertu ditugu ikusteko zer ordezkatzeko bizirik dagoen eta erabiltzen den. Ez du horrenbeste axola hiztunak beti-beti egiten duen ala hitzen batean huts egiten duen. Beti ere, euskararen ordezkatzeko egitea hobetsi eta bultzatzea proposatzen dugu. Nahikoa ari baitira galtzen erdararen eta idatziaren eraginez. Horregatik bultzatzen dugu, adibidez, afrikatzea “fanzinea” bezalakoetan (“fan-

(10) Nahigabe esan zuen gazte batek irratiko elkarrizketa batean. Garbi dago honelakoak urduritasunaren, argitasun nahiaren, hots baten mihi-mogimendua hurrengoarenarekin tratatzearen eta abarren emaitzak izaten direla. Baina zer bestek osatzen du, bada, hizkuntzaren fonologia?

tzinea”), alegia, inor derrigortu gabe, hobetsi (ahoskeren norabidea euskaraz gutxieneko emankortasuna dutenen ordezkatzteen aldera zuzendu).

## 6. Ondorioak

Esandakoa debeku batean laburbiltzea zilegi bazait, esango nuke gure lanaren ondorio honako hau dela: hitz zerrendarik ez, hitzik ere ez ahoskera arautzeko. Arauak irakasteko orduan, berriz, esaldietan irakatsi, esaldietan hitzegiten baita. Ahoskera esalditan eta ez hitz solteka ikasteak zenbait arazo konponduko edo arinduko dizkigu: ez dira salbuespenez eta euskalkikako aldaerez josiak dauden singular-plural zerrendak ikasi beharko, ezta azenturik gabeko euskal hitzen zerrendak ere, galdera zuzenen entonazioz esaten diren galdera txertatuen arazoa ere ez legoke aparte, e.a. Alegia, funtsean, prosodia ikasten da eta prosodia ongi bereganatu duena hobeto moldatuko da behar bezalako kontsonanteak, bokalak eta kontsonante-bokal kateak ahoskatzeko.

Zaila da. Dударik gabe. Baina saiatzeak merezi duelakoan gaude. Orain artekoa ikusi dugu. Ez dut uste bakarrik geldituko nintzatekeenik esango banu orain arte proposatu diren araubidezko azentu irakasbideek ez dutela gauza askorik lortu. Azentu i(ra)kaslerik onenak musikari onak, belarri ona eta pazientzi handia duten irakasle, andereño, kantari, teatro-jendea da.

Ahoskera behar bezala arautuko badugu, dena den, hemen ez da inor libratzen lan berrietatik. Ahoskera zaindu beharrak dakar orain arte ikastekoa izan ez den alorrean ere ikasi beharra eta asko dugu denok elkarrengandik ikasteko: euskaldun zaharrek emango dute eredu prosodikoa, kantua, doinua, erritmoa. Euskaldun berriek erakutsiko digute disziplina pixka bat izaten eta, “arraro” egiten bazaigu ere, *horiek* ‘r’ eta guzti ahoskatu behar dugula eta hobe dela *jan* aditzaren lehen kontsonantea ez ahoskatzea gaztelerazko *jamón* hitzaren lehenengoa bezala euskaldun guztientzako mikrofono aurreko saio batean, alegia euskara estandar batua erabili nahi dugunean. Horrelako eginahalak, alegia ahoskerarekin ahaleginak egitea, bertsolariak ezagutzen duten abildade hori (silaba bat gehitzeko egiten dituzten diptongo haustea edo bokal luzatzeak, *horiek* hiru silabakoa izan dadin “gordetzen” duten “r” hori, e.a.). Zergatik ez besteok? Kontua, hemen ere, neurrira iristea da. Bakoitzak bere eginbeharrak eskatzen dionera iristen saiatu beharko du eta gehiago edo gutxiago ere ez egi-ten (11).

Azkenik: zentzuzko izaten saiatu gara: “jan” eta “garaje” ez dira gauza bera, “dialektolo[g]ia” zaila bada, areago “dialektolo[g]ikoki”. Hizkuntzaren errealitatearekiko begirunea ez galtzen ahalegindu gara, baina ezer ez daitekeela egin dion derrotismorik gabe. Ahoskera neurri batean lotzen ez bada,

(11) Alde bietatik zaindu beharreko neurriarena azpimarkatu behar da hemen: ez gaitzen ahoskera bakarraren tentazioan eror. Ikus goragoko 3. oinoharra.

(horrek komunikabide eta irakaskuntzaren aldetik izan litzakeen arazoak aparte) euskalkien ugaltze, bereizte eta erdaratzea azkartu eta indartzea datorrigu. Hortik ahoskeraren zatirik berezien, propioen, funtsezkoen ziurrenik "ahoskeraren", harrapagaitzen eta arautezinen den prosodiari eman diogun garrantzia.

**BERRIAK**



**BILBAO BIZKAIA KUTXA-R.A.L.V. /  
EUSKALTZAINDIA: *LITERATURA SARIAK***





## IPUINAK ETA BERTSOAK 1996

Bilbo, 1998-05-22

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

1996an Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak deitu zuten Resurrección Maria Azkue Sarian irabazle gertatu zirenen idazlanak batzen dituen *Ipuinak eta Bertsoak* liburua aurkezten dugu 1998.eko urtarrilaren 29an, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren aretoan. Oraingo honegatz, seigarren liburuak ikusten du argia.

12 urtetik hasi eta 17rartekoak dira liburu honetako idazle irabazleak.

9 dira sarituak, 8 neska eta mutil bat. 5 dira narrazioak eta 6 olerkiak edo bertsoak.

Euskal liburugintzaren %30a ume txiki nahiz gazteentzat egiten dena badakigu. Ez, ostera, —Esku bateko hatzekin konta daitezkeela haur poesi liburuak—. (Etzaniz, 1997). *Ipuinak eta Bertsoak* liburua, bere neurri mugatuan, poesiaren hutsune hori apur bat estaltzera dator, bost olerki eta bertso batekin.

Eten-puntu edo puntu suspentsibo ugari egidun testua, idazten hasi berriarena dela somatzen duzu eta, ondorioz, badakizu ez duzula zuzentzen hasi behar, bere horretan errespetatzea dagokizula zuzentzaile lanean. —Halako zeinuekin, esaldia edo pentsamendua osotzeko ardura irakurleari pasatzen zaio, eta agerian geratzen da idazle hori oraindik zalantzatan dabilela, segurtasunik ez duela bereganatu (Martin Vivaldi, 1982).

Sari bat jaso duenak beste ehun ditzake. Arkaitz Cano edo Urtzi Urrutikoetxea idazleak ere hemendixe pasatu ziren. Kodigo idatzia, irakurriz hartzen da, Axular edo Juan Bautista Bilbao —Batxi—ren pasarte literarioak buruz ikasiz; testuak kopiatuta, gramatika arauak landurik; gure betiko euskaldunen ahozkoa entzunda. Eta metodo guztien artean, irakaslearen zuzenketa bera baino eraginkorrago da irakurketa, plazerrez burururikoa, hau da irakurketa atsegina.

Gazteentzako literaturgintzan diharduen idazleak ardura berezia jartzen du hartzaile gaztearengana hurbildu eta egokitzeke, ezen literatura kalitatezkoa denean ez dagoela adinik ezin esango da, zeren hamalau urteko izanik nekez uler baitezakezu atsotitz hau: *Saltzen dabilena, galtzen dabil*. Hamazortzirekin besterik da, esperientzia zeozterako baita.

BBK Fundazioak eta Euskaltzaindiak argitaratutako liburuan, irakurle gaztea oso ondo ulertzen duten idazleak aurkitzen ditugu, hots, bera bezalako gazte direnak. W.H. Auden-ek dioenez, gainera, —*Izan daitezke helduentzat bakarrik onak diren liburuak, baina ez haurrentzat soilik onak direnak*— (Etzaniz, 1997). Umeentzat ona dena, literaturtasuna eta kalitatea dituen idazlana, nagusiok sarritan jaso izan dugu atseginez.

Hala, Mariasun Landaren *Julieta Romeo eta saguak* edo Patxi Zubizarretaren *Biolin bat Maribeltxarentzat*.

Alderantziz ere ez da gutxitan gertatu, helduentzat idatzitako literatur lanak izanik, ume eta gazteek gustura irakurtzea, eta azkenean euron literatur-ondasunera pasatzea. Gogoan dugu neska-mutil bardingoak ginela poz-pozik irakurri genituen R. L. Steven-sonen *Altxor Uhartea* edo J. Swiften *Gulliveren bidaiak*.

Bestalde *Gerard Durrellen* liburuetarik asko berdintsu irakurtzen dituzte helduek nahiz gazteek.

Idazle gazteok testuotan gaur eguneko diren pertsonaia, egoera eta gaiak literaturararitzen dizkigute, Julen Gerrero; gorostiaren desagertzeko zoria; anorexia eta bulimia, eta abar.

Ezeren gabezia aipatzekotan, betiko euskararen oihartzuna azpimarratuko nuke; gure klasikoan espresamolde zoriontsuen hutsunea, literaturako maisuen eragina. Badakit literatura sormena dela, baina, hala ere, nori ez zaio gozo Barbierren *—supazter txokoan—* irakurtzea edo *—Aldapeko sagarraren adarraren puntan—* plagiatura aurkitzea!

Irakasleen gainbegiradapean idaztera jo duzuen gazte guztioi esker, eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa eta Euskaltzaindiaren laguntzaz, literaturako sorkari berria daukagu esku artean, *Ipuinak eta Bertsoak 1996*. Ekin eta jarrai.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA  
LITERATURA-SARIAK.  
PREMIOS LITERARIOS BILBAO BIZKAIA KUTXA-  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/  
EUSKALTZAINDIA: 1997**

*Bilbo, 1998-05-22*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

**SARRERA HITZAK**

Jaun-Andereak, eguerdi on!

Kazetari eta prentsa arduradunei halaber.

Eskerrak nahi dizkizut bihurtu zuri, Jose Ramón Bilbao jauna, Bilbao Bizkaia Kutxa-ren izenean hemen zaudena. Aspaldi honetan elgarrekin lan egiten dugu literatura-sariak urtero ematen. Egun aurkezten ditugu iaz sariztatuak izan diren liburuak:



*Ezkerretik eskuinera: Juan Mari Lekuona, Literatura batzordeburua; Ana Toledo, Literatura Ikerketa azpibatzerdeko kidea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Literatura Ikerketa azpibatzerdeko kidea; Joserra Bilbao, Bilbao Bizkaia Kutxako ordezdaria; Patri Urkizu, Literatura Ikerketa azpibatzerdeko kidea, eta Ricardo Badiola Uriarte, Euskaltzaindiko argitalpen batzordeko idazkari-eragilea.*

— ‘Txomin Agirre’ saria: *Nada de agua en Madrid*. Pello Esnal Ormaetxea-ren eleberria;

— ‘Mikel Zarate’ saria: *Hizkuntza, kultura eta gizartea*, Jose Manuel Odriozola Lizarribar-en saioa;

— ‘Toribio Altzaga’ saria: *Burdin denda*, Karlos Linazasoro Izagirre-ren antzerkia;

— ‘Felipe Arrese Beitia’ saria: *Kea urruntzean*, Mirari Garcia de Cortazar Agirrezabal anderearen olerki bilduma.

Zorionak sari irabazle guzici. Bilbao Bizkaia Kutxa-ri esker agertzen dira zuen obrak. Ez ote da gauza ederragorik idazlearentzat!

## 1997ko 'AZKUE' SARIA

*José Ramón Bilbao,  
BBK-ko ordezkaria*

### SARI-BANAKETA EKITALDIA

BBK, Euskaltzaindiarekin batera, 10 eta 17 urte bitarteko neska eta mutilentzako R.M.<sup>a</sup> Azkue literatur sariotarako deialdia egiten dator, 1991z geroztik, saritutakoa, euskaraz aurkezten den narratiba eta poesia izanik.

Bestalde, irakasleek eta etxekoek, gazteak euskaraz idaztera zirika ditzaten, hauen lanak aurkezten lagundu dutenek ere, jasotzen dute euren saritxoa.

Zazpi urte hauetan, eskualde euskaldun guztietako parte hartzaile kopuruak gorantz egin ahala, Azkue Saria, garrantzia hartuz joan da. Aurten 394 lan jaso dira.

Lan sarituak argitaratu egiten dira. Hau lehen deialditik egin izan da eta parte hartzaile guztiei igorri zaizkie lanok, euren ikastetxearen bitartez edota beraiei pertsonalki. Beste ikastetxe batzuetara ere zabaldu dira, ikastetxeotako ikasleak, hurrengo deialdian parte hartzera anima daitezten.

Gogoratu behar da hau ez dela Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak Euskaltzaindiarekin batera egiten duen literatur sariketa bakarra. Hortxe daude helduen mailakoak ere. Zorionez, erakunde bion arteko lankidetzak frutu ederrak ematen ditu.

Urte hauetan zehar idazle bat baino gehiago nabarmendu da, sari bat baino gehiago jasotzean, baita haur mailatik gazte mailara igarotzean ere. Horrela, sari hauek idazle batzuk "ezagutarazi" egin dituzte, zeozelan esateko, zazpi urte hauetan zehar.

Poz handia ematen du Azkue Sariketa deialdi hauen helburua betetzen dela ikus-teak, eta euskarazko gazte-literatura, guztiok gura dugun errealitate bihurtuz doala egiaztatzeak.

\* \* \*

### R.M. AZKUE SARIAK 1997: INOIZ BAINO PARTAIDETZA ZABALAGOA

Euskaltzaindiak eta BBK-k haur eta gazteak euskarazko literaturara hurbiltzen laguntzeko antolatzen dituzten R.M. Azkue sarien zazpigarren edizioak aurreko edizioe-

tako marka guztiak apurtu ditu, 97.eko zazpigarren edizio horretara 404 lan bidali baitira.

Sariak bi mailatan deitzen dira, 10/13 urte bitartekoentzat eta 14/17 urte bitartekoentzat. Maila bakoitzean bi sail daude, narrazioa eta poesia, eta hiruna sari ematen da sail bakoitzean. Guztira, beraz, 12 sari banatzen dira lehiaketa honetan parte hartzen duten gaztetxo eta gazteen artean. Lanik gehienak ikastetxeen bidez helarazten dituzte idazle gazteek, nahiz eta baden banaka parte hartzen duenik ere. 50.000, 40.000 eta 30.000 pezetako diru-saria eskuratzen dute 1., 2. eta 3. sarien irabazleek, eta gazteak lan honetan lagundu dituzten irakasle edo helduek ere eskuratzen dute 10.000 pezetako saritxoa. Saritutako lan guztiak, bestalde, argitaratuak izan ohi dira. Gaur Bilbon ospatu den ekitaldian, azkeneko edizioko irabazleei sariak banatzeaz gain aurreko edizioan sarituak izan ziren lanak biltzen dituen liburua aurkeztu da.

Esan bezala, 404 lan jaso ziren 97.eko deialdian, 222 A mailan eta 182 B mailan. Gipuzkoatik iritsi dira lanik gehienak, eta ondoren Bizkaia, Nafarroa eta Araba datoz. Aurten ez da lanik iritsi Iparraldetik. Irabazleen zerrendak ere joera bera isladatzen du, hamabi sarituetatik zortzi gipuzkoarrak baitira, hiru bizkaitarrak eta bat nafarra.

Antolatzaileek berri ontzat hartu dute lehiaketa honetara aurkeztu diren lanen ugaltzea, eta azpimarratu ere egin dute hainbat ikastetxek izan duten partaidetza zabala. Beraien ustez, eskertzekoa da irakasle askoren eragina eta lana.

## A MAILA

### **Irabazleak:**

A MAILA (10-13 urte bitartekoak; guztira 222 lan aurkeztu dira).

Epaimahaia: Amagoia Lopez de Larruzea, Manuel Lopez Gaseni, Patxi Zubizarreta.

### **Narrazioa** (180 ipuin):

1. saria: *Mendekua iritsi da*. Aiora Larrañaga Solabarrieta, Orioko Herri Ikastolakoa. Laguntzailea: Jon Manterola.

2. saria: *Oinordea*. Eneko Malaxetxebarria Elizegi, Bilboko Gabriel Aresti Batxilergo Institutukoa. Laguntzailea: Isabel Gorriño.

3. saria: *Arrantzalea izan nahi dut*. Leire Aranbarri Martinez, Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolakoa. Laguntzailea: Mikel Sarasua.

### **Poesia** (42 poema):

1. saria: *Nire maitasunaren ardatza*. Agurne Oronoz Lasaga, Leitzako Amazabal Batxilergo Institutukoa. Laguntzailea: Sandra Oyarzun.

2. saria: *Zure eskuen artean*. Elaia Torres Bizkarra, Iurretako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Juan Orobiogoitia Ikastetxekoa. Laguntzailea: Gaizka Zabarte.

3. saria: *Ahuntza eta zazpi antxumeak*. Irati Goikoetxea Asurabarrena, Beasaingoa. Laguntzailea: Joxe Goikoetxea (aita).

*Oharra:* 1. saria narrazioan 1995.ean; 1. eta 2. sariak narrazioan 1996. urtean irabazi zituen Irati Goikoetxeak.

\* \* \*

## B MAILA

### Irabazleak:

B MAILA (14-17 urte bitartekoak; guztira 172 lan aurkeztu dira).

Epaimahaia: Xabier Altzibar, Joan Otaegi, Joseba Butrón.

### Narrazioa (71 ipuin):

1. saria: *Bi bekainen erdi-erdian*. Martin Arregi Silling, Donostiako La Salle Ikastetxekoa. Laguntzailea: Patxi Ezkiaga.

2. saria: *Beste lekutan ere*. Unai Villena Camarero, Elgoibarko Bernardo Ezenarro Batxilergo Institutukoa. Laguntzailea: Andres Alberdi.

3. saria: *Izarrak amets*. Aitziber Agirre Ojanguren, Zornotzako Andra Mari Ikastolako. Laguntzailea: Itziar Ayarza.

## II. KONTAKETA “B” MAILAKOA

1. saria: NB 14. *Bi bekainen erdi erdian*.

Errusiako basoetan dabilen soldatu ehiztariaren istorioa da, linealki emana. Istorioa amaiera tristekoa da. Tentsioari oso ondo eusten dio. Kontatzen dakien baten eskutik etorri da ipuin hau. Deskripzioak egokiro eginak daude. Kontalariak basurdearekin du borroka lehenengo eta gero bere buruarekin. Espresio biziz kontatzen du. Hizkuntzaren erabilera benetan dotorea da, egokia.

2. saria: NB 28. *Beste lekutan ere*.

Atzera begiradaz baliaturik eraikitako Istorioa. Paristik Bilborako hegazkina hartzera doanekoan kokaturik, baina harako bidea eta hango egotaldia nolakoak izan diren kontatzen dituelarik. Irudimen eta kontaketa dohainez hornitua da kontalaria. Badaki interesgarritasunari eusten. Badaki abentura irudimenez eraikitzen. Hizkuntzaren tre-beziaz erabilia da.

**Hirugarren saria: NB 03. *Izarrak amets*.**

Istorio enmarkatua da, nahiz eta markoaren hedadura urria izan. Aitona kontalariak bilobei kontatua. Baina, hor, beste aitona bati uzten dio hitza; hain zuzen, izar ikusle

den aitona baten ahotan uzten du hitza. Eta honek bere biloba neskatxa bati kontaktzen dio istorioa. Sujerikorra. Irudimenez hornitua. Istorioaren fikzionalizazioa interesgarria.

\* \* \*

Orokorki honako ohar hauek egin litezke narrazio sailaren aurrean:

— Berriro ere aipatzekoa da lanen ugaritasuna, aurreko urtekoekin gonbaratuz. Baita, orokorki begiraturaz, beroiek eskaintzen duten maila ere. Olerkiei buruz, hainbat gehiago landu beharko lirатеkeela aurkeztu baino lehen esan badugu ere, narrazioetan ez da hain nabarmena aldea.

— Zenbait hizkuntzaren erabilera onak dira benetan. Hala lehen bi sarituak, eta beste zenbait ere bai, nahiz eta sarituak izan ez diren.

— Kontatzen den istorioaren fikzionalizazioa eta kontaktaren egituraren lantzea azpimarratzekoak dira hainbat kasutan.

— Genero desberdinen presentzia ere kontuan hartzekoa da: aitita-amamen eskutik datozen kontaketa molde tradizio unibertsalaren araberrakoak; atzerriko istorioetan oinarria dutenak; herri kontaketa molde eta ahozkoatasunean apioa dutenak; fikzioaren bidez giza eskarmentuaren berri eman nahi dutenak; literaturari iruzur egin gabeko konpromisoa dakartenak; kontaketa enmarkatuak; kontaketa linealak; ironia fin batez gauzatutako kontaketak, etab.

\* \* \*

**Poesia** (101 poema):

1. saria: *Aitonaren enkargua*. Amaia Osa Horcajo, Donostiako La Salle Ikastetxekoa. Laguntzailea: Patxi Ezkiaga.

2. saria: *Usapala*. Egoitz Tolosa Eizagirre, Donostiako La Salle Ikastetxekoa. Laguntzailea: Patxi Ezkiaga.

3. saria: *Noraezaren norantza*. Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena, Beasaingoa. Laguntzailea: Joxe Goikoetxea (aita).

*Oharra*: 'A' mailako hiru sari irabazi zituen Ekaitz Goikoetxeak 1993. urtean.

## I. OLERKIA "B" MAILAKOA

1. saria: OB 49. *Aitonaren enkargua*.

Aitonak bilobari kontatzen dion istorioa bezala gauzatua da poema hau. Itxuraz tradizionala badirudi ere, originala da. Bertso askean emana. Paraestrofatan gorpuztua. Istorio bat kontaktuko balitz bezala, irudimen munduak eraikiz eta bizitzari, munduari, argigune berrien leihoak zabaltzen zaizkio poeman. Sujerikorra da. Bilobari zuzentzen zaion hiperbolea. Mundu hipotetiko baten planteiamendua, bilobak aitona enkarguz



harako hartzen duen eginkizuna eta aitonaren eskaria. Aipatzekoa da poemaren egituratze erritmikoa.

2. saria: OB 53. *Usapala*.

Poetak sinboloz jantzi du poema. Usapala bakearen sinbolo. Atsegin izan zaio poema hiru urratsetan banatzea: Usapala iparra, sinboloa, ametsa; batasuna galdu ez baina barne loturaz josten du. Iruditeria, iradokizun eta maitasun munduko sinboloz betea dator poema, zati bakoitzak badakar bere irudimen ikuskera ezberdina eta progresiozko gauzatzea. Hau ere bertso askean emana da aurtengo gehienak bezala.

3. saria: OB 67. *Noraezaren norantza*.

Maite hipotetikoarenganako bide irudimenezkoa. Jolas poesia. Joko espazialean eraikia. Simetrikoa. Distantzia eta ibiliaren kontraposizioan eraikia; maitarengandik aldentzea metrotan eta harenganako hurbiltzea pausotan markatzen duen poema. Ironia eta batasun polikromoan eraikitako poesia. Hau ere bertso askea.

\* \* \*

Aurtengo olerki lanen ezaugarri batzuk aipatu nahi izanez gero honako hauek azpimarra litezke:

— Lan kopuru ugaria lehenengo eta behin, aurreko urteetan baino ugariagoa. Hori interesgarria da. Uste baitugu parte hartzen duten baino askoz gehiagok lan egin dezaketela sorkuntza bidetan. Uste dugu, bestalde, euskal literaturaren etorkizunerako ongarri izango litzatekeela.

— Bertso askearen arabera landutako poemak. Aurten ia erabat. Bildu den kopuruaren barruan gainera, poesia mailarik honduena bertso askean etorri da gonbaraziorik gabe. Aurreko urteetan neurtuan ere etorri ohi ziren maila politekoak.

— Poema genero ezberdinak lehen baino indartsuago ageri dira: mitologia klasiakoan oinarritutakoak (poesia landuak), euskal mitologiaren arabekoak, olerki konprometitu (egungo arazo unibertsal nahiz Euskal Herrikoak gaitzat dituztenak, bakea esaterako), maitasunaren girokoak (adinari hain bihotzeko zaizkionak), jolas poesia (hain askatzailea dena), etabar.

— Beharbada, zenbait laguntzailek ez luke leihaketara horren erraz hainbat lan bidali behar. Gehiago landu bitartean klase edo ikastetxe barruko eginkizuna izan beharko luke.



**PIARRES LARZABALEN IDAZLANAK - VII:  
OROITZAPENAK**

Liburukiaren aurkezpena

*Baiona, 1998-05-29*



## **PIARRES LARZABALEN IDAZLANAK - VII: OROITZAPENAK**

Piarres Xarritton-ek paratua. 1998. Elkarlanean

Baiona, 1998-05-29

J.L. Davant

Liburu honen aurkezpena edo presentatzea euskaraz eginen dugu bistan dena Xarritton-ek eta nik, euskaraz idatzia baitu euskaltzain batek, eta ez baitzuen besterik nahiko idazleak berak, euskaldunak zaretelarik gainera hemengo entzule gehienak.

Baina lehenik bi hitz erranen ditut frantsesez, egun hauetan hizkuntza horretan aditu dudan esaldi harrigarri batez, eta hau da: hizkuntza pribatuak direla Errepublikaren eremuan dauden hizkuntzak, frantsesaz besteak. Beraz, errana izan den hizkuntzan jorratuko dut laburki.

\* \* \*

D'abord je vais commenter rapidement dans la langue où on l'a tenu un propos qui a été proféré ces jours-ci contre les langues dites régionales. J'estime qu'il est de nature à troubler le Père Larzabal dans son repos éternel, car ce propos me semble proprement scandaleux et monstrueux.

En effet, il a été dit que les langues régionales sont des langues privées, qui doivent rester privées, car il serait absurde de les officialiser dans la République une et indivisible.

Du point de vue scientifique, cette affirmation est insensée: toute langue est publique par nature et par vocation, car elle est faite pour communiquer avec autrui. Nous sommes donc face à une définition politique qui signifie que la langue privée est une langue privée de ses droits. L'auteur de ce propos est M. Poignant, maire de Quimper en Bretagne, chargé du dossier des langues régionales par le gouvernement. Comment M. Jospin, premier ministre, a-t-il pu confier un dossier aussi brûlant à un homme aussi incompétent et aussi dangereux? Se rend-il compte de la violence que ce propos irresponsable et provoquant peut susciter dans les esprits? Ce n'est pas ainsi qu'on réglerait par exemple la question corse, car il y a là autre chose qu'une histoire de gros sous, il y a comme ici un problème linguistique.

Toutefois gardons notre calme, nous n'avons rien à gagner dans la voie de la violence, car dans ce domaine l'Etat français est beaucoup plus riche et plus doué que nous. Continuons donc à travailler inlassablement. Nous avons des alliés en Europe:

avec eux, assiégeons le bunker jacobin, sapons l'exception française, nous l'aurons finalement par l'usure et la honte.

\* \* \*

(Lehenbizi bere mintzairan aipatuko dut egun hauetan eskualdeetako hizkuntzen aurka errana izan den esaldi bat. Pentsatzen dut Aita Larzabal asalda dezakeela bere betiereko bakean, ezen eskandalgarria eta higuingarria zait esaldi hori.

Eiki hor errana izan da pribatuak direla eskualdeetako hizkuntzak, eta pribatu egon behar dutela, zentzugabekeria bailitzake horien ofizial egitea bat eta zatiezina den Errepublikan.

Jakintzaren aldeetik, esaldi hori da zentzurik ez duena, naturaz eta eginbidez publikoa delako edozein hizkuntza, gizalagunekin kurutzatzeko egina izanez. Politikoa da, beraz, delako definizioa, erran nahi du hizkuntza pribatua bere eskubideez dela pribatua, hau da, gabetua. Errailea Poignant jauna da, Quimperreko britainiar auzapeza, eskualdeetako hizkuntzen dozieraz kargatua gobernuaren izenean. Nolaz ote Jospin lehen ministroak holako dozier minbera pasa dio hain ezjakina eta arriskugarria den gizon bati? Ohartzen ote da nolako bortizkeria sortzen ahal duen espirituetan? Ez dute horrela konponduko, adibidez, Korsikako arazoa, zeren badago han diru aferez besterik, hemen bezala baitute han ere hizkuntzaren problema.

Halere, gauden baketsu, bortizkeriaren bideetik ez genezake deus irabaz, horretan askoz ere gu baino aberatsago eta trebeago baita Frantziako Estatua. Jarrai dezagun lanean eten gabe. Lagunak baditugu European: horiekin hertsia dezagun jakobinismoaren bunkerra, frantsesen salbuespena pipia dezagun, azkenean higaduraz eta ahalkez garaituko dugu).

\* \* \*

Piarres Larzabal-en idazlanetan, Xarritton-ek paraturik, zazpigarrena dugu, beraz, hau. Lehen lauak antzerkiz beteak ziren, antzerki idazlea baitzen nagusiki Larzabal zena. Beste biak ipuin, ixtorio, ikerlan eta hitzaldiz hornituak dira. Hau oroitzapenez dugu, tituluak adierazten duen bezala. Berrehun bat orrialde ditu, hamahiru zatitan banatuak.

1. Lehen Piarres Xarritton-en aintzin-solasa. Egokiena zen Xarritton hortako, lan osoaren paratzeko bezala, Hazparnekoa izanez, aita Larzabal hango bikario zelarik ongi ezagutu baitu.

2. *Nere aitormenak*. Bere sinestea du aitortzen Larzabal-ek, apaiza dela inoiz ahantzi gabe. Hargatik San Agustinen kofesioak ere aipatzen ditu, baina bere bekatu arruntez balentriarik egin gabe.

3. *Haurreko oroitzapenak*. Azkaingo semea bere herritik laster joanen da ikasle Hazparnera, gero Uztaritzeko apaiztegira.

4. *Soldadogoa Parisen*. Erizaingoan ikasi zuen horri esker eta bere bizi guzian nderki baliatuko du dohain hori.

5. *Gerlako oroitzapenak*. 1939-an apaizturik eta Hazparnera bikario izendaturik, laster joan behar izan zuen gerlara. 1940-eko ekainean presoner hartu zuten eta Alemanian egon zen 1942-raino. Hor zinez eri eta gaixo zegoela, utzi zuten aske.

6. *Hazparneko oroitzapenak*. Bikario egon zen 1951-raino. Ixtorio frango bizi izan du. Batzuk bortitzak dira, guziz alemanen denborakoak (erresistentzian parte hartu zuen Larzabalek, ihesliarrak mugarantz bideratuz), hunkigarriak edo irriagarriak besteak. Horiez asko badaki Xarrittonek...

7-8-9. *Zokoan erreter* izendatu zuten, aiher zitzaizkion Hazparneko lantegi ugazabetatik urruntzeko bezala, kristau sindikalismoa sortzen lagundua baitzuen. Zokoako auzogunea, erdia Ziburuko, erdia Urruñako, ez da etxe meta bat baizik, edozein erakunde gabea. Horretaz parropia bat egin zuen, eliza eta apaizetxea eraikiz.

10. *1960 ondoko urteak*. Enbataren sortzailetatik izan zen, baita ihesliarren laguntzaile handia Monzon-ekin, tragedia batzuk ere bizituz, hala nola Agurtzane Etxaberen hiltzea oraino G.A.L. izena ez zuen espainiar talde baten eskutik.

11. *Azken berriak*. Bidenabar eskertzen ditu Zokoako elizan laguntzaile ukan dituenak, apaiz eta laikoak, bereiziki Mixel Daguerre, Saint-Esteben, Mattin Carrère eta Roger Idiart apaizak.

12. *Piarres Larzabal idazlea*. Bere antzerkiak aipatzen ditu bereiziki, baita irrati-telebista emankizunak, Pantxoa Etxezaharreta lagunarekin eta Maite Barnetxe zenarekin hasi zituenak.

13. *Piarres Larzabal euskaltzaina*. Euskaltzain oso izan zen 1963-tik 1988-ra, hots, hiltzeraino. Arturo Campion-en ondotik zetorren (hargatik beste biga izanak ziren artean), hura baitzen lehenbiziko lau euskaltzainetatik bat (Azkue, Eleizalde, Urquijo-rekin) eta bere ondokoa du gaur Txomin Peillen.

Ene sarrerako mintzaldia egin nuelarik Maulen 1976-an, Larzabal nuen aitatzitatzat, ohore handia baitzait. Han egin zidan erantzunak betetzen du zati hau eta horrekin bukatzen da liburua.

Orain hitza uzten diot paratu duen Piarres Xarritton euskaltzain oso lagunari.





## PIARRES LARZABAL-EN OROITZAPENAK

Baiona, 1998-05-29  
Piarres Xarriton

Adiskideak,

Jean Louis Davant-ek erran dizue zertaz ari den Piarres Larzabal euskaltzain adiskide zenaren hamargarren urteurrenkari Elkarlanean argialetxeak argitaratu duen 7. eta azken liburukia.

“Azken liburukia” erran eta idatzi ere dut, baina gerta liteke 8. bat ere izatea. Zeren Xipri Arbelbide sagu xahar adiskideak ekarri dit berrikitan Jatsuko serorategitik, kaier higatu bat, begiratzen zuena, beste kopia askoren artetik, “Amerikanoaren lau ilobak” deitu komedia, nik aspaldian bazter guzietan eskatzen nuena debaldetan. Jakin dut, bestalde, Iñaki Beobidek eta Eñaut Larraldekin badutela bakoitzak Piarres zenaren antzerki ezezagun bat eskutan. Eta, azkenean, 1960eko hamarkadan Donibane Lohizuneko euskaltzale talde batek antolatu baitzituen eta Biarritzeko Casinotik zabaldu euskal irrati emakizun batzu, Roger Idiartek begiratuak zituen emankizunen izkribuak eta Marijan Minaberri andereak berrikusten ari ditu jada ongi ezagutzen zituen paper horiek eta Larzabalen idazki bat edo beste bereiz dezake hortik.

Horiek oro bilduz bagenuke beraz oraino 8. liburuki baten gaia. Baina bego hori horretan egungotz eta aipa dezagun gaurko 7. hau.

Liburu berri bat eskuratzean irakurleak bazter uzten ohi baitu maizenik aitzin solasa, nik orain irakurriko dizkizuet aitzin solas horretarik bizpalau lerro.

“Liburu honen prestatzen ari nintzelarik, aurkitu nuen hortxe, auzoko apezpikute-gian apez bat, ezagutzen ez nuena, baina ezagutzen ninduen. ‘Zer ari haiz?’ galdetu zidan eta nik ihardetsi: ‘Larzabalen oroitzapenekin lanetan.’ Hark orduan: ‘Zein Larzabal?’ Nik: ‘Zokoako apeza, jakina’. Eta besteak: ‘A! ez gurea! (hots, ez katedraleko kalonjea) Larzabal-bortizkeria baizik! (hitzez hitz: ‘Larzabal-La violence’)”.

Historia honek gogoratu zidan aspaldiko beste gertakari bat: Duela 40 bat urte apezpikute-giko lagunek eskatu zidaten gure herriko itsas bazterra ezagutaraztea Frantzia Iparraldetik zetorren fraile jakintsu eta laster apezpikutu zuten bati. Eraman nuen beraz frailea Zokoako apeztxera eta buruz buruan utzi, ordu bat edo bi, Piarres Larzabalekin. Handik ateratzean apez arrotz hark galdetu zidan: “Baina zer demontre ari da gizon hori hemen Zokoan? Baionan, apezpikute-gian du horrek bere lekua.” - “Zuk hori ardiesten baduzu —nion ihardetsi—, emanen dizut txokolate presa bat!”. Ez nuen txokolate eros-terik izan, nahiz Zokoako apeza hil zelarik Baionako apezpiku berriak ehortzetara joa-teko ohorea egin zion.

Baina ikusi behar da, duela berrogei urte, ez zelarik oraino nehon aipu euskaldun nehoren *hortizkeriarik*, bazukeela jadanik Larzabalek bere baitan beste zerbait, batzuek miresten genuena eta beste batzu izutzen zituena, menturaz bere *zintzotasuna*. Iduritzen zait zintzotasun hori adierazten digutela Piarres Larzabalen oroitzapenek.

Idazki hauek bospasei kaieretan sakabanatuak, azken urteetan idatzia, osasunaren gatik bere kargu eta lan guziak utzi zituelarik, hots, 1979etik landa, ahal bezain guti hunki ditut, bakarrik berak eskatu bezala, kronologikoki ordenatu. Zokoakoak salbu, beste gehienak nahas mahas idatzia baitzituen “batere segidarik gabe, gogora heldu zitzaizkion bezala”.

Ez da uste izan behar Piarresen oroitzapen guziak hor direla, jadanik bazituen idatzia bereziki haurtaroko ixtorioak, 5. eta 6. liburukietan bildu ditugunak. Bestalde, Hazparneko oroitzapenek leku ederra hartzen badute ere liburuki honetan —30 orrialdez gora— denbora horren lekuko izanik nihaur, erran dezaket beste gauza frango izan zezakeela oraino kondatzeko gure herriko bikari ohiak.

Adibidez, ikusten dut hemen gaur gutartean dugula Michel Inchauspe deputatua eta, berak ez badit deus erran ere, errazki asmatzen dut oroitu dela gaztetan amatxiren ikustera heldu zelarik honek ezagutarazi ziola Larzabal apezta eta Larzabali esker bere ikerlanean kurutzatu zuela Hazparneko kristau langile gazte taldea.

Dena dela, niretzat ez da dudarik Piarres Larzabalek hemen kondatzen dizkion ixtorioek, zenbait irri eta nigarren artetik, ezagutaraziko diotela irakurleari, beste idazki batzuek menturaz salatu ez dioten idazlearen gizatasuna.

## **HIL BERRIAK**



## MARIA DOLORES AGIRRE AIZPURU (1903-1997)

*Donostia, 1998-01-30*

Euskaltzaindiaren eskariari ezin nion ezezkorik eman: batetik, Maria Dolores Agirri diodan miresmenagatik; bestetik, belaunaldi horri diodan zorragatik, belaunaldi horretako gizon-emakumeek egin baininduten euskaltzale eta abertzale.

Maria Dolores Agirre Aizpuru 1903ko ekainaren 8an jaio zen Errezilgo Etxeberrin; denda, almazena, estankoa eta abar zituen etxean. Pablo Agirrek hiru seme eta alaba bat zituen, gazterik hil zen Urdalleta emaztearenak. Ondoren, Manuela Aizpurrekin ezkondu zen Pablo. Eta Maria Dolores Agirre Aizpuru jaio zen, etxeo bosgarrena; "Barrenoso" idazlearen ondorengoa.

Hamalau urte bete zituenean irten zuen Errezildik Donostiara maistra karrera egitera, normaletik ezer ez zuen Mandaseko Dukearen kaleko "Escuela Normal"ean. "*La casa de la pradera*"ko neskatoaren pare sentitu zela Donostian esan ohi zuen, umore haundiz. "*Ez nekien erdara haundirik baina oso onartua izan nintzen*" aitortu ohi zuen. Eta Errezil, bere sorterria, sekulan ahaztu ez bazitzaion ere, Donostian egin zuen kabia betiko.

Hementxe ezkondu zen 1924an, Marianistetan Xabier Zubiriren ikaslaguna izan zen Eugenio Lasheras donostiarrarekin. Aitaren eta amaren izen bereko semea eta alaba izan zituzten. Eta Donostian hil zen, Urbieta kaleko etxean, iazko uztailaren 26ko ordu txikietan, Santiago jaiaren bukaeran eta Santa Ana egunaren hasieran, ohi bezala, bere alaba Maria Dolores mojarrekin kontu-kontari ari zela. Eta senarrak lagunak zituztelako, bizitzan elkarren adiskide izan ziren Carmen Castro eta Maria Dolores Agirre elkarrekin joan ziren mundu honetatik ere, egun gutxiren aldearekin.



## Euskarazko plazaren jabe

Gaurko gazteentzat sinesteak lan badu ere, Maria Dolores Agirre maistra karrera egiten duen lehenengoetakoa da; Julene Azpeitia, Katalina Eleizegi, Elbira Zipitria, Elixabete Maiztegi, Maria Dolores Goia, Rufina Azkue, Julia Fernandez Zabaleta eta abarrek.

Gaurko gazteei oso aspaldikoak irudituko zaizkie Magisterio Eskolak. Baina joan den mendearen erdi aldera hasiak dira gizonezkoenak. Emakumezkoenak, berriz, geroxeago Bizkaian 1901ean zabaldu zen emakumezkoentzat magisterio eskola. Gipuzkoan, 1865tik 69ra zabalik izan zena itxi eta handik 30 urtera ireki zen, 1899an, hain zuzen. Maistra karrera egiteko aukera duen lehen belaunaldia da, ia-ia. Bestalde, ordurako hasiak ziren arrenkurak: "umeen eskolak eta irakasleak erdaldunak direlako ari da euskara galtzen". Giro horretan osatu zen, beraz, euskal maistra taldea.

Karrera amaitu bezain azkar Antiguako eskolan hasi zen maistratzen. Baina Maria Dolores Agirrek nahiago zuen beste era batera euskararen alde lan egitea. Eta Euskal *Izkera eta Iztunde Ikastola*-ra bildu zen; Toribio Altzaga, Abelino Barriola eta abarren ondora. Horretarako, berriz, Iztunde Ikastolako euskal irakasle plazara aurkeztu zen, gizonezko mordoskarekin batera. Juan Jose Arrue Larrañaga *Argia* astekariaren zuzendaria ez beste gizonezko guztiak erretiratu egin ziren, Maria Dolores Agirre ikusitakoan.

Bost eguneko azterketak egin behar izan zituzten biek, txandan. Baina epaimahaiak erabaki aurretik ohartu zen Juan Jose Arrue, bere aurretik lehiatu zen Maria Dolores zela irabazle: "Zorionak, zuk irabazi duzu" aitortu baitzion. Alferrik izan ziren azpeitiarraren doktore jakinduria guztiak Errezilgo maistra argiaren ondoan. Hori bai, don Juan Jose apaizak, Santa Maria parrokiako apaizak, kartzelan eta Donostiatik kanpora ordaindu behar izan zuen 15 urteko zigorraldia bere euskaltzetasunagatik, 1936ko gerren eraso. Maria Dolores, berriz, udaletxeko obretara zokoratu zuten. Eta Iztunde Ikastolako lehiaketan atzetik izan zuen Juan Jose Arrue, hiltzeko orduan ere atzetik izan du Maria Doloresek sei hilabetez, abenduaren 28an hil baitzen Arrue, *Argiako* zuzendari ohia, 94 urterekin.

Itzul nadin lehengo bidera. Lehen euskaltegi publikoko lehen irakasle bihurtu zen Maria Dolores. Baina Euskal Izkera eta Iztunde Ikastola-ko plazaren jabe egiterako hasia zen Maria Dolores, bere etxean, euskara irakasten. Oraingo askok bezalaxe denda batean jarri zuen iragarkia. Barre egin zioten: "Euskara ikastera inor joango zaizula uste al duzu?". Baina bizitza osoan iraugo zion lana sortu zitzaion. Inguratu ere era guztietakoak inguratu baitzizaizkion Antonio Agirre kontsula, Usandizaga Inazio, Karlos Santamaria, Miguel Castells notarioa, Orkolaga eta beste edozein maila eta lanbidetakoak. Etxean, Euskal Iztunde Eskolan, Ateneoan, Alargunen Klubean, Emakumeen Kultur Etxean eta abarretan ematen zituen euskarazko klaseak. Batean eta bestean, ehunen bat ikasle izaten omen zituen.

Ikastaro bereziak ere ematen zituen, jakina. Miren Egañak, oraindik orain, gogoratzen zidanez, 1960ko abuztuan egin zuten Elbira Zipitria eta Maria Dolores Agirre-ekin ikastaro bat andereño eta andereñoagiek. Gaur nork eskainiko ote luke ikastaro bat, Donostian, abuztuan, musu truk?

Eta ia hil arte jarraitu zuen euskara irakasten. Laurogeita bederetzi urte bete behar zituen bezperan egin nion elkarrizketa bat Maria Doloresi. Ikasle talde baten euskarazko

lanak zuzentzen ari zen. Eta ez zen azkeneko taldea, geroztik ere euskara irakasten jarraitu baitzuen.

Hor utzi du paper mordoia, euskara irakasteko erabiltzen zituen metodoekin. Baina Maria Dolores Agirrerren metodo guztien oinarria bakarra da: ikasleari, entzuleari, irakurleari euskara atsegina, gustagarria eta maitagarria egin. Hori zen bere sekretua euskarazko klaseetan, antzerkietan eta irratsaioetan. Izan ere, Maria Dolores Agirrek bere hitzetan eta bere ekintzetan erakusten zuen bere bihotz gozoa: gaixoak zaintzerakoan, atzeratuei laguntzerakoan eta euskararentzat lagunak egiterakoan. Harrigarria badirudi ere Elbira Zipitria eta Maria Dolores Agirre izan ziren atzeratuekin ere lanean hasi ziren lehenengoetakoak. Beren etxera bezala joaten ziren Maria Doloresen etxera edozein egunetan.

### Toribio Altzagaren lekura

Euskararen kontrako eraso gogorra zerbait baretu orduko itzuli zen Euskal Izkera eta Iztunde Ikastola-ra udaletxeko obretara baztertua izan zen Maria Dolores Agirre. Azpeitiko Nekazari Alkartasunak antolatutako sariketara aurkeztu zen aurrena, 1949an, *Aukeraren maukera, azkenian... okerra* obrarekin. Eta handik lau urtera itzuli zen Iztunde Ikastolara, 1941ean hil zen Toribio Altzagaren eginkizunari eta bideari jarraitzeko.

Maria Dolores Agirrek 1975ean utzi zuen kargua, Joxemari Etxebeste eta Felipe Jurramendiren eskuetan: antzerkigintza, lehenengoaren eskuetan; euskararen irakaskuntza, bigarrenaren eskuetan. Baina 1981era arte ez zuen antzerki lana erabat utzi. Eta bere gidaritzapean ehunen bat antzerki-emanaldi eskaini zituen bere taldeak. Donostian egun jakina izan ohi zuen: Santo Tomas eguna. Horretarako, berriz, Soroa, Barriola, Altzaga, Lekuona, Lartzabal, Monzon eta abarrenak agortu ahala, Garcia Lorca, Tagore, Lozano, Casona, Buero Vallejo eta abarrenak euskaratu eta moldatu behar izan zituen: *Iturri-agor; Lurdesko lorea; Amal; Txalupak jaberik ez; Oriko txoria Orin; Txapela bete euri; Illunpe goritan; Altzateko jaun* eta abar.

### Gurasoen laguntza ezinbestekoa

Maria Dolores Agirrek ongi zekien, lehen esan dugun bezala, euskarak baliabide guztietaz baliatu behar zuela. Baina denen gainetik gurasoen laguntza jotzen du ezinbestekotzat, gurasoen bidez ondorengoetaratu ohi baita hizkuntza bat. “Gure seme-alabek ikasi ditzatela bi edo iru izkuntza, zenbat eta geyago obe; (...) baña etxekoa zokoratu gabe” dio lehen aipatutako idazlanean.

Hala pentsatzen du, hala idazten eta hala egiten. Maria Doloresen seme-alabak euskaraz mintzatzen dira elkarrekin, nahiz eta urte zailtako Donostian haziak eta karre-radunak izan; Eugenio, mediku eta Maria Dolores, moja. Harri eta zur uzten nau batez ere alabak, Maria Dolores Lasherasek. Maistratza egin eta —farmazia bukatuxea zuela sartu zen moja. Madrilen Biologia eta Antropologia bukatu eta Japonian eta Estatu Batuetan egin zuen lan. Ondoren, 12 urtez bizi izan zen Erroman, Mariaren Lagundi osoaren etxekoandre edo Ama Nagusi. Hala ere, harrigarri hitzegiten du oraindik euskaraz.

Bizitza osoan egin du lan Maria Doloresek euskara irakasten, euskararentzat lanak irabazten, euskara txukun eta ulergarrian euskaldunak entretentzen eta gozaten. Merezimendu horiengatik izendatu zuen Euskaltzaindiak, aspaldi, euskaltzain urgazle. Euskararen alde egindako lanagatik eskaini zion Donostiako Udalak zilarrezko domina, Jesus Mari Alkain alkatearen eskuz. "Bagera" euskaltzaleen elkarteak ere omendu zuen. Itzultzaile Elkarteak, berriz, ohorezko bazkide egin. Hil ondoan ere izan du ohorezko aipamenik. Hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zion Gabon egunean, Anton Abbadia saria banatzerakoan. Gaur, Euskaltzaindiak agertzen dio bere esker ona. Eskerrik asko, Maria Dolores. Sinesten zenuen zerua bekizu betiko sari.

### Eskola normalak edo magisterio eskolak

Lurraldea	Maisuena	Maistrena
Araba	1847-1904 1913-1924	1856-1904 1913-1930
Gipuzkoa	1845-1848	1865-1869 1899-1930
Nafarroa	1840-1901 1913-1930	1847-1930
Bizkaia	1865-1901	1901-1930

### Maisu eta maistra ikasleak

Ikasturteak	Araba	Nafarroa	Gipuzkoa	Bizkaia
1923-24	152	227	133	236
1929-30	245	512	439	509
Aldea	93	285	306	273

*Mikel Atxaga*



## JOSE MARIA AZPIROZ (1916-1997)

*Bilbo, 1998-04-24*

Jose María Azpiroz Zabaleta, Nafarroako apaiz eta kalonje euskaltzain urgazlea, Leitzan itzali zen 1997ko abenduaren 24an, 81 urte zituela. Eguberri biharamunean, Euskal Herri guztitik etorritako berrogei bat apaiz bildu ziren Iruñeko artzapezpiquaren eta Karmelo Etxenagusia Bilboko apezpiku-laguntzailearen inguruan, herritarrekin eta hainbat adiskiderekin bere herriko parrokiari hileta elizkizunak ospatzeko.

**Apaiza.** Gazterik sartu zen Iruñeko Seminarioan, baina hogeita hamaseiko erroldak bete-betean harrapatuak, liburuak baztertu eta armak hartu behar izan zituen. Ez zen pasarte horretaz biziki mintzatzen, nirekin behintzat. Ondoren apaizgaien ikastaroak eginiak, 1944ko ekainaren 18an apaiztu zen.

Zilbetin, Lizarran eta Donamarian egin zuen bere apaiz lana, eta handik joan zen Luzaidera, zenbait urteren buruan, bertan bederatzi urtez (1955-1964) bere laguntzaile izan nintzelarik. Giro berezia genuen mugan gerra osteko urte haietan guardia eta polizia inguraturik. Ehunen bat bazterretxe bazen Luzaideko hiru auzo nagusietan eta Ondarrolan, denetara joan ohi ginelarik. Elizaldea edo *Karrika* ez zen berez etxe multzo handia.

Lesakako erretore izan zen gero eta, azkenik, Iruñeko katedralean kalonje. Era askotako eginbeharrak zituen horrez gain hiriburuan. Euskarazko mezak ematen zituen Iruñeko zenbait elizatan eta aitortzak entzutera ateratzen zen apaizlagunen eskariz euskal herrietara. Artzapezpiquak berak ere sendotzako sakramentuak egitera bidali izan zuen askotan.

Xaloa zen eta prest zegoen beti beharra zegoen tokian bere laguntza emateko.

**Euskaltzalea.** Amaren sabeletik euskaldun zintzo eta bihotzez euskaltzale sutsu, era askotan agertu zuen ama-hizkuntzaganako amodioa. Zortzi urtez (1956-1964) atera genuen berak eta biok *Luzaide* izeneko aldizkari xumea, munduan zehar sakabanaturiko herritarren loturak mantentzeko asmoz. Geuk idatz eta geuk kopiagailuan atera, ordu asko sartzen genuen aleak postara eramanez arte elkarrekin lanean. Eta dena euskaraz.


Liturgia berriko itzultzaileen batzordean lan egin zuen eta Biblia euskaratzaileen taldekoa zen. Azken urteetan Iruñean egin zuen euskararen aldeko lana isila bezain astuna izan zen. Elizbarrutiko *La Verdad* astekarian idazteaz bestalde, *Boletín Ofizialean* ere artzapezpiquaren agiriak eta beste dokumentu batzuk euskaratzen zituen. Azken erantzunkizun eskerga inor-gutxik aintzat hartu duen hau, hor dago orain euskara ofizialki ordezkatzeko artzapezpiikutegiko aldizkari zaharrean. Nafarroako Elizaren historia zati bat da.

Fernando Sebastian Iruñeko eta Tuterako artzapezpikuak berak ere euskara ikasteko ahaleginetan Jose Maria Azpiroz zuen irakasle, maisu eta lagun, estimu handian zeukalarik Leitzakoaren laguntza baliotsua, behin gure artzain nagusiak aitortu zidanez.

Halaber hizkuntzarekin batera biziki maite zuen euskal kultura. Etxetik zetorkion musikarako zaletasuna eta hamabi urte koxkorrekin txistua jotzen agertzen zaigu Iruñean Irigoyen pilotariari 1928an eskainitako omenaldian. Seminarioko nire lehen oroitzenetan ez zait ahazten Schola Cantorum aipatu hartan abesten zuen ahots goreneko solista, eta Schola Txikia edo zortzi hamar bat laguneko kantari hautatuen taldean zebilen beti.

Entzutekoa zen bestalde bere ahots gardena Luzaideko Axuri-bazkarietan bertako kantari hoberenekin batera arratsalde guztia irauten zuten herri-kantuen saioetan. Gauak bereganatzen zituen isilian zintzur erlastuen azken emanaldi aspergaitzak. Elizan apaiz, herri-gizon jendeartean eta beti euskaldun, hori zen Azpirozen jarduera.

1958ko urtarrilaren 30ean euskaltzain urgazle izendatua izan zen Euskaltzaindian eta, geroago, txosten bat ekarri zuen batzarrera, "Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Napparroako Leitzen bildutako itz bilduma" izenburuarekin (*Euskera* 1967). Fidagarria zitzaien Mitxelenari Jose Maria Azpirozen lana.



**Gizona.** Leitzako Tolatxonean etorri zen mundura J.M. Azpiroz jauna 1916ko azaroaren 2an, eta hainbat labetako ogia jan izan arren bere bizi oparoan, ez zuen inoiz galdu bere sorterriarenganako amodio beneragarria. Nortasun biziko gizasemea, zuzenean eta inolako tolesdurarik gabe lotu ohi zitzaien arazoei aurrez aurre. Eguneroko bizian, alderantziz, irribarrez mintzo zen ia beti, eta adiskide giroko bilkuretan algaraz berdin jardun zezakeen kokildu gabe. Baina orenen gainetik leitzarra zen eta bere familiari erruz atxikia.

Esaera zuhurrak dioen bezala, ondasuna dagoen tokian baitago bihotza, sortetxera bildu zen hegada luzerako azken gaixoaldian txori kantaria. Beti amets zuen txoko gozoan pausatu zen bake osoan etxekoez inguraturik. Bertsolariaren azken agurrak dioen bezala, jatorriko iturrira itzuli ziren haren biziko urak:

Leitza herritikan abiatu zen  
bere bizitzako bira,  
jaioterri bertan izandu zuen  
baita bere amaiera.  
Larogeita bat urtez bizituz  
sehaskatik hilobira,  
tarte hortan makina bat amets  
zetozkion bihotzera...

Bakean bego orain Leitza herri nobleko apaiz argi eta euskaltzale benetakoa. Negu iluneko ereintza onak eman beza udako uzta oparoa.

*Jose Maria Satrustegi*



## KARLOS SANTAMARIA ANSA (1909-1997)

*Bilbo, 1998-04-24*

Karlos Santamaria euskaltzain ohorezko adiskidearen heriotzak oroitzapenik aski dakarzki gutariko edozeinen burura, hain eraginkorrak izan baitziren bere ekintzak. Nik berarekin izan nituen harreman pertsonalak berrogeita hamargarren urteetan elkarren artean izan genituen harremanen bat edo beste, Gipuzkoako zenbait tokitan plubiometroak jartzeko plangintza bati buruzkoak izan ziren, Aranzadi Zientzia Elkartekide ginelarik. Baina laster pertsonalki elkar ezagutu ginen, Joxe Migel Zumalabereren bidez eta geroztik harreman onak izan genituen, bereziki euskararen aldeko laguntzetan.


Gure gizon hau Donostian jaioa zen 1909ko abenduaren 25ean. Eta hiri berean hila da 1997ko abenduaren 30ean.

Gizon kezkatu bezain prestua zen. Bere ekintzek hala erakutsi ziguten, bai jakintzaz eta bai humanitatez. Madrileko Unibertsitatean hartu zuen Ciencias Exactas-ko doktordutza. Eta 1931. urtean ikerkuntza laneri loturik jarri zeneko hura izango zen bere lehen emaitzatarikoa, Joxe Oñateren laguntzaz eta Eusko Ikaskuntzaren babespean, Zientifikoen Zentroa sortuz. Jarrera baikorrez bere ingurukoengan giro eraginkorra sortzen zekienetakoa genduen, bereziki hezkuntzaren aldetik. Etorkezunari begira, hezkuntza baitzuen bere kezka nagusia. Eta gazterik arduratu zen horretaz, adibidez, bigarren Errepublika garaia ekarri zuen laiotasunean, ez ziren hain ongi ikusiak erlijio ordenak eta kongregazioak, batzuetan larri samar agertu ere bai eta Donostiako Colegio Católico de Santa María zeritzanari nolabait izenaren itxura kendu nahian ekintza berri bat sortzean bere burua eskaini zuen, ordezko izango zen Asociación Guipuzcoana de Enseñanza aurrera ateratzeko. Gerrate ostean Hernanin egiten zuen udarako egotaldia eta han ere sortu zuen 1948an Karmelo Labaka profesio eskola. Eta 1971an Donostiako EUTG-ren sortzaileetarikoa izan zen, eta erakunde horretan matematika irakasle. Gero, ondoko urteetan, denok ezagutu dugu bide horren jarraipenez bere ekintzarekiko lan ona.

Ospe handia ez ezik itzal merezigarria ere lortu zuen diktaduraren urte larrietan, 1947an, Donostian Nazioarteko Solas Katolikoak antolatuta zituenean. Ondotik, haien zuzendari izan zen 1959. urtera arte. Esan beharrezkoa da, gai horietan, Jacques Maritain-en pentsabideak erabili zituela. Eta hitzaldi haiek *Documentos* zeritzan aldizkarian argitaratuak izan zirela, Elizaren baliapenezko nihil obstat ongi aprobetxatzen jakin zenez. Han erabilitako gaiak ez da erraz neurtzekoa norainoko eragina izango zuten, baina bertako iritziak berbalatuak ikusi ziren Vaticano II.ean. Gainera, aldi haren oroigarri zaigu 1957an Frantziako Gobernuak *Légion d'Honneur izendatu zueneko*a. Lan horien berriak, oraintsu, zehaztasunez eskaini zituzkigu Euskaltzaindiko urgazle den Joseba Intxaustik *Karmel* aldizkarian (*Karmel*, 221. zenb., 1998, urtarrila-martxo, 95-110. orr.).

Ondorean, 1958-1966. urteetan, nazioarteko Pax Christi mugimenduaren idazkari nagusi izan zen, erakundearen buru Parisko artzapezpiku zen Felin kardenala zelarik, eta kasik hilero biltzen zen honekin Frantziako hiriburuan.

Euskararen arloari loturiko ekintzak, garai hartan harreman estuak izan zituen Pakita Arregi Euskaltzaindiko urgazleak agertu dizkigu zenbait lekuko eskainiz, 1998ko urtarril honetan *El Diario Vasco* egunerokoan. Bertan dioenez: Eskolatzearen eta antolamenduaren beharrak kezkatzen zuten Karlos. Lehenik, ikasketen bidez, Magisterio Eskolako ikasketetatik aparte, beste gai batzuk gehigarri ikusten zituen. Gure kultura eta hizkuntzaren ezagupena lortzekoak, batetik, eta norberaren profesioan, hezitzaile edo irakasle maila lantzeko gaiak, bestetik. Honekin batera, nahi zuten irakasleei Donostian egoitza eskainiko zitzaien. Horrela irakasle izateko prestakuntza gizarteratzeko, bide egokia izan zitekeela pentsatzen zuenez. Lizentziatura edo karrera bukatzerako ikasle hauek jakituria minimo batez jantziak izango zirela uste zuen. Prestakuntza irekia izatea nahi zuen eta hau lortzeko, gazteak orduko mugimendu kultural eta politikoeekin harremanetan jartzen omen zituen. Prestatzen ari ziren ikasleentzat hesirik ez zuen nahi. Besteekin eztabaidatuz haintzat hartzez ikusten zuen hezkuntza, *ghetto* bihur ez zedin. Gazteak borrokara ez omen zituen bultzatuko, bai ordea ikastera eta eztabaidara. Prestakuntza, irekia ez ezik, ondo errotua ere izan behar zuela uste baitzuen. Gaur oraindik badugu hortaz zer ikasirik.



Jokera horrekin, belaunaldiak bere identitatea eraikitzeko oinarriak finkatu nahi zituen. Azpiegitura hori derrigorrezkotzat jotzen zuen, ikasketaz eta praktiketaz jabetzeko. Gero, abiapuntu horretatik haruntza, beste alderdia antolamenduarena zen. Eta hori, nik neuk pertsonalki frogatu nuen Euskaltzaindiak Donostian bulegoa lortu genuenetik. Hau ere ez baitzen bere laguntzarik gabekoa.

Aldi hartan euskararen arloan lortu ahal izan zituen artean daude: 1960garrenaren hasieran, anderefoentzako Erresidentzia Donostian sortzea, Jazinto Fernández Setien eta

Joxe Migel Zumalaberekin batean. Une berean, Manterola kalean, euskal irakasleak prestatzeko etxe bat irekiz. Eta 1961ean Santo Tomas Lizeoa sortu.

1963an, ordea, Donostiako Kaputxinoetan, *Zeruko Argia* asterokoak berrargitaratzearen alde lan ona egin zuen. Arantzazun Frantziskotarrek argitaratzen zuten *Jakin* aldizkariaren bultzatzaile ere ibili zen eta 1978-1980. urteetan zuzendaritzako ere izan zen. Azken ekintza honen berri zehatzak eman dizkigu Joan Mari Torrealdai urgazleak azken *Jakin*-en (ikus, *Jakin*, 104. alea, 1998ko urtarrila-otsaila, 11-18. orr.).

Meritu horiengatik, 1964. urteko urrian Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Eskolari begira beti arduratsu zebilenez, euskara idatziaren batasuna behar beharrezkotzat ikusten zuen eta bere uste eta asmo batzuk agertu zituen 1968an Arantzazuko batzarretara aurkeztu zuen txostenean: “Antzinako euskal-hitzen arteko batasunerako Euskaltzaindiaren eginkizun batzuek” deritzana (ikus *Euskera*, XIII, 1968, 234-236. orr.). Gero, 1970ean Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkartizan batzordekide jarri genuenetik, harremanok gehitu genituen. Urte horretan hasi genuen Joxe Migel Zumalabe arkitektu teknikoaren zuzendaritzapean etxegintza hiztegiaren prestakuntza. Baina Karlos Santamariaren eskariz, horrekin bateratsu eraman genuen berak hain beharrezko ikusten zuen “Zortzi urte arteko ikastola hiztegia”-ren prestakuntza ere (ikus *Euskera*, 1975, 7-153. orrialdeetan argitaratua). Bertatik, separata gisa, liburu bezala ale asko atera genituen esperantzaren azal berdez. Eta J. M. Zumalabek gure laguntzaz burutu zuen hura izan zen: “Etxegintza eta arkitekturazko hiztegiaren gertukera” (ikus *Euskera*, 1973, 291-295. orr.). Baina Santamariak ordurako “Euskal hiztegi analitiko”ri buruzko txosten bat ere aurkeztua zuen Euskaltzaindiko batzar batean (ikus *Euskera*, 1973, 167-172, orr.) eta geroago beste bat, gazteleraz, “El euskara como lengua escolar” deritzana (ikus *Euskera*, 1979, 465-481. orr.). Izan ere, gure gizonak, Zientzia zuen ofiziotzat eta gizarte gaien filosofia bokazioz. Eta zientzi gizona zenez, hizkuntza gaitan Koldo Mitxeleneri jaramon egiten zekien.

Ekintza horien arabera, argi dago gizonaren alde positiboa, maizenik etorkizunari begira, irakaskuntzaz kezkatu iribili zela eta hara hor 1968. urtean, Donostian Zuzentza Fakultatea, Informatika eta Arkitektura eskolak berak bultzaraziz irekitzea non lortu zuen.

Euskaltzaindiko idazkari nintzela, garaiak hala eskaturik, zenbait eginkizun zuhurki jokatzuz eraman beharra izaten nuen eta orduko Administraritzaren aurrean Antonio Arrue euskaltzain zenarekin bezala, Elizaren esparruan Karlos Santamariarekin baliatzen nintzen, eta oroiten naiz 1969-1970 ikasturte hartan zer nolako laguntza eman zigun. Oltra Moltó Gipuzkoako gobernadore frankista harek gurasoen babespen soilean zeuden ikastolak larri ipini zituenen, Karlosengana jo nuen, zer egin genezakeen aztertzeko eta berak eraman ninduen orduan Apezpikuteagiko idazkari nagusi zen Frantzisko Yarza jaunarengana. Vatikanoko Espainiarekin zuen Konkordatoak Elizari haurren eskolak eduki ahal izateko eskubidea ematen zioenez, hirurok elkaturik erabaki genuen Elizaren babespean jartzea. Eta horrela salbatu genuen ikastolen iraupena.

Zarata handirik gabe, beti praktiko bezain zuhur jokatzeko zekien gizon diplomati-koa zen Karlos. Adibidez, Burgosko epaiketa famatu hartan hilzorira eraman zituzte- negatik, berari eta Ruiz Jiménezzi esker, Aita Santuagana jo zuten eta honek barkamen eskaria Franco-ri.

Ez zuen asko idatzi euskaraz, baina bere idatziok garrantzi handikoak zitzaizkigun, bere zuhurtasunagatik eta beti premiazkoena ondo hautatzen zekiela. *Euskera* agerkarian bezala, *Documentos*, *Egan*, *Munibe*, *El Diario Vasco*, *Zeruko Argia*, *Jakin* eta beste zenbait aldizkaritan eman zituen bere lanak. Gainera, *Egan* aldizkarian eman zituen bi lanak gogoangarriak zaizkit, lehen partean gazteleraz "El hombre que busca la verdad" (1949) zeritzan saioa eta bigarrenean euskaraz "Informazioa neurritzen" (1974). Hala ere, ideia onak ematen eta euskararen alde gestio zuhurrak egiten idazlanekin baino gehiago lagundu zigun.

Beti zegoen borondate onez jokatzeko zekiten gizonei irekia, inoren koloreei jaramonik egin gabe, nahiz eta beste era batera pentsatu. Bere liberaltasun horren lekuko hor ditugu, adibidez: "Eskutitzak. Aspaldiko sozialista eibartar bati", *Zeruko Argia* (205. zenb., 1967ko urtarrilaren 29koa) eta "Aspectos. Metafisika a Urcola", *El Diario Vasco* (Donostia, 1967ko otsailaren 5koa), Toribio Etxebarriaren lanei buruz.

Jean Haritschelharren eragin eskergarriagatik, Bordeleko Unibertsitatea eta Euskaltzaindiaren artean Donibane-Lohizunen Udako Euskal Unibertsitatea sortu genuen garai haretan ere han zen klaseak ematen. Baina ahantzi ezinezkoa iruditzen zait arestian aipatu dudan Donostiako Santo Tomas Lizeoaren irikiera K. Santamaria eta J. M. Zumalaberi zor zaiela beste inori baino lehen.

Politika trantsizioan, bera hain politikari ez bazen ere, Euskal Kontseilu Orokorra sortu zenean Hezkuntza sailaren kontseilari izendatua izan zen. Eta gauzak beti zuzen egitearen aldekoa zenez, euskaltzainburu zen Fr. Luis Villasantekin harremanean jarri zen sailarentzat izen egokia lortu nahirik. 1978ko otsailaren 24an, hala zioen Villasante jaunak: "Carlos Santamaria jauna, euskaltzain laguntzailea, izendatua edo begiz joa izan da kargu handi baterako Euskal Kontseilu Orokor delakoan. Uste dut berri hau guztiz pozgarria dela gu guzientzat. Denok dakigu, eta anitzetan frogatu dugu, zein atxikia den jaun hau bai euskarari eta bai Euskaltzaindiari. Ene ustez, izendapen hunegatik geure poza agertu behar genioke, eta bai geure laguntza eskeini ere. Eta huna hemen jaun hunek egiten digun lehen eskaria: "Educación" hitza euskaraz nola esan behar den galdetzen digu. Hori eskatzen dio Euskaltzaindiari. Azkenaldi huntan erabiltzen den *heziketa* hitza ez omen du hain gogoko". Ondotik, Villasante euskaltzainburu jaunak euskal literaturaren historian egileek eta hiztegi-gileek horretarako hitzak nola erabiliak izan dituztenaren zerrenda luzea aurkeztu zuen eta aldi berean, zerrendaren aurkezpen horretan oinarriturik, Aita Alustiza idazle eta predikari jatorragandiko iritzia azaldu: "Bat ere dudarik gabe eta gaurko erari jarraituz *Hezkuntza*". Horrela onartu zuen (ikus *Euskera*, XXIII, 1978, 209-213. orr.) eta hitz egoki horrek hor jarraitzen du.

Ni, ordea, Euskal Kontseilu Orokor haren lehen partean, autonomiaren paktoa konstante izanik, ESEI taldearen eskariz, Kultura Kontseilaritzan arte-ondare eta kultur erakunde sailaren arduradun izendatu ninduten. K. Santamariarekin harreman estuak eduki nituen eta honako gertakari oroitzen naiz. Beste eginkizun batzuen artean Parisera joan beharrean aurkitu nintzelarik, Roland Dumas bisitatu nuen eta Picassoren "Gernika" Gernikara ekarri ahal izateko bidean jarri. Karlosi aditzera eman nion, baina honek ilun ikusten zuen, zeren alderdikide gehienek arte estilo edo era hura ez baitzuten gogoko eta ez zuen horren alderako giorrik somatzen. Dena dela, bere ahaleginak egin zituen. Baina, hatan-horretan, denbora aurrera eta bitartean Euskal Kontseilu berria jarri zen. Jo nuen ahalik gorenera, baina horiek Gotzon Olarte Kultur kontseilari berriarekin mintzatzera igortzen ninduten eta honek ezin ulertu. Hor gelditu zen nire ahalegina noraezean.



K. Santamariak 1978-1980. urteetan jarraitu zuen E.K.O. hartan Hezkuntza kontseilari eta bere egitekoa ez zen izan nolana hiko, berak eman baitzion Euskal Herriko Unibertsitateari bultzada nabarmena. Eta erretiratu ondotik ere zenbait lani oraturik jarraitu zion.

Humanismoak ez du izan gure artean harrera gehiegirik, baina hori ezin uka Karlos Santamariari. Horren lekukoak ziurtatzeko hor ditugu idatzi zituen liburuak: *La filosofía política de Jacques Maritain* (1950); *La iglesia hace política* (1979) eta oraintsuago, Donostiako Teologia eta Pastoral Erakundearen eskariz burutu zuena, *La amenaza de guerra nuclear* (1985) deritzana. Jose Maria Setien apezpiku jaunak egin zion hitzaurrean ondo zioen: "Orain argitaratzen den obra hau lan zehatz baten frutu da, azken bi urte hauek zehar garatua" eta ez nolana hiko humanitatearen alderako.

Bizitzaren azken urteetan ere ez zen gelditu. 1989an, belaunaldi berriko gazte talde bati, bai berak eta bai Martin Ugaldek, *Euskaldunon Egunkaria* sortzen lagundu zieten.

Baina, azken urte horietan esker onak jasotzea tokatu zitzaion, ondo mereziak zituen zenbait sari eta ohorezko izendapenen bidez: 1991an Eusko Ikaskuntzaren "Manuel Lekuona saria" eta, urte berean, Gipuzkoako Diputazioaren domina eta Probintziako seme kuttun izendapena. Handik urtebetera, 1992an, Euskal Herriko Unibertsitateak Dr. Honoris Causa izendapena. Eta Euskaltzaindiak, 1993.ean, bere sorrerako 75. urteurrenean sartzean, ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

Zoritxarrez, gizarteak urri ematen dituen gizon horietako bat genuen eta guk holako beharra. Gizon bakoitzagandik onurazaletasuna onartuko bagenu, horien artean eredugarri jartzekoa genuke Karlos Santamaria zena. Maiz esaten zuen "Bakearen gainetik dago justizia". Baina indarkeriarik eta hilketarik ez zuen inoiz onartu, bizitza berez sakratutzat zuelako. Zerurik baldin bada, hain fede zintzoa eta ekintza eredugarriak erakutsi zituen gizon zuzena han izango da (G.B.).

*Juan San Martin*




## JESUS OLEAGA ETXEBERRIA (1914-1998)

*Bilbo, 1998-04-24*

Zeanurin jaio zen 1914-ko uztailaren 7-an, Ibarreta etxean, herriaren erdi inguruan.

Haren aita, Nazario Oleaga Muguruza, Zeanuriko Udalaren idazkari zen eta abokatu bulegoa zuen Bilboko Jardines kalean. Euskaltzaindiaren idazkari ospetsu urte luzeetan izango zenak euskaltzaletasuna eta abokatutza itsatsiko zizkion, betiko, jaio berriari. Bi ardatz hauen gainean eramango zuen aurrera Jesus Oleagak bere bizitzaren gurdia bide zabal eta estu, lautada, trango eta basatzatan zehar.

Oroimen apartaren jabe zen eta, esaten zuenez, 1922ko irailean bere aitak Gernikara eraman zuen Eusko Ikuskuntzaren III. Biltzarrera. Jesusek zortzi urte besterik ez zituen. III. Biltzar horretan Euskal Unibertsitatea eskatu zen eta, hara non, Guardia Zibilak, geroago Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari izango zen Jesus M.<sup>a</sup> Leizaola jauna eta baita Ramirez Olano jauna ere, *Euzkadi* egunkariaren zuzendaria, atxilotzen dituen eta Zorrotzaraino oinez eramaten.



Jesusi ez zitzaion gertatua sekula ahaztuko eta Leizaola jaunari berari kontatu omen zion haren azken urteetan.

Hamaika urte zituelarik, 1925ean, gurasoak Bilbora aldatu ziren eta Jesus, aitaren arloa hartzekotan, 1931ko urrian Deustuko Unibertsitatean sartu zen Legeak ikastera. Zenbait gora-beheraren ondoren, 1936an amaitu zituen bere ikasketak.

Ikasle aldi horretan Eusko Ikasle Batzaren partaide egingo da, 1932an, eta 1934an Bizkaiko Batzordearen Idazkari izendatuko dute. Eusko Ikaskuntzatik Euskal Unibertsitatearen eta Estatutuaren alde saiaturiko da eta euskara irakasten ahaleginduko, *Euzkadi* egunkarian zenbait kronika tartekatzen dituelarik.

Gerra Zibilaren ondoren, bere aitaren abokatu bulegoan lan egingo du eta 1943an Abokatuen Bazkunean sartuko da, Bazkun horren Zuzendaritzako izango delarik 1962tik 1982ra, hogeitertan.

Euskal Foru Zuzenbidea hausnartuko du eta bere sustraietan sakonduko 1979an Foru Zuzenbidearen Astea antolatuz eta 1992ko Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko Legea bultzatuz.

Bost urtetan jardun zuen Auzimaixu ordezkari, eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren kontseilari izan zen Lanbide Bazkunen ordezkari. Herri baten etorkizunaren bideragarritzat herri horren kulturak duen garrantzia azpimarratuko du eta, horregatik, euskal kulturaren murgilduko da eragile bezala. Euskaltzain urgazle izendatua 1965eko irailaren 24ean eta denok ikusi dugu, sarri, hutsik egin gabe, Euskaltzaindiaren bileretara hurbiltzen, zintzo, ixil eta apal, irriparre zabalez guztiok agurtuz.

Zeanurin, bere herrian, Zulaibar Lan Ikastegia bideratzeari ekingo dio 1965ean Zuzendari Batza osatuz eta behar ziren diru iturriak eskuratuz. Euskerazaleak elkarte sorkutuko du 1967ean eta lehen buru izango da 1977era arte. Elkarte horri Asociación de Amigos del Vasconce jarri nahi izan zitzaion erderaz, baina Jesus aurka atera zen euskararen Amigo euskaldun orok behar zuela-eta. Horregatik, erderaz, Asociación para el Fomento del Euskera, izenarekin gelditu zen.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sartuko da 1969an eta Bizkaiko Batzordearen idazkari izango 1977tik 1997ra, azken hogeitertan.

Elkarte honetan lan oparoa utzi du Jesusek, bere mintzaldi guztietan euskara erabiliz. Deustuko Unibertsitateko Euskal Antropologi Asteen hauspo izan zen, Bizkaia XXI. mendearen aurrean eratu zuen, Foru Zuzenbidearen Mintegia ernarazi eta, 1976an, 1937an deuseztatu Ekonomi Itunbena berriz indarrean jartzeko Bilboko Merkataritza Ganbaran atondu taldearen partaide izan zen.

Jesus Oleaga Etxeberria aurtan hil zaigu, 1998ko urtarrilaren 6an, Erregeen Egunean, bere egunak bukatzean Euskal Herriaren etorkizuna gogoan zuela.

Bere egin zuen apostoluaren hiltartiz eder hau:

Bonum certamen certavi, cursum consummavi, fidem servavi.

*Abel Muniategi*

## THOMAS UTHURRY (1920-1997)

Baiona, 1998-05-29

Thomas zuberotarra zen. Atharratzen sortua, 1920eko abenduaren 28an, Oxoaxia baserrian, Maidalena auzoan, Maidalena kapera edo ermitaren pean. Bortz haurretarik lehena. Bere sortetxeari osoki atxikia zen. Azken urte hautan bereziki, maiz joaiten zen, bizpahiru egunen iragaitera, atsedean hartzeko eta indarberritzeko.

Apezgorako bidea hartu zuelarik, Mauleko san Frantses ikastegian egin zituen lehen ikasketak. 1938an Baionako Seminario handian sartu zen. Handik laster gerla zen. 1940an alemanak hunaraino etorri ziren, eta Ipar Euskal Herria, Frantzia guziaz bezala bi partetan zatiturik gertatu zen. Itsasaldea alemanen peko, beste partea *libre* deitua (nolako libertatea, hori besterik da). Soldaduxkaren egiterik ez zen, eta libre deitu eskualdeko gazteak biltzen zituzten “Chantiers de jeunesse” delakoetan, armadaren antza zuen eraikidura batean. Thomas, bertze gazteak bezala, hor ibili zen urte bat. Gero, alemanek ezarri mugaren gatik ez baitzitekeen Baionara etor, Tolosara joan zen teologia ikasketak segitzera, Institut Catholique unibertsitatean, han teologia lizentzia ardietsi baitzuen.


1946eko ekainaren 29an apeztu zen. Uztaritzeko Seminariora igorri zuten irakasle. Han zen Pierre Lafitte, bai eta Etienne Sallaberry ere. Asma ditake, hauek bultzaturik, egin zuela mintzaldi eder bat erdaraz, 1950ean *Gure Herria* aldizkarian agertu zuena. Gaia: Inchauspe zuberotar kalonje ospetsua; aipatzen ditu haren bizia eta obra ugariak, bereziki *Le Verbe Basque* euskal aditzez egin zuena.

1953an Zuberoara itzuli zen: Mauleko san Frantses ikastegira, lehenik latina eta frantsesa irakasle, gero filosofia. Baina bere lana ez zuen ikastegian mugatzen. Bere gain hartu zuen Zuberoako gazteriaren ardura. Orduko lekuko batek dio igandero bazebilela parropiaz parropia. JAC edo baserriar gazte kristauen batasuneko bilkurak egin zituen bai Maulen, bai Atharratzen, igande goizetan, bederatzietan hasi eta arratserraino: meza lehenik, eta gero gazte horien moldakuntza, fedea, ekonomia, lana, sindikalismoaz; egiazko kultura bat emaiten zioten gazte horier. Eskualdeko hoberenak moldatu zituen, pobreenak eta xumeenak bazterrera utzi gabe. Garai hartan, gazteriak apailatzen zituen urtero “Lurraren besta” deitzen ziren elgarretaratze arrakasta handikoak. Thomasen paperetan aurkitu ditut besta horien prestatzeko eginarazten zituen ikerketa zenbaiten emaitza baliosak Zuberoako orduko egoeraz: herriz herri zenbat biztanle, zenbat mutil gazte, zenbat neska gazte, zer bizibide, zenbat nekazari, zenbat langile eta abar; zenbat ere herriitik urrunduak. Soziologia lan horren lekuko bat badugu, *Gazte* astekarian agertu zuen artikulu bat, 1957ko urtarrilean.

Huna zer idazten zuen orduan; zer zoan gaizki eta zer ongi aipaturik, honela bururatzen zuen: “Bethi gogouan behar dugu oharretxeki: lehenik, Chiberoua gibel ari

dela. Bigerrenik, eztila gizoun batek berak Chiberoua arratchutik ezarten ahal: ororek bat eginez, eta zerbait eginez dugula Chiberoua arraphizturen... Khorpitz bezain flaku eta eri gougoua... Ikhousiz zertan giren, bihotza erdiaturik eta halako lotsa batek harturik, deiziet oihu hau egiten... Agian, biharko eguna argichiago ikhousiren die biharko Chiberoutarrek”.

Garai hartakoa da ere bertze lan bat, nik ezagutzen ez nuena, eta bere paperetan aurkitu dudana: ez da liburu bat, baina fitxa moldean egina: “Igantetzaz eta besta-egunetzaz meza saintian egiten diren OTOITZ eta IRAKURGAIK Guillaume EPPHERRE-k, Thomas Uthurryren lagungoarekin uskaralat ützülik 1955-1960”. Kontzilio aitzineko urteetan beraz, lehengo liturgiako testuak. Nik uste, orduko eliza liburu frantses batetarik hartuak.



Artetik erran dezadan, garai berean, 1958an, *Herria* astekarian Pierre Lafittek astero ematen zituen talde batek apailatu igandeko mezako testuak Gero 1964etik aitzina, batzorde ofizial bat egin zelarik Liturgiako testuak itzultzeko, Epph rre kalonjea gure batzordean sartu zen eta itzulpen ainitz egin ere lapurterraz, gero zubereraz ematen zituenak; lan horretan ez zen Thomas sartu, egia erran urte haieran ez zen hemen.

1960an Baionara izendatua da gazte talde zenbaiten omonier: JEC ikasleak, JIC, eta Guides neska taldeak. Bai eta Equipes Enseignantes deitu taldeena, eskola publikoetako irakasle gixirtinoak.

1964ean Akizeko seminariora izendatua da, filosofia irakasle.

1969an Baionako seminariora etorri zen, teologia irakasteko. Hori 1987a arte. Erran behar da ere teologia kurtsoak ematen zituela Bordeleko seminarioan. Bertzalde asko arlotan lan egin du: Centre de culture religieuse, laikoentzat emanak ziren ikastaroak, jadanik apez direnen formakuntza, mintzaldi asko ezker eta eskuin. 1990tik landa *Bu-*

*lletin diocésain* gotzaitegiko aldizkari ofizialaren zuzendari, eta 1995etik heriotzaraino Baionako katedraleko kalonje.

Bordeleko klinika batean itzali da, bihotzekoak jorik, Eguberri gauean.

\* \* \*

Orain, labur bada labur, erran nahi nuke nolako gizona zen Thomas Uthurry, edo bederen nik nola ikusi dudan harekin iragan ditudan azken hogoi bat urte hautan.

— Gizon ixila, jite goxokoa, espanturik gabea.

— Lagunkina: alde guzietan bazituen lagunak, eta heieri jarraikia, artatsua.

— Liburuzalea eta langile porrokatua: beti liburu berrien aztertzen, bere irakasaldietan baliatzeko, eta bertzeeri ezagutarazteko, seminarioko liburutegiaren arduradun zelarrik.

— Irakasle xotila: badakit hiru urtetarik egiten zuen kurtso bat lau edo bortz aldiz berritu duela, edo osoki berria egin, konzientzia handirekin egiten baitzuen bere egitekoa.

— Euskalzalea, ez da dudarik, nahiz ez duen asko publikatu euskaraz. Aipa ditake, halere Pierre Topet-Etxahunen 2. mendeurrenkari Barkoxeko elizan egin zuen predikua, *Euskera* agerkarian agertu zena.

— Fede handiko gizona, eta apeza, zinez apeza.

Hor gelditzen naiz, bazitaken bertze gauza frango aipatzeko... Barka, beraz!

*Pierre Andiazabal*





## IN MEMORIAM JOAN COROMINES (1905-1997)

*Bilbo, 1997-04-25*

1997ko urtarrilaren 2an itzali zen Pineda de Mar herrian (Bartzelona) Joan Coromines i Vigneaux hizkuntzalari hauta, mende honetako hizkuntzalari hoberenetakoa, 91 urterekin. Hizkuntza erromanikoei, batez ere Iberiako erdiuhartekoei dagokiela, aberats-aberatsa da haren lana, baina euskararen alorrean ere handia da Coromines jaunaren ekarria (1).

Bartzelonan sortu zen 1905ean. Aita Pere Coromines zuen, abokatua, idazlea eta politikaria. Unió Federal Nacionalista Republicana-ko burukidea, Bartzelonako zinegotzia eta *El Poble Català* egunkariaren zuzendaria izan zen Pere. Geroago, Autonomia Estatutuaren idatz-batzordekidea izan zen, Esquerra Republicanako bozeramailea Madrillgo parlamentuan eta Generalitateko Justizia eta Zuzenbide sailburua. Ama, berriz, Celestina Vigneaux, pedagogo ezaguna zen, Katalunian Montessori metodoa sartzen lagundu zuena.

Joan Coromines berehala nabarmendu zen Unibertsitateko ikasle gisa. Zuzenbide eta Filosofia eta Letretako karrerak egin zituen Bartzelonan. Udako oporraldiak Aran-en ematen zituen, Lès herrian. Primo de Rivera diktadorearen aurkako matxinadan parte hartu ondoren, Montpellier-era bidali zuen aitak. Han Grammont eta Millardet-ekin ikasi zuen. Itzultzean, 1928an eskuratu zuen lizentziatura, eta Madrilen burutu doktoregoa, Ramón Menéndez Pidal eta Américo Castro irakasleekin. 1931ean argitaratu zuen tesia, *Vocabulario aranés*, eta bere ikasketak zabaldu nahian Zürichera joan zen, Gauchat, Steiger eta Jud-en eskoletara, eta Parisera gero, Bloch eta Meillet-ekin ikastera. Tesi gaira askoz geroago itzuli zen, eta 1991an argitaratu zuen *El parlar de la Vall d'Aran. Gramàtica, diccionari i estudis lexicals sobre el gascò* (2).

Berriro ere Bartzelonan, Institut d'Estudis Catalans-en lan egin zuen, araugintza lanetan, oroz gain, Fabra, Casacuberta eta Aramon-ekin, bai eta Sanchis Guarner-ekin ere.

---

(1) *Coromines* idatzi dugu hilberri txosten honetan, jakintsuak nahiago zuen gisan, katalanaren arauekin bat. Bidenabar, berak azaldu zuen bere bi hiztegi handietan (gaztelaniazkoan eta katalanezkoan) eta bere *Onomasticon Cataloniae*-n, *coromina* (pl. *coromines*) katalan hitz zaharra dela, "etxe ondoko zelaia" esan nahi duena. Iturria latinezko *condomina*, *conomina* da, eta iturburua *domus*. Ponte-izenean ere aldaketa bat egin behar izan zuen Chicagoko egonaldiaren hasieran: *Joan utzi* eta *John* hartu, inork *ez zezan* uste emakumea zela.

(2) Bartzelona, Curial. Besteak beste, ikus liburu honetan: "Llista dels mots bascos que s'hi descobreixen com erdèrics (d'origen romànic o indoeuropeu)".

Gerra piztu ahala, soldadu joan zen. Lehendabizi *Regimiento Pirenaico* deitzen zenera igorri zuten, baina laster Estatu Nagusiko itzultzaile izan zen. 1939an Parisera joan zen, eta katalan eskolak eman zituen École Pratique des Hautes Etudes delakoan. Han zelarrik, Cuyoko (Mendoza, Argentina) Unibertsitatetik deitu zuten, hizkuntza erromanikoen irakasle gisa. Arroxelan ontzia hartu zuenean, haren visak bazuen pertsona ospetsu baten sinadura: Pablo Nerudarena, hain zuzen, garai hartan idazlea Txileko enbaxadore baitzen Parisen. Mendozako urteak emankorrak izan ziren zinez. Lan ugariaren artean ezin zuten ahantzi Pompeu Fabra maisua: haren 75. urtemugakari, omenezko liburuaren ardura hartu zuen; liburu hau 1943an agertu zen (3).

1945ean Chicagora aldatu zen Coromines, Filologia Erromanikoko irakasle. Hiri hartan ekin zion *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* erraldoia idazteari, zeinen lehen alea 1954an argitaratu baitzen. Ez zen hori Corominesen langintza bakarra, jakina: ikertzaile bipilak hitzaldi eta txosten batzuk aurkeztu zituen biltzarretan, eta testu zaharren edizioak ompeu (Juan Ruizen *Libro de buen amor*, besteak beste). Orduko fruitua da orobat haren liburuxka bikaina, *What you should know about Catalan language*, Chicago 1950, New Yorken hurrengo urtean ospatu behar ziren Lore Jokoen kariatara idatzia. Jakintsua ez ezik, irakasle onaren lan hori katalanera itzuli zuen, eta Moll-enean argitaratu, titulu honekin: *El que s'ha de saber de la llengua catalana* (4).

Kataluniara oporraldietan joaten zen 1953an gero, eta 1967an zaharsaritu zenean sorterrian egokitu zen, etxetik higitu gabe, oso bakanka baizik. Urteak iraganik, gaztelaniaren hiztegi gotorraren bigarren argitaraldia prestatu zuen Corominesek, José Antonio Pascual Salamancako katedradunarekin batera: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico* izenburuarekin, Gredos argitaletxeak sei liburukitan argitaratua (1984-1991). Lehenbizikoa agertu aitzin, ordea, katalanaren hiztegia, aspaldiko ametsa, hasi zen plazaratzen: *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana*, Joseph Gulsoy eta Max Cahner-en laguntzaz. Lehen alea (A-BL) 1980an agertu zen eta 1991an bederatzigarrena (X-ZUM); eranskina eta aurkibidea prest utzi omen ditu Corominesek, baina argitarakizun daude oraindik, lerro hauek moldiztegitazean.

Euskal hitz asko, etorkiz gureak edo mailegatuak, aurkitzen ditugu bi hiztegi miresgarrietan, Corominesek gaztelanian eta katalanean, bai eta frantses, okzitaniera, galiziera, arabiera eta abarretan ere trebeki atzemanak. Hitz horiek, beste guztiak bezala, arima garbi eta zurieneoak, usapal bezalakoak, eta bihurri eta gaiztoenak, banan-banan aitortzen zituen Corominesek, Emilio García Gómez-ek esan bezala esateko (5).

(3) *Miscel·lània Fabra. Recull de treballs de lingüística catalana i romànica dedicats a Pompeu Fabra pels seus amics i deixebles amb motiu del 75è aniversari de la seva naixença*, Buenos Aires 1943.

(4) Palma 1954; beste zortzi aldiz atera da geroztik, azkena 1982an.

(5) "Todas las palabras se han confesado con Corominas, desde las de alma más inocente, como tortolitas, hasta las más retorcidas". Kultura Ministerioaren saria banatzean, 1990ko urtarilaren 30ean. Aurreko urtean eman zitzaion saria (Espainiako Letretako Sari Nazionala). Saria onartu arren, ez zen joan hartzera, eta gutun gogorra egin zion Jorge Semprún ministroari. Besteak beste, hau zioen: "... no puc deixar de dir-li que la satisfacció que aquesta distinció em dóna, ve acompanyada d'una profunda recança. L'única nació, i l'única llengua meves, a les quals reto incondicional homenatge, són la nació i la llengua catalanes. I veig amb tristesa que l'Estat i el Govern que m'ho atorguen, encara neguen o regategen els drets que són deguts a totes dues...".

Ez da batere harrigarria Koldo Mitxelenaren pozkarioa, 1954an argitaraturiko artikuluko batean, gaztelaniazko hiztegiaren lehen liburukia atera berri zenean. “Gertakari handia” zen hura “hizkuntzazko ikerkuntzarako”; bazen azkenean “aspaldian behar zen gidaria”; hiztegiaren materialak “guztiz ugariak” ziren, eta eskertzekoa zen “Corominesek euskal gauzekiko erakusten zuen interesa, euskara ongi ezagutzen zuelarik, gure hizkuntza xeheki aztertutik” (6). Ondoko urteetan beste hiru aldiz argitaratu zituen Mitxelenak hiztegi horren gaineko iritziak (7).



Isabel Mujika, artzain bat, Koldo Mitxelena, Joan Coromines eta Inaki Usabiaga Erronkari, 1971ko abuztuan. Iñaki Usabiagaren klixtea.

Hiztegi eder horiek ispilu eta eredu bihurtu ziren Mitxelenarentzat, gogoan zera-bilena egiteko. Astiro-astiro, Azkueren hiztegia berritzeko asmoa, Euskaltzaindiak erreterariarrari emandako aginduaren arabera, alde batera utzi zuen. Beste bat, osoki bes-

(6) Lehen kritika horretarako ikus ASJU 1, 1954, 113-118 (= BAP 10, 1954, 373-378, eta *Sobre historia de la lengua vasca*, I, 467-491).

(7) Ikus ASJU 2, 1955, 13-28 (= BAP 11, 1955, 283-297, eta *Sobre historia de la lengua vasca* I, 467-491); BAP 12, 1956, 366-373 (= *Sobre historia de la lengua vasca*, I, 467-491), eta BAP 13, 1957, 494-500 (= *Sobre historia de la lengua vasca*, I, 467-491); bai eta edizio laburtua agertu zenean ere (*Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*). 1962an, beste artikulua bat (BAP 18, 1962, 93-95). Esan dezadan, bide batez, euskarari egotzitako zenbait etimologia ez direla zuzenak. Corominesek hain maite zituen *Chiruca* botak, esaterako, beste iturri batekoak dira. *Chiruca* galizieraz *Mercedes* izenaren diminutiboa da, eta izen hori zeraman katalan ekoiizlearen emazteak. Ikus Jordi Bruguera, *Diccionari etimològic*, Bartzelona, Enciclopèdia Catalana, 1996, s.u. *xiruca*.

te bat, egin beharra zen, katalan adiskidearen lanen ildotik. Eta hori da *Orotariko euskal hiztegia*, zeinen lehen liburukia ezin izan zuten Mitxelena jaunak inprimaturik ikusi, heriotzak tupustean eraman baitzuen gure artetik, 1987ko urriaren 11an.

Corominesen ekarpenean gogorazi behar ditugu halaber pertsona- eta leku-izenez burutu dituen ikerlanak. *Estudis de toponímia catalana* eta *Onomasticon Cataloniae* izeneko liburuak (8), bereziki, izen biltegi naroak dira, euskararentzat arras interesgarriak, zeren maiz euskarari aurkitu baitzuen Corominesek giltza, izen horietariko franko azaltzeko. Erdi Aroan eta geroago ere, dakigunez, Kataluniako eta Aragoiko Pirinio aldeetan euskara bizirik zegoen, eta gure mintzairak bere hatza eta herexa utzi du hango toponimian. Jakituria eta zorroztasun handiz ikertu zituen Corominesek izen horiek, chundaka lekukotasunak ekarri, zaharrak eta berriagoak, idatzizkoak eta ahozkoak. Beti ez zuen asmatu, jakina. Baina merezimendu handia du egileak, zalantzarik gabe, hain lur irristakorrean ibiltzen ausartu zelako, eta soluziobide eta iradokizun anitz eskaini. *Estudis* liburuaren sarreran (1932koan) garbi utzi zuen zein garrantzitarra den euskararen historia eta linguistika sakonki ikastea (9). Mitxelenak goraiatu zuen bihotzez liburu hau ere, lehen alea atera zenean (10).

Euskara ikertu nahi duenarentzat baitezpadakoak eta behar-beharrezkoak dira lan horiek, berdin beste batzuk, oroz gainetik *Tópica hispérica* (11) eta *Entre dos llengüatges* (12). Gauza bera esan daiteke euskarari buruz Corominesek idatzi zituen artikuluez (batzuk bilduak daude liburu horietan), hala nola “Hurgando en los nombres vascos de parentesco”, “De toponimia vasca y vasco-románica en los Bajos Pirineos” (*Arrangoitze, Lukuze, Amikuze, Sarrikota* eta beste dira hor aipagai) edo “Dos notas epigráficas” (13). Liburu arina eta denbora pasakoa dirudien beste bat, *Lleures i converses d'un filòleg* (hau da, “Filologo baten aisialdiak eta elkarriketak”) (14), biziki komenigarria da hizkuntzen arazoetan dabilen edozeinentzat, eta ez da txikia euskarak orrialde horietan duen lekua: besteak beste, *Donostia* izenari buruzko nota luzexka. Katalanez ere *Donostia* idatzi behar zen, haren ustez, eta, ebakerari datxekola, ohar jakin-garriak egiten zituen.

Bestalde, munta handikoa izan da Corominesen ekarpena beste lan batean: Manuel Agud eta Antonio Tovar zenaren *Diccionario etimológico vasco* izenekoaz mintzo naiz. Asmo horrek 1950 inguruan egin zituen lehenbiziko urratsak eta Corominesen haste-hastetik

(8) *Estudis de toponímia catalana*, bi liburuki, Bartzelona, Barcino, 1965-1970. *Onomasticon Cataloniae* sortan zazpi liburuki argitaratu dira 1989az gero, Curial-La Caixa, Bartzelona, azkena *Sal-Ve*.

(9) “I sobretot, per estudiar la part més antiga de la nostra toponímia, els noms provinents de la llengua o llengües pre-romanes que es parlaven a Catalunya, cal que [el toponimista] aprengui el poc que se sap de l'ibèric i que emprengui estudis seriosos, i orientats històricament, sobre la lingüística basca”. *Estudis de toponímia catalana*, I, 20.

(10) Ikus *BAP* 22, 1966, 283-290 (= *Sobre historia de la lengua vasca*, II, 620-626).

(11) *Tópica hispérica. Estudios sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*. Bi liburuki. Madril, Gredos, 1972. Besteak beste direla, Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* liburuaren kontu-ematea aurkitzen da lan horretan.

(12) Hiru liburuki. Bartzelona, Curial, 1976.

(13) Hiru horiek *Fontes linguae Vasconum* aldizkarian; hurrenez hurren: 2, 1970, 169-182; 4, 1972, 299-319, eta 5, 1973, 5-20.

(14) Bartzelona, Club Editor, 1971. 3. argitaraldia 1983.

izan zen iritzi- eta gomendio-emaile (15). Etxeko sentitzen zen Coromines euskararen alo-  
rrean. Euskararen izkutu eta zoko-mokoetan ez zen inola ere arrotz. Lehengo eta oraingo  
euskalariak oro irakurri zituen: Oihenart, Larramendi, Azkue, Schuchardt, Saroihandy, Ga-  
vel, Lafon, Mitxelena, Lafitte eta abar, eta guztien aburuak zorrozki galbahetu.

Euskal leku-izenak hurbildik ezagutu nahian, Nafarroara etorri zen, Erronkarira,  
1971ko abuztuan, Mitxelenarekin batera bospasei egunetan elkarrekin ibiltzeko asmoz,  
Salamanca bi euskal ikasle lagun zituztela, Iñaki Usabiaga eta Isabel Mujika; hurbil  
zebilen, gainera, herriko medikuaren semea, Pello Etxenike gaztexkoa. Zorigaitzoz, or-  
dea, asmoa asmo gelditu zen, biharamunean Mitxelenak, mendian eroririk, orkatila hau-  
tsi baitzuen. Zernahi gisaz, bien arteko adiskidetasunak indartsu iraun zuen. Bazituzten  
biek puntu komun anitz, zientziaz kanpo ere: oroz gain, gerran izanak ziren, biak Es-  
painiako Errepublikaren alde, eta beti agertu ziren askatasunaren defendatzaile eta beren  
hizkuntzen eskubideei oso atxikiak (16).

Euskaltzaindiak ohorezko kide izendatu zuen Coromines 1995ean. Katalan ja-  
kintsuari igorri gutunean hauxe zioen Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunak:  
"Izendapen honetaz Euskaltzaindiak erromanista eta euskalari hauta zaren hori nahi  
izan zaitu bereizi eta sariztatu, gure arteko hizkuntzak ezagutzeko lan neurrigabe eta  
baitezpadakoaren egile zarelako". Ez dut sekula ahantziko zer esan zidan Coromi-  
nesek telefonoz gutun hori hartu zuenean: izendapen hura Sorbonneko *honoris causa*  
doktoregoaren pare zen harentzat. Horra zein maite zituen Joan Corominesek euskara  
eta Euskal Herria. Izendapena Xavier Terrado haren ikasleak, Lleidako Unibertsita-  
tateko irakasleak, jaso zuen, eta maisuaren mezua irakurri. Hona testua:

"Ohore handi honegatik eskerrik asko bihotzez. Moltes gràcies cordialment, sa-  
vis col·legues. Grand merci, savants amis. Sumamente agradecido a tantos maestros.  
Gora Europa bat, Añemendiko alaba!" (17).

Ez zen Coromines jauna gorazarre-gose, inondik ere. Gainera, batzuetan arrazoi  
sakonak zituen. Adibidez, 1973an Antonio Tovarrek proposatu zionean Gaztelaniaren  
Erret Akademian sartzea ezetz erantzun zion: Katalunia herrialde okupatua izan bitar-  
tean hura ezin zitekeen Espainiako erakunde bateko kide bihur.

Langile nekagaitza zen Coromines jauna. "Ez dut eri izateko denborarik", esaten  
zuen maiz, eta haren originalak behin eta berriz zuzentzen zituen. Azken urteetan ere

(15) Uzkur, dakigunez, Mitxelena ibili zen, ez baitzuen uste egin zitekeela, oraingoz behin-  
tzat, euskal hiztegi etimologikorik. Bazituen errenteriarrek ongi iltzatua zientziaren eskakizun zor-  
rotzak. Positibista zen, erabatekoa, gainera. Hasieran bero eta gogatsu agertu bazen ere, urte ba-  
tzuk geroago epeldu eta hoztu zen Mitxelena, zeharo aldendu arte. Alferrik izan ziren  
proiektukideen eta Corominesen gutunak (orain arte argitaragabeak).

(16) Bi jakintsuek Salamancan ezagutu zuten elkar, Onomastikako 5. biltzarren, 1954an.  
"Amigo mío cordialísimo, maestro y colega, a un tiempo, colaborante, inspirador. Pocas páginas  
hay en las partes investigadoras de mis dos diccionarios etimológicos —el catalán y el hispano—  
y del *Onomasticon Cataloniae*, donde no conste su nombre como juez, como fuente límpida, o  
como faro que alumbraba el saber futuro", idatzi zuen Corominesek Koldoren omenez egin zen  
liburuan: *Koldo Mitxelena Elissalt, 1915-1917*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997, 19.  
Eta lehenago hauxe ezarri zuen katalan hiztegiaren hitzaurrean (xii): "Sense Schuchardt la doctrina  
bascològica més segura de Mitxelena no hauria vingut: però Mitxelena fa bé d'investir la de Schu-  
chardt sense contemplacions".

(17) Ikus *Euskera* 40:2-3, 1995, 993.



Joan Coromines 1971ko azaroan. Curial Edicions Catalanes argitaletxeko klixea.

hamabost orduko lanaldiak zituen egunero, tarte bat utziaz astean, literatura irakurtzeko, eta batez ere atseginen zuen hizkuntzaz: grezieraz.

Filologiarako deia gazte-gaztetan nabaritu zuen bere baitan, baina aitik bultzatu zuen, agian oharitu gabe. Hona nola kontatu zuen berak:

“Tenia disset anys, i aquell mes de maig, en lloc de preparar-me per als exàmens de Lògica, d’Història i de Literatura, em passava els dies i les nits al despatx del meu pare llegint les publicacions de la Secció Filològica de l’Institut d’Estudis Catalans; sorprès allí pel meu pare quan entrava amb un client que venia a consultar-lo com a advocat, i que per cortesia li preguntava el que pensava fer, el meu pare va deixar caure amb un aire de falsa indolència i fins de recança, però amb molta oculta murrieria:

— Aquest noi, potser l’haurem de deixar ser filòleg... - tot mostrant-li el llibre que jo tenia a les mans.

La seva mirada, amb un retret mut, em deia: “Com és que no prepares els exàmens?”. La meua reacció interna va ésser: no, no descuido el repàs de Lògica i Literatura per peresa de fer el que cal, sinó pel que el meu pare m’acaba de revelar sense voler, és a dir, que tinc una veritable vocació de filòleg. Des de llavors m’hi vaig llançar com un cavall desbocat” (18).

Max Cahner-en hitzez nahi dut neure hau bukatu:

---

(18) Josep Pla, *Homenots*. Obra completa 16. liburukia. Bartzelona, Destino, 2. argitaraldia 1981, 262-263.

“Joan Coromines ha encarnat el millor de la Catalunya del segle XX. L’apassionament per les coses nobles, com la llibertat de les persones i dels pobles, els ideals democràtics, la supremacia de la cultura, el respecte més profund i la fidelitat pels qui ens han precedit, el treball, l’austeritat com a úniques fonts de progrés, l’estimació de la terra, la crítica com a garantia de l’avanç científic” (19).

Gu guztion oroitzapenean geldituko da betiko Joan Coromines jauna (20).

*Henrike Knörr*

---

(19) *Revista de Catalunya* 114 (bigarren aroa), 1997, 3.

(20) Corominesen bizitzaz eta bibliografiaz gehiago jakiteko, ikus Pineda de Mar-eko udalaren eraginez zenbait egilek onduriko *Joan Coromines. 90 anys*, Bartzelona, Curial, 1995. Interresgarria da halaber Josep Ferrer i Costa eta Joan Pujadas i Marqués-en ardurapean udal eta argitaletxe berek argitaratu duten *Àlbum Joan Coromines*, Bartzelona 1997. Bibliografia joriago dator bigarren liburu honetan.











